

# Karmeldarren eragin kultural eta soziala Markina-Xemeinen

1960-1980 hamarkadetan  
herriko kultur bizitzari emandako  
bultzada eta babesak

Xabier  
Larrañaga **Gisasola**



54


colección  
**Lankidetzan**  
bilduma



MARKINA-XEMEINGO UDALA



**EUSKO  
IKASKUNTZA**





*colección*

**Lankidetzan**

*bilduma*

**Karmeldarren eragin  
kultural eta soziala  
Markina-Xemeinen**

1960-1980 hamarkadetan  
herriko kultur bizitzari emandako  
bultzada eta babesa



Xabier  
**Larrañaga Gisasola**

Azaleko argazkia: Markina-Xemeingo Karmeldarren komentua

---

Larrañaga Gisasola, Xabier

Karmeldarren eragin kultural eta soziala Markina-Xemeinen. 1960-1980 hamarkadetan herriko kultur bizitzari emandako bultzada eta babesa / Xabier Larrañaga Gisasola. – Donostia: Eusko Ikaskuntza, 2010.

133 or.: ir.; 24 cm. – (Lankidetzan; 54)

ISBN: 978-84-8419-210-7

I. Larrañaga Gisasola, Xabier II. Bilduma III. Izenburua

---

Eusko Ikaskuntzak eta Markina-Xemeingo Udalak eskertzen diote liburuki honen egileari eta, elkartearen tradizioaren arabera, haren irizpide eta uste guztiak errespetatzen dituzte, nahiz horrek ez duen esan nahi bere haietako ezein bere gain hartzen dutenik.

---

ISBN: 978-84-8419-210-7

L.G.: BI-888-11

Fotokonposaketa: Ikur, S.A.

Inprimaketa: Baster, S.L.L.

# Karmeldarren eragin kultural eta soziala Markina-Xemeinen

1960-1980 hamarkadetan herriko kultur  
bizitzari emandako bultzada eta babesa

Laburpena / Resumen / Résumé .....	9
Atarikoa .....	11
<b>1. Sarrera</b>	
<hr/>	
1.1. Lanaren helburu orokorra .....	15
1.2. Lanaren egitura .....	16
1.3. Biografia iturriak .....	17
1.4. Eskerrak ematea .....	18
<b>2. Markina-Xemeingo, Euskal Herriko eta nazioarteko egoera 1960. hamarkada hasieran</b>	
<hr/>	
2.1. II. Mundu Gerraren ostean nazioarteko egoera berria .....	21
2.2. Eliza eta gizartea .....	23
2.3. Garapen Ekonomiko berria .....	29
2.4. Euskara eta kultura Markina-Xemeinen .....	31
<b>3. Zerutxu Ikastola. Belaunaldi gazteak euskalduntzeko aitzindari</b>	
<hr/>	
3.1. Hezkuntza sistema frankismo garaian .....	39
3.2. Euskara berreskuratzeko lehen urratsak Markina-Xemeinen .....	41
3.3. Aita Zezilliori omenaldia eta Zerutxu ikastolaren sorrera .....	44
3.4. Zerutxu ikastolako andereñoak .....	47
3.5. Ikastolako hezkuntza eredia .....	50
3.6. Gurasoen lana ikastola aurrera ateratzeko .....	51
3.7. Euskal mugimendua indartzen, baita Zerutxutik kanpo ere .....	57
3.8. Ikastolaren kontra. Debekuak .....	59
3.9. Eskolaz kanpoko ekintzak .....	64
3.10. Karmeldarren konpromiso argia Zerutxuren alde .....	72
3.11. Zerutxu eta Bera Kruzen arteko batasuna .....	76
<b>4. Bertsolari Eguna Karmengo komentuan</b>	
<hr/>	
4.1 Bertsolaritzaren eta euskal kulturaren egoera .....	85
4.2 Aita Migel Mariaren bertsozaleatasuna .....	86
4.3. Bertso egunetako egitaraua .....	88
4.4. Bertso eguneko gorabehera batzuk .....	96
4.5. Bertsolaritzaren bilakaera .....	97

## **5. Sugar taldea**

---

5.1. Sugar taldearen sorrera .....	101
5.2. Sugar taldearen jaialdiak .....	104
5.3. Gizarte eskola .....	106
5.4. Sugar taldearen bestelako jarduera batzuk .....	107
5.5. Sugar taldearen amaiera .....	109

<b>6. Bukaerakoa</b> .....	<b>111</b>
----------------------------	------------

<b>7. Bibliografia</b> .....	<b>115</b>
------------------------------	------------

## **Eranskinak**

---

1. Kronologia .....	121
2. Zerutxu Batzordeko kideen zerrenda .....	127

Argazki Kredituak .....	131
-------------------------	-----

Bibliographic Section .....	133
-----------------------------	-----

Lan honetan Markina-Xemeingo karmeldarrek herriko bizitza kultural eta sozialean izandako eragina aztertzen da, batez ere frankismoaren azken urteetatik trantsizioa gartu zen arte (1960-1985). Eragin hori hiru esparrutan oinarritu zen besteak beste: Zerutxu ikastola eta kultur elkartearen sorrera eta bultzadan, bertsolarien biltzarra antolatzean eta Sugar izeneko gazte elkartearen sorreran.

Giltza-Hitzak: Markina-Xemein. Karmeldarrak. Zerutxu. Ikastola. Bertsolaritza. Sugar.

En este trabajo se estudia la influencia que tuvieron los carmelitas de Markina-Xemein en la vida cultural y social de la localidad, sobre todo a partir de los últimos años del franquismo y hasta el desarrollo de la transición (1960-1985). Esta influencia se plasmó en tres aspectos fundamentalmente: el nacimiento e impulso de la ikastola y la asociación Zerutxu, la organización del congreso de bertsolaris y el nacimiento de la asociación juvenil Sugar.

Palabras Clave: Markina-Xemein. Carmelitas. Zerutxu. Ikastola. Bertsolarismo. Sugar.

Ce travail analyse l'influence des Carmélites à Markina-Xemein dans la vie culturelle et sociale de la ville, tout spécialement à partir des dernières années du franquisme et jusqu'à la transition (1960-1985). Cette influence se reflète principalement sous trois aspects : la création et la promotion de l'ikastola et de l'association Zerutxu, l'organisation du Congrès de Bertsolaris et la naissance de l'association de jeunes Sugar.

Mots-Clés : Markina-Xemein. Carmélites. Zerutxu. Ikastola. Bertsolarisme. Sugar.



## ATARIKOA

Familiarteko nahiz lagun zaharren arteko bileretan ohikoa da lehengo oroi-penetan murgiltzea, iragan urrunari nahiz hurbilari so egitea. Denboraren joanean galzorian dauden historia-puskak bildu nahi izaten ditugu. Horretarako lagun-garri izan ohi da argazki zaharrak begiratzea: familiakoak, lagunartekoak... Bestalde, nor ez da jartzen adi-adi, entzumena zoli dela eta interesa pizturik norberari buruz, norberaren familiari buruz ari direnean?

Interesa piztu zait niri ere, orrialde hauetan barrena ikertzailea gutaz ari dela, solaskide izan dituenak gutaz ari direla ohartzean. Xabier Larrañagak gure historia-puskak bildu ditu, herriko airean aienatu gabe, herritarren oroimenean oraindik ezabatu gabe dirautenak. Kontaketa horretan gure eta, batez ere, herriaren historiatxoaren zenbait argazki zahar jarri dizkigu eskueran. Garai edo tarte mugatuko historia-puskak dira, 1960tik 1985era artekoak.

Gizakiek beren ibileraren oinatzak, pertsonak eta erakundeek beren emaitzak uzten dituzte. Markina-Xemeingo Karmeldarrek ere hiru menderen buruan altxor aberatsa bildu dute herriari eskaintzeko. Hala aitortu zuten 2007ko abenduaren 15eko omenaldian Xabier Alberdi alkateak eta honen ondoren mintzatu zirenek, baita esker ona agertu ere herriaren izenean. Orain, liburu honen egileak, Xabier Larrañagak, Eliza euskal kulturaren gordeleku izan zela urte askoan eta Markina-Xemeinen urte haietan sumatzen zen bizitasun handia azpimarratu ondoren, hau dio:

[...] lan honetan jasotakoak balioko du garai latz haietan gure herriaren eta hizkuntzaren alde lan egin zuten haiei omenaldi txiki bat egiteko. Gaur garena eta daukaguna ez litzateke horrela izango hainbeste jenderen ahalegina izan ezean.

Argazki zaharrena irudi antzera erabiliz, ikertzaileak halako batzuk jarri dizkigula eskueran diot gorago. Bai, arloa mugatu beharra izan du ezinbestean:

Zabaltasun horren guztiaren aurrean, ikerketa nolabait mugatu beharra dago. Karmeldarrek herriari begira egindako lana handia denez, ezin izan dugu guzti-guztia hemen jaso. Besteak beste erlijioa, euskara, kultura, musika, eta abar izan dira arlo garrantzitsuenak.

Argazki zaharren irudiaz jarraituz, hiru sorta jarri dizkigu aurrean: Zerutxu ikastolari (dantza taldea eta elkartea barne direla) dagokion sorta; Bertsolari egunari eta Markina-Xemeingo bertsozaletasunari dagokiona; Sugar gazte taldeari dagokiona.

“Zerutxu”, ametsik politenetakoa izerdiz, larrialdiz, herriaren lanez egia bihurtua. Diktaduraren debeku eta oztopo gainetik euskaltzaleek, herri-maitaleek elkarlanean gauzatu. Karmeldarren artean jaio eta haien eta gurasoen babespean hazi zen. Gero ere, indarrak batuta Bera Kruz ikastola sortu zenean, Zerutxu ikastola bultzatu zuten guraso eta andereñoek hango izaerari eusten eta hango espiritua ikastola berrian txertatzen ahaleginduko ziren. Xabier Larrañagak horren inguruko historia puskak bildu eta labur baina zehaztasun handiz berregitea lortu du. Andereñoen eta gurasoen lekukotasunak jaso ditu. Horiek irakurtzean, bidaia arina egin dugu oroipen zaharren hegoetan. Ziur nago garai hartan protagonista izan zirenek berriro bizi ahal izango dituztela une haiek eta pozezko zirrara sumatuko dutela barnean; denboraren gaindegitik atzerantz begiratzean, ahaleginak eta ongi egindako lanak eragiten duten bihotzeko irribarrea.

Bertsolari eguna eta bertsozaletasuna. Bigarren argazki sorta begiratzean, irudimenak pixka bat denboraren langa gaintzen lagundurik, bertsolariei entzuten jarri naiz. Pilareko Andre Mariaren eguna, urriaren 12a, zen egun seinalatu. Ikastolak, bertsolariak, euskal kantariak... hau da, geure-geureak genituen talde nahiz erakundeak ziren diktaduraren arerioak, hark begi-begitan hartuak zituenak. Horregatik agerian bilerak egiterik ez zen eta komentuko klaustroaren babespera jo zuten eta eguna ere guardia zibilek jai egiten zuten eta kuarteletik irteten ez zirenekoa hautatu... Hasiera apal-apala eta jende gutxiarekin, gehienbat Lea-Artibai ingurukoekin. Ondorengo urteetan indarra hartuz joan zen, bertsolari-bilera ospetsuena izateraino. Egun hau mugatua zen. Bertsolariak, gutxienez noizbait plazan edota jende aurrean kantatutakoak, izan ohi ziren gonbidatuak. Horregatik, herrian ez zuen eragin zuzenik; bai, ordea, zeharkakoa, esku hartzen zuten herriko nahiz eskualdeko bertsolarien bidez. Horrela, bertsozaletasuna indartuz joango zen Markina-Xemeinen eta inguruan. Egun hari eta bertsozaletasunari erreparatu dio ikertzaileak, orduko giroa guregana hurbilduz.

Eta azken sorta, Sugar gazte taldeari dagokiona. “Sugar” entzutean, erre egingo balu bezala, bekokia zimurto ohi dute markina-xemeindar askok. Zapore garratza utzi die gazte-mugimendu hark. Barrutik bizi izan zutenek, ordea, ametsezko etapa bizi-bizitzat jotzen dutela esango nuke. Karmeldarrek bultzatutako gazte talde batek, etorkizunik izatekotan, erlijioaren zutabea ezinbestekoa izan behar; euskara eta euskal kulturarena ere bai, jakina, non bizi garen kontuan izanik. Kultura arloan lan handia eta ona egin zuenik ezin uka nik neuk behintzat. Azkenaldian politikarantz lerratu zenean, karmeldarren ondoan bizi laburra izango zuela bistakoa zen... Dena dela, mugimendu honek, alde nahiz aurka, baina interesa piztu zuen herritarren artean; inor ez zuen hotz-hotz utzi. Hala jasotzen du Xabier Larrañagak batzuen eta besteen ahotik, baita gazte-taldeko agiri eta aktetatik ere.

Laburbilduz, lekuko historiaren ataltxo bat jasotzen da hemen, guretzat eta markina-xemeindarrentzat guztiz interesagarria dena, gurea delako eta galzorian egon zitekeelako. Eskerrak ematen dizkiot Xabierri. Hasieratik azkeneraino gogotsu irakurtzen denetakoa begitandu zait niri. Ea zuri ere, irakurle, hala begitanduzen zaizun...!

Luis Baraiazarra Txertudi  
*Karmeldarra, Markina-Xemeingo komentuan*

# 1. Sarrera



## **1.1. LANAREN HELBURU OROKORRA**

Markina-Xemeingo Udalak 2007. urtea “Urte Karmeldarra” izendatzean ikerketa-beka baten deialdia kaleratu zuen Eusko Ikaskuntzarekin batera. Bekaren helburua Markina-Xemeingo kultur eta gizarte bizitzan karmeldarrek izan duten eragina aztertzea zen.

Lan honen helburua, zehazki, frankismo garaiaren bigarren erdian (1960tik aurrera) eta trantsizio urteetan Karmengo komentuari inguruan sortutako mugimendu kultural, erlijioso eta euskaltzalea aztertzea da. Kontutan izan behar dugu garai hartan Hego Euskal Herrian eta estatu espainiar osoan gizarte aldaketa garrantzitsuak gertatu zirela. Politika alorrari dagokionez, frankismoa oraindik gogor eta tinko zegoen arren, belaunaldi berriak azaldu ziren, Gerra Zibila (1936-39) bizi izan ez zutenak. Belaunaldi berri horiek esparru askotan agertu zuten gizartea eraberritzeko nahia (politika, ekonomia, kultura, erlijioa...).

Neurri handi batean, Eliza izan da euskal kulturaren gordeleku urte askotan zehar, eta gizartearen gauzatzen ari ziren aldaketa horiekin bateratzeko nahia nabari zen, sektore batzuetan behintzat. Horren isla izan zen, esaterako, euskara batuaren sorrera Arantzazuko monasterioan (1968). Markina-Xemeinen bertan ere, garai bertsuan, adierazgarria izan zen Xemeingo Parrokiaren inguruan, eta bereziki orduko “Eskola Laboral Parrokiala” zenaren inguruan antolatu zen mugimendu guztia; hau askoz mugimendu zabalagoa zen, besteak beste, nagusiki lehenengo sektorean (nekazaritza eta arrantza) oinarritutako eskualdean industria garapenaren lehen pausoak izan ziren eta.

Horrek guztiak, nire iritziz, garai hartako Markina-Xemeinen zegoen bizitasun handia agertzen digu. Karmengo komentuari inguruan ere aldi berean, eta sarri elkarri eskua emanda, sortu ziren ekimenak aztertuko ditugu lan honetan. Argitalpen honek, beraz, helburu bi izango ditu: alde batetik oraindik hain urrun ez dagoen garai bat aztertzea nahiko nuke (nire ustez belaunaldi gazteagoek ezer gutxi ezagutzen dugu horren inguruan). Beste alde batetik, lan honetan jasotakoak balioko du garai latz haietan gure herriaren eta hizkuntzaren alde lan egin zuten haiei omenaldi txiki bat egiteko. Gaur garena eta daukaguna ez litzateke horrela izango hainbeste jenderen ahalegina izan ezean. Garrantzitsua iruditzen zait, gainera, gogoratzea, oroimen edo memoria historikoa hainbeste aipatzen den garai hauetan, gure herriaren oroimena hildakoei, sufrimenduak eta gerrek ez ezik herritar askoren eskuzabaltasunak eta lan egiteko gogoak ere osatzen dutela. Etorkizuneko belaunaldiek badute zer ikasi gure aurrekoengandik.

## 1.2. LANAREN EGITURA

Ikerketa hau hasterakoan karmeldarrek markina-xemeindarrekin izandako harremana luzea eta zabala izan zela konturatu nintzen. Historiari begiratu hiru mende baino gehiago ditu erakunde honek (1691n sortu zen Markinako komentua) eta ezin da ukatu herrian urte luze hauetan izan diren hainbat talde, ekimen, jarduera eta abar. bertan eduki dutela, sorrera ez bada, babesa eta laguntasuna bai gutxienez. Gaur egun erlijioak eta Elizak (nagusiki erlijio katolikoari buruz ari naiz, gure inguruan orain arte nagusi izan denaz) lehenago zuten eragina eta indarra neurri handi batean galdua duten arren, ezin dugu ukatu Markina-Xemein beزالako herri txiki batean orain gutxi arte erlijioak zuen indarra eta funtzio soziala.

Zabaltasun horren guztiaren aurrean, ikerketa nolabait mugatu beharra dago. Karmeldarrek herriari begira egindako lana handia denez, ezin izan dugu guzti-guztia hemen jaso. Besteak beste erlijioa, euskara, kultura, musika, eta abar. izan dira arlo garrantzitsuenak. Garaia dagokionez, 60-80 hamarkadetako historiari muga-tuko naiz, gutxi ikertutako garaia delako, batetik, eta gaur egungoa ulertzeko oinarria delako bestetik. Aurreragoko historia jasota dago beste argitalpen batzuetan (Karmel aldizkarian eta Karmel Sortan, Garaian aldizkarian...) eta hemen puntu garrantzitsu batzuk baino ez ditut idatziko, laburpen gisa, hasieran.

Lan honetarako informazioa lortzeko bide edo teknika bi erabili dira. Lehen-dabizi, aztertu nahi izan dudana zuzenean bizi izan zuten zenbait pertsona elkarrizketatu ditut. Elkarrizketa hauen helburua pertsona horien ikuskera, pentsaera edo oroitzapenak bere osotasunean ulertzea da. Horrela, elkarrizketa batzuekin lehenetik informaziorik ez daukagun gairen bati buruz ezagutza sakona edukitzera iritsi gaitezke. Orain arte gutxi ikertutako arlo honetan funtsezko elementua izan da lehen hurbilketa egiteko.

Horrez gainera, hasieran uste baino garrantzia handiagoa hartu du iturri ez zuzenen azterketak. Teknika honekin aurretiaz idatzita edo grabatutako materialak aztertzen dira. Elkarrizketetan ez bezala, iturrien azterketan ikertzaileak ez du aukerarik nahi duen guztia lortzeko, hau da, honezkero beste norbaitek jasotako informaziotik abiatu behar du. Hala ere, teknika honek objektibotasunerako aukera handiagoa ematen du; ikertzaileak ikertu nahi duen garaian jasotako materiala du oinarri eta, beraz, ez dago elkarrizketatu batek gogoratzen duen edo azaldu nahi duenaren menpe. Izan ere, elkarrizketetan ikertzaileak jasotzen duen informazioa beti egongo da lekukoak edo elkarrizketatuak nahi duenaren menpe; zenbait gauzari buruz hitz egitea ez zaio egokia irudituko edo ez du nahiko, horrek haserrea edo gatazka sor dezakeelakoan.

Teknika bi horiek erabilita eta garaiko gizarte eta kulturari buruzko bibliografia orokorrarekin batuta, kontaerak hiru oinarri sendo izango dituelakoan nago: historiagile edo ikertzaileek jasotako informazioa eta egindako azterketa (bibliografia orokorra), protagonistek bere garaian bildutako datu eta gertaeren kontatera (iturri ez zuzenak, elkarteen aktak, idazkiak...) eta garai horiek zuzen-zuzenean bizi izan zituztenen testigantzak (elkarrizketak). Kontaerak sendotasuna hartzen du horrela, nahiz eta zenbait kasutan iturriek diotena bat ez etorri, elka-

rrizketatuek datuak ondo gogoratzen ez dituztelako edo gaur egun garrantzitsuak iruditzen zaizkigun hainbat aspektuk orduan garrantzirik ez zutela uste izan eta testuetan adierazi ez zirelako. Zentzu horretan, teknika guztien balioa erlatibizatu egin behar izan da une oro.

Lan honen zutabeak hiru dira: Zerutxu ikastola (dantza taldea eta elkarte barne direla), Bertsolari eguna eta bertsozaletasunaren bultzada Markina-Xemeinen, eta Sugar gazte taldea. Atal horietan, elkarrizketetatik jasotako informazioa eta beste iturri batzuetatik jasotakoa jarriko ditut eta honako puntu hauetan jarriko dut arreta: taldearen eginkizuna, partaideak, karmeldarrekin harremana, bila-kaera eta amaiera (halakorik egonez gero). Nire lana atal hauetan oinarrituko dut gaur egun gure herrian ditugun hainbat talde, elkarte eta abarren lehen oinarriak hor daudela uste dudalako.

### 1.3. BIOGRAFIA ITURRIAK

Orain arte gutxi landutako gaiak izan dira hauek, argitaratutako materialari dagokionez. Kontuan izan behar da bai Zerutxu mugimendua, baita Bertsolari eguneko ekimena ere, frankismo garaian (60. hamarkadan) sortu zirela, horrek esan nahi duen oztopo eta traba guztiekin. Behin frankismo ostean (1975etik aurrera) egoera zerbait aldatu zen arren ikerketarik eta datu bilketa garrantzitsurik ez da egin gai hauetaz. Garai hartako historia aztertzen duten zenbait lanetan zeharkako aipamen batzuk baino ez dira agertzen Markina-Xemeingo egoerari buruz.

Lan hau egiteko hasierako erreferentzia garrantzitsuena Julen Urkizak argitaratutako “Karmeldarrak Markinan (1691-1991). Historia eta agiriak” izan da. Liburu horretan, izenburuak berak aipatzen duenez, Karmeldarrek Markina-Xemeinen izan duten historia jasotzen da, horretarako artxiboetan jasota dauden dokumentuak jasoz, besteak beste, Markinako Aita Karmeldarrek duten artxiboa. Liburu horretan Zerutxuri, Bertsolari Egunari edota Sugarri buruzko aipamenak nahiko laburrak diren arren, datu interesgarriak jasota daude eta ikerketa abiarazteko baliozkoak izan zaizkit.

Luis Baraiazarrak idatzitako zenbait artikulua eta idazlanetan ere datu garrantzitsuak aurkitu ditut, besteak beste Markina-Xemeingo karmeldarren komentuarekin lotura zuzena izan duten hainbat pertsonaiari buruz idatzi dituenak. Artikulu hauetako gehienak *Garaian* edota *Karmel* aldizkarietan jasota daude. Idazle honi dagokionez, ezin aipatu gabe utzi 2009an argitaratutako *Nire sasoiko Markina-Xemein* oroitzapen liburua ere. Bertan, bere bizitzako hainbat urteetan Markina-Xemeingo karmeldarren komentutik bizi izandakoak gogorazten ditu, estilo guztiz pertsonalean.

Zerutxu elkarteak 1977tik aurrera ateratako *Zerutxu: Markina eta ingurueta-ko eskola aurreko barriak* aldizkari aleetan ikastolaren eta mugimenduaren hainbat berezitasun agertzen dira, besteak beste Zerutxuko arduradunek garai hartako hezkuntza egoera nola ikusten zuten, Mertzedeiko ikastetxearekin (Bera Kruzekin) eta eskualdeko beste ikastola batzuekin (Bolibarko ikastola eta Aules- tiko *Urregarai* ikastola bereziki) zituzten harremanak eta abar.

Bertsolari Egunari buruzko ezer gutxi aurkitu dut idatzita, garaiko prentsa artikulu labor batzuk izan ezik (gehienak *Zeruko Argia* aldizkarian ateratakoak). Xabier Amurizaren “Enaz, Banaz” oroitzapen liburuan jasotzen dira bere oroitzapen batzuk, labor-labor, jai egun horren eta, bereziki, bertako antolatzaile eta bultzatzaile izan zen Aita Migel Maria Juaristiren buruz. Esan beharra dago, halaber, *Xenpelar* dokumentazio zentroak bilduta dituela Bertso Egun hauetako batzuetan egindako grabaketak, nahiz eta orduko teknologiaz eginda daudenez soinu kalitatea hain ona izan ez.

Aztertu dudan garaia (1960-1985 urteak, gutxi gorabehera) Markina-Xemeinen nolakoa izan zen ezagutzeko zenbait monografia daude, gai zehatzei dagozkienak. Horietatik aipatzeko modukoak iruditzen zaizkidan batzuk: baserri eta landa guneak izandako bilakaera aztertzen du Maria Dolores Barinagarrementerriak bere *El medio rural de Markina-Xemein* liburuan. Eskola Laboral Parrokiala zenari buruz argitalpen zabalago batean azpiatal bat eskaintzen zaio; Amaia Irizar eta Arianne Kareagak argitaratutako *Arrasate. Kooperatiba baten ibilbidea. Trayectoria de una cooperativa* lanean labor azalduta dago ikastetxe honek Markina-Xemeingo gaztediaren lan prestakuntza hobetzeko. Gai bera, askoz sakonago azalduta dago Ibai Muñizek idatzitako *Lea Artibai: Eskolatik eskualdera. De la escuela a la comarca* lanean. Azkenik, kirol eta kultur giroa aipatzen duen lana da Miguel Angel Bilbaoren *Artibai Mendigoizale Taldea/Grupo Alpino Artibai (1946-1996)*, batzuk aipatzearren.

Argitaratu gabeko dokumentuei dagokienez, Zerutxu taldearen akta eta kontu liburuak guztiz baliozkoak izan dira, baita Sugarren akta liburua ere. Beraietan, egunez egun talde hauek izaten zituzten bileren eta bertan hartutako erabakien berri zehatza ematen da, nahiz eta askotan behar besteko sakontasunik ez izan. Akta eta liburu hauek, hala ere, gorago aipatutako akatsak dituzte sarri; hau da, idatzi zirenean garrantzitsuak ziren datuak jasotzen dira soilik. Iturri horiek aztertzean kontuan izan behar da idazleek une hartako jendearentzat idazten zutela, ez 40 urte geroago liburu horiek ikertuko zituzkeen ikertzailearentzat.

#### **1.4. ESKERRAK EMATEA**

Labor-labor tarte txiki hau baliatu nahiko nuke lan hau egiteko beraien laguntasuna era batera edo bestera eskaini didatenei. Ezinbestekoa da, lehendabizi, Markina-Xemeingo Udalari eta Eusko Ikaskuntzari eskerrak ematea, ikerketa beka hau argitaratzeagatik eta niregan konfiantza jartzeagatik. Nire irakasle Patxi Juaristiri ere eskerrak eman behar dizkiot lan hau egitera bultzatu ninduelako eta unean-unean beharrezko laguntza, zuzenketa eta kritikak egiteagatik. Gauza bera Igor Idoeta Markina-Xemeingo bibliotekako arduradunari ere. Iratxe Lasari, hizkuntzari dagozkion zuzenketak egiteaz gain lanaren martxari buruz erakutsitako interesagatik. Luis Baraiazarrari, lan honetarako hitzaurrea egiteko prest agertzeaz gain, bere esku zituen hainbat eduki eskaini dizkidalako. Elkarriketatu guztiei, beraiek emandako informazio aberatsagatik izan ez balitz lan hau ezinezkoa izango litzakeelako. Lan honekiko interesa agertu eta hainbat erataria beraien laguntasuna eskaini didaten guztiei, eskerrik asko.

**2. Markina-Xemeingo,  
Euskal Herriko eta nazioarteko  
egoera 1960. hamarkada  
hasieran**





1960ko hamarkada eraldaketa garrantzitsuen hamarkada izan zen. Politikoki frankismoa bete-betean zegoen, horrek esan nahi zuen guztiarekin: diktadura gogorra, alderdi politikoak debekatuta, zentsura, heriotza zigorrak, euskara debekatuta edo gutxienez gutxietsita, adierazpen kultural minimoenak ere susmopean... Hala ere, politikoki gauzak berdin antzean jarraitzen zuten arren, gizartean eta ekonomian sekulako aldaketak gertatu ziren.

Nazioarteari begiratu, ordura arte Espainia guztiz isolatuta zegoen. Espainiako Gerra Zibilaren eta Bigarren Mundu Gerraren ostean frankismoa nazioarteko aliatu gabe gelditu zen, Bigarren Mundu Gerran garaile atera ziren mendealdeko potentziek (Ameriketako Estatu Batuek, Erresuma Batuak eta Frantziak) nazien aliatutzat hartzen baitzuten, nahiz eta gerran Espainia ofizialki neutrala izan. Zer esanik ez Sobietar Errepublika Sozialisten Batasunarekin zeukan harreman ezaz (gatazka Francoren heriotza osterara arte luzatu zen). Egoera horretan, eta gerrak ekarri zuen hekatonbe ekonomikoa leuntzeko asmoz, ekonomia autarkikoa<sup>1</sup> jarri zen martxan. Estatuak nekazaritzako produktu guztien erabateko kontrola burutzen zuen. Azken finean ekonomia gehiena nekazaritzan oinarritua zegoenez, jarduera ekonomiko oro gobernuak zorrotz gainbegiratzen zuen. Hala ere, estatuaren kontrolpetik kanpo estraperloa eta merkatu beltza ere handitu ziren.

Esan beharrik ez dago, zentralismo ekonomiko hori beste arlo guztietara ere hedatu zela. Hala nola, estatuaren izate nazional bakarra, nazionalismo bakarra (espainiarra) eta hizkuntza bakarra (gaztelania) inposatu ziren goitik behera. Ikuspegi horren aurka zeudenak Gerra Zibila galdu zuten, erbesteratuta, atxilotuta edo errepresio gogorraren menpe zeuden. Kontuan izan behar da Gerrako gaitzaileen fusilamentu masiboek 40. hamarkadara arte iraun zutela.

## **2.1. II. MUNDU GERRAREN OSTEAN NAZIOARTEKO EGOERA BERRIA**

1950eko hamarkadan gauzak aldatzen hasi ziren nazioartean. Bigarren Mundu Gerran elkarren aliatu izan zirenek (Ameriketako Estatu Batuek eta SESBk) mundu ikuskera zeharo kontrajarriak defendatzen zituzten (liberalismo kapitalista demokratikoa bata, eta komunismoa edo sozialismo erreala bestea). Zentzu horretan bien arteko gatazka etengabea izan zen harik eta bietako bat "erori" zen arte (1989an Berlingo harresia "jausi" eta hurrengo urteetan

---

1. Ekonomia autarkikoa duen Estatuaren helburua bere beharrian guztiak bere kabuz betetzea da. Nazioarteko merkataritza ia erabat desagertu ohi da sistema horretan; inportazio zein esportazioak ahal bezain beste murrizten dira. Bereziki ekonomia ahulek (gerra pasatu berri dutenek adibidez) jotzen dute autarkiara, gastuak gutxitzeko.

SESB desintegratu zen arte). Giro horretan, mendebaldeko gizartean nagusi zen joera antikomunista aintzat hartuz, Estatu Batuek Frankorekiko zuten iritzia aldatu zuten. Etsai izatetik komunismoaren aurkako borrokan aliatu “interesgarri” izatera pasatu zen; horrek Gerra Zibilean SESBek izandako protagonismoa sustraitik deuseztatu eta European zegoen zatiketa handitzea ekarri zuen. Base militarrek ezarri ziren eta horren ordainetan laguntza ekonomikoa jaso zuen, ekonomia liberalizatzeko asmoz.

Francoren errejimenak lortutako onarpena aztertzeke orduan ezinbestekoa da 1945etik aurrera Mendebaldeko European eta Amerikako Estatu Batuetan indartsu zegoen antikomunismoa aipatzea. Sobietar Batasunak II. Mundu Gerraren ostean Ekialdeko Europako estatuak bereganatu eta nazioarte mailan Estatu Batuekin lehia gogorra izan zuen XX. mendeko bigarren erdialde osoan zehar. Estatu Batuek Europa mendebaldean zuten hegemonia bermatzeko ezinbestekoa zen Espainia aliatu izatea.

Frankismoak lortutako “garaipen” horiek kolpe latzak izan ziren bai erbestean, baita klandestinitatean ere zegoen oposizio antifrankistarentzat. Izan ere, Jose Antonio Agirrek gidatutako Euzko Jaurilaritzak eta baita EAJ/PNV alderdiak ere II. Mundu Gerra amaitu ondoren potentzia demokratikoek (Ameriketako Estatu Batuek, Britainia Handiak, Frantziak...) frankismoa deuseztatuko zutela uste zuten, eta beraien ekintza “para-diplomatiko” guztia helburu horretara bultzatu zuten<sup>2</sup>. Horren ordeez, baina, Frantziak Parisen zuten egoitza kendu zion Euzko Jaurilaritzari eta 1946an hasita Mugerretik (Lapurdi) emititzen zuten “Euzkadi Irratia” ixteko agindua eman zuen. Izan ere, mendebaldeko potentziek frankismoarekiko zuten ikuspuntua aldatzen joan zen: nazien eta faxisten aliatu izatetik, komunismoaren aurkako borrokan lehiakide izatera pasa zen.

Frankismoa, ustez, inoiz baino sendoago zegoen garai hartan; hala ere, gizartea aldatzen ari zen pixkanaka. Gerra Zibila bizi izan ez zuen belaunaldia agertu ahala bestelako dinamikak sortzen ari ziren, gehienbat kultura alorrean ahalegina egin zuten urte luzeetako diktadura gogorak deuseztatutakoa berreraikitzeke. Pixkanaka, gainera, bestelako ideologia batzuk sartu ziren ordura arte frankismo gogorrenak monopolio erabatekoa zeukan esparruan: gerra aurreko tradizio nazionalista euskaldunaz gain, astiro-astiro ezkerreko ideologiak hedatzen joan ziren. Euskal Herrian aldaketa garrantzitsuenetakoa 1959ko uztailaren 31n Euskadi ta Askatasunaren (ETA) sorrera izan zen. Talde horren buruzagi esanguratsuenak Julen Madariaga, Eneko Irigaray, Jose Luis Alvarez Enparantza “Txillar-degi”, Benito del Valle eta Patxi Iturrioz ziren.

---

2. Puntu honetan ezin dugu aipatu gabe utzi Alberto Onaindia Zuloaga (Markina-Xemein, 1902-Donibane Lohitzune, 1988) abadeak egindako lana. Gerra Zibilean eta ondorengo urteetan, Jose Antonio Agirre lehendakariari atxikitako kontseilari postuan, bereziki Vatikanoren aurrean EAJk gerran izandako jarrera justifikatuz, Gerrako sarraskiak (bereziki Gernikako bonbardaketa) nazioartean salatuz eta BBC eta Radio Paris-etik hitzaldiak emanez (Padre Olaso ezizenez). Hitzaldi horiek 1957an amaitu ziren, Frantziako gobernuak Aljeriako Gerraren ondoren Nazio Batuen Erakundearen Espainiaren babesa lortu behar izan zuenean.

ETAk ordura arteko abertzaletasunak jarraitutako bideen haustura sakona ekarri zuen. Hasteko, euskal aberriaren osagarri garrantzitsuena definitzeko orduan desadostasunak zeuden: EAJk euskal nazioaren funtsa etniak osatzen zuela defendatzen zuen, baina ETAk ikuskera hori baztertu eta kulturen jarri zuen oinarria. Beste alde batetik, 60. hamarkadan Euzko Alderdi Jeltzaleak zeraman politika kristau-demokrataren aurrez aurre, ideologia marxista-leninista bere egin zuten. Kontuan izan behar da, 50. hamarkadaren amaieran eta 60. hamarkadaren hasieran, potentzia kolonialak (Frantzia eta Erresuma Batua nagusiki) gain-behera zeudela eta ordura arte Afrikan edo Asian izan zituzten koloniak galtzen ari zirela eta hauek estatu berriak eratu zituztela. ETAk bere hasierako urteetan eredutzat hartu zuen, besteak beste, Aljeriako deskolonizazioa (1962an lortutakoa). Sozialismoari loturik, definizio horretan garapen handia izan zuen II. eta III. asanbladetan (1963 eta 1964); horietan komunismoaren aldeko jarrera hartu eta erakundearen helburuak lortzeko bide egokiena borroka armatua zela defenditu zuen. Une horretan EAJrekin zituen harreman guztiak hautsi zituen “nazio askapenerako interesen aurkakoa” zela uste zuelako.

Aldaketa horrek euskal abertzaletasunaren baitan zatiketa gogorra eragin zuen: ETA sortu zuten militanteek erbestean zeuden EAJko buruzagitzari eta Jaur-laritzari pasibotasuna eta utzikeria leporatzen zizkieten; izan ere, azken hauen estrategia mendebaldeko potentziak frankismoaren ankerkeriaz ohar zitezen saiatzeari zen, horretarako beharrezko ziren harreman diplomatikoak erabiliz. Baina potentzia horiek frankismoa onartu zutenean, Euskal Herriko zenbait taldek (EKINen inguruan bildutakoak) EAJren estrategia antzua zela salatu zuten eta beste bide batzuetatik abiatu beharra aipatu zuten.

ETAren lehen ekintza armatuak 60. hamarkadako amaierarantz izan ziren. Erakunde honek 1968an bere gain hartu zuen lehen atentatua, Jose Angel Pardines Arcay guardia zibilaren kontrakoa, ekainaren 7an. Atentatu horren ostean, Xabier Etxebarrieta eta Iñaki Sarasketa etakideak ihesean zihozela, tiroketa bat izan zen eta Etxebarrieta hil zen Tolosako Benta Handi inguruan. ETAren lehen ekintza sonatua, aldiz, 1968ko abuztuaren 2an Meliton Manzanos polizia buruaren aurkako atentatua izan zen, frankismoaren aurkako oposizioaren arabera diktaduraren errepresio gogorrenaren arduraduna garai hartan.

## **2.2. ELIZA ETA GIZARTEA**

### **2.2.1. Frankismo garaiko Eliza Katolikoa**

Altxamendu frankista egin zuten jeneral eta militarrek maila batean erlijioan oinarritu ziren. Bigarren Errepublikak (1931-39) Espainiako eta Hego Euskal Herriko gizaratean Eliza katolikoak zuen eragin “gehiegizkoa” gutxitu nahi izan zuen, legeetan (tartean 1931ko konstituzioan) egindako aldaketen bidez. Konstituzio horrek estatuaren izaera laikoa azpimarratzen zuen, erlijio ofizialik gabeko estatua zela esanez (3 art.). Horrez gain, gobernu guztiei (zentralari, autonomikoei edo udalei) erakunde erlijiosoak diruz laguntzea debekatzen zitzaien. Era berean, gobernuak ordena erlijiosoak debekatzeko eskumena zeukan (26 art.) ohiko boto kanonikoez (kastitatea, txirotasuna eta obedientzia) gain beste boto

bereziren baten bidez Estatuaren subiranotasuna arriskuan jarriz gero<sup>3</sup>. Gainera, erlijiosoei irakaskuntzan eta merkataritzan aritzea debekatu zitzairen. Frankistek Gerra Zibila hasi zuten aldaketa horiei aurka egiteko. Zentzu horretan Gerra Zibila “Gurutzada” balitz bezala aurkeztu nahi izan zuten.

Esan beharra dago, hala ere, Euskal Herrian Elizak (hierarkia alde batera utzita) bestelako jarrera izan zuela frankismoaren aurrean. Abade eta erlijioso asko herritarrengandik gertu bizi ziren eta herriaren izaeraren gaineko ardura erakusten zuten. Hori zela eta, inguruotako zenbait elizgizon hil zituzten Gerra Zibilean eta beste batzuek erbestea edo kartzela zigorra jasan behar izan zuten. Markina-Xemeinekin zerikusia zuten hildako abadeak (bai bertako edo inguruko parrokiatako arduradun zirelako, baita bertakoak izanda beste parrokia batean zebiltzailako) hauek izan ziren: Jose Sagarna Uriarte (Zeanuri, 1911- Markina-Xemein, 1936) Larruskaingo parroko gaztea, Jose Peñagarikano (Etxebarria, 1872- Oiarzun, 1936) Etxebarriko parrokoaren laguntzailea eta Celestino Onaindia Zuluaga (Markina-Xemein, 1898- Hernani, 1936) Elgoibarko abade laguntzailea. Izan ziren, era berean, Errepublikaren aldekoek hildako Markina-Xemeingo abade eta erlijiosoak ere; zehazki Migel Iturraran Lauzirika erlijioso agustindarra (Xemein, 1918- Paracuellos del Jarama, 1936) eta Domingo Ibarluzea Oregi jesuita (Markina, 1906- Las Casas, Ciudad Real, 1936) izan ziren Errepublikarren aldekoek hildako herriko erlijiosoak<sup>4</sup>.

Gerra Zibila amaitu eta berehala Eliza Katolikoaren hierarkiak matxinatuena agintea aintzat hartu zuen arren, urte batzuk behar izan ziren Vatikanoren eta Estatu Espainiarraren (*Estado Español*, gartzelaniaz) arteko harremanak guztiz normalizatzeko. Onarpen horri behin betiko forma juridikoa eman zitzaion 1953ko Konkordatuaren bidez. Testu honetan Aulki Santuak errejimen frankista publikoki onartu zuen. Horren truke, estatua ofizialki katolikoa zela aitortu zen eta Elizari pribilegioak itzuli zitzaizkion (irakaskuntzari, ekonomiari eta zuzenbideari zegokionez, besteak beste).

Konkordatuak erlijio katoliko, apostoliko erromatarra Espainiako bakarra zela (1 art.) eta Eliza gizarte perfektuaren irudi zela aitortu zuen (2.1 art.). 1931ko konstituzio errepublikarrak erlijio katolikoari kendutako pribilegio eta eskuduntza bereziak berriz indarrean jarri zituen. Konparazio baterako, Konkordatuak II. Errepublikako egoera buruz behera jarri zuen. Frankismoak, Gerra Zibila irabazi zuenetik, Espainiako gizartearen kristautasunaren presentzia handitzea nahi izan zuen, aurrerago esan den bezala, erregimenaren zilegitasuna berma zezan.

---

3. Azken puntu hau bereziki Jesusen Lagundiarengan (jesuitengan) pentsatuta idatzi zen. Izan ere, jesuitak goian aipatutako hiru botoez gain laugarren bat egiten dute: Aita Santuarenganako menpetasun berezia. Boto hau gehienbat misio-iharduerara mugatzen da, hau da, Aita Santuak erlijio katolikoarentzat “berriak” diren lurraldeak ebanjelizatzerara bidal ditzake. Hala ere, Errepublikako konstituzioa idatzi zutenen iritziz, boto horrek jesuitak kanpoko botere eta estatu baten menpe jartzen zituen: Aita Santua eta honek zuzendutako Vatikanoa.

4. Hildako abade eta erlijiosoak aipatzean ez ditut ahaztu nahi inondik inora ere Gerra Zibilak Markina, Xemein eta inguruotako beste herrietan hildako zibilak edo laikoak. Frankoren altxamenduak Euskal Herriko elizako sektore batzuen kontra izan zuen jarrera azaltzeko jarri dira izenok, ez, inolaz ere, abade izan gabe hil zituzten errugabeak ahazteko eta alboratzeko asmoz.

Horrela, gizartean ospakizun eta ekintza erlijiosoen indarra hartu zuten<sup>5</sup>, besteak beste, prozesioak, elizkizunak, hirurren eta bederatziturrenak, etab. Era berean, ezkontza zibila eta dibortzioa ezabatu egin ziren eta baliozko ezkontza bakarra eliza katolikoaren baitan egindakoa bihurtu zen.

### 2.2.2. Elizaren eraberritzea. Vatikanoko II. Kontzilio ekumenikoa

Ezin da aipatu gabe utzi 1960. hamarkadan Eliza Katolikoak izan zuen eraberritze sakona. Joan XXIII.a aita santuak (1958-1963), Eliza eta gizarte modernoaren arteko gatazka gainditzeko beharra ikusirik, Eliza Katolikoaren kontzilio berri bat egiteko deia zabaldu zuen. Ordura arteko kontzilioek dogmak ezartzea eta Elizaren zatiketa eragozteko izan zuten helburu, baina honek berritasunezko joera zuen hasieratik bertatik. 1962ko udazkenean hasi zen, eta, Joan XXIII.a handik gutxira hil zen arren, bere ondorengo Paulo VI.ak (1963-1978) kontzilioaren bigarren etapa zuzendu zuen 1965eko abenduan amaitu zen arte<sup>6</sup>.

Kontzilioaren eraberritzeak gai asko ukitu zituen, baina, labur bada ere, hemen aipa genitzake aldaketa garrantzitsu batzuk: laikoaren izaerari prestigio handiagoa eman zitzaion, Elizak gizarteko premien aurrean jardun behar zuela aitortu zen bereziki herri behartsuenen garapena bultzatuz (Paulo VI.aren *Populorum Progressio* entziklika (1967an argitaratua) guztiz garrantzitsua izan zen arlo honetan) eta lekuan lekuko ebanjelizatzea bultzatzeko herriaren hizkuntza erabili beharra aitortu zen. Azken honek eliztarrengan aldaketa handia ekarri zuen; ordura arte latinez izandako elizkizunak tokiko hizkuntzan egiten hasi ziren (gurean euskaraz eta gaztelaniaz).

*Sacrosantum Concilium* konstituzioak lehen aldiz mezatan herriaren hizkuntza erabiltzea baimendu zuen, nahiz eta fededunei latinezko otoitzak ikasteko aholkatzen zitzaion; latinezko zati batzuk mantendu nahi ziren baina bereziki hitzaren liturgia (irakurgaiak eta hitzaldia) tokiko hizkuntzan egitea baimentzen zuen. Helburu garrantzitsuena eliztar fededun guztiek liturgia ospakizunetan arretaz parte har zezatela baimentzea zen, herriak ulertzen zuen moduan (hizkuntza barne, jakina) benetan elizkizuna ezagut eta balora zezaten. Horrek nahi-taez ekarri zuen latinaren baztertzeara, uste zena baino azkarrago, gainera; Marki-

---

5. Esan beharra dago II. Errepublikak ekarritako erlijio-gabetze horrek eragin murriztagoa izan zuela Euskal Herrian, bereziki landa eremu zabaletan. Hiriguneetan eta gunen industrialetan Elizak pisua galdu zuen nabarmen, bere aurka zihoazen doktrina politikoak (sozialismoa, komunismoa eta anarkismoa) indartu ahala. Landa guneeetan, aldiz, Euzko Alderdi Jeltzalearen eta alderdi eskuindarren indarra nabaria zen, ezkerreko taldeen kaltetan.

6. Vatikanoko II. Kontzilioari buruz gogoratu behar da Markinako karmeldarrek beraiek egin dutela berriki (2003) kontzilioko testu guztien euskarazko itzulpena, honako argitalpen honetan: BARAIAZARRA, Luis (itzultzailea); URKIZA, Julen (zuzendaria). *Vatikanoko II. Kontzilio Ekumenikoa. Konstituzioak. Dekretuak. Adierazpenak eta Dokumentu osagarriak. Euskaraz eta latinez*, 1. arg. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea, 2003; 1500 or, Bilboko gotzaitegiaren eskariz. Euskarazko testua ez ezik, latinezko originala ere badakar. Itzultzailearen hitzetan, lan gogorra izan zen, bereziki aurkibide analitikoak burutzea. Aurkibide honengatik, euskarazko itzulpen hau gaztelaniazkoa edo beste hizkuntza batzuetakoa baino hobea geratu da; *norbaitek kontzilioari buruzko zerbait zehatza bilatu nahi badu, hitzaldiren bat egiteko edo lanen bati idazteko, tresna lagungarria da, bertan gai nagusiez gain paragrafoak ere agertzen dira eta.*

na-Xemeingo karmeldarren elizan, esaterako, 1969ko kroniketan agertzen denez, elizkizun gehienak euskaraz egiten ziren, eta gainerakoak gaztelaniaz. Bertako erlijiosoen bizitza ere nagusiki euskaraz egiten zen ordurako. Luis Baraiazarra karmeldarrak kontatzen duenez,

(...) akta liburua eta kronika liburua izaten dira komentu guztietan. Aktetan berriak labur-labur jasotzen dira. Liburu hau kontzilio aurretik latinez idazten zen baina gero zuzenean euskaraz idaztera pasatu ginen. Kroniken liburua gaztelaniaz idazten zen, bere helburua gertaerak zehaztasun handiagoz kontatzea zen eta. Liburu honetan pixkanaka gaztelania uzten eta euskara sartzten joan ginen.

Hizkuntza aldaketa horri erantzuteko, Elizak lan handia zuen ordutik aurrera Biblia eta bestelako erlijio testuak, abestiak, otoitzak... euskaratzen<sup>7</sup>. Lan horien artean lehentasuna liturgiako testuak euskaratzeari eman zitzaion, elizkizunak euskaraz egiteko beharra nabaritzen zen eta.

Elizan gertatutako aldaketa horiek guztiek ez zuten hurrengo hamarkadetan hain bizi gertatutako gizartearen sekularizazioa moteltzeko balio izan. Hain zuzen, Eliza gizarteko aldaketetara gerturatzen hasi zen garai horretan aldaketa horiek izugarri bizkortu ziren eta, berriz ere, Eliza atzean geratu zen gauza askotan gero eta sekularituago zegoen gizartearen begietara: abade eta erlijiosoen derrigorrezko zelibatua (1967ko *Sacerdotalis Caelibatus* entziklikaren bidez) eta jaiotza kontrol artifizialarekiko gaitzespena (1968ko *Humanae Vitae* entziklikaren bidez) bere horretan mantentzea erabakigarriak izan ziren. Garai hartan hasita, Euskal Herrian eta mendebaldeko Europa ia guztian Elizak gizartean zuen garrantzia galdu egin zuen, elizkizunetara joaten zen kristau kopuruak behera egin zuen eta abadetza eta erlijio bokazioak etengabe murrizten hasi ziren.

### **2.2.3. Karmeldarrak. Markinako komentuaren garrantzia historikoa**

Lan honetan karmeldarrek Markina-Xemeingo kultur eta gizarte giroan izandako eragina aztertzen denez, egokia da, labur izan arren, ordena erlijioso honen nondik norakoak aipatzea. Karmeldarren sustraiak Israelgo Haifa hiriaren ondoren dagoen Karmel izeneko mendian daude; izen honek "Jainkoaren lorategia" esan nahi du. Mendi horretan Elias profetak Israelen Jainko bakarra defendatu zuen Baal izeneko jainko arrotzaren aurrean (K. a. IV. mendea). Profeta horren bideak jarraitu nahirik ermitauak mendi horretan bildu ziren X. mendetik aurrera. XIII. mendearen hasieran, Jerusalemgo patriarka Albertok oinarrizko bizi erregela eman zien, komunitatean bizi izateko jarraitu beharreko arauekin: anaiekin batasunean eta Andre Mariaren babespean, Kristoren zerbitzuan bizi izatea.

---

7. Eliza Katolikoaren eta euskararen arteko harremana aztertzeko (tartean, Kontzilioak izan zuen eragina) Euskaltzaindiaren Jagon Sailak antolatutako jardunaldietako txostenak azter daitezke, "Eliza eta euskara" izenburupean (2006). Bertan azaltzen denez, Elizak ahalegin handia egin zuen liturgiarako, otoitzerako, kanturako... testuak euskaratzen, baina nahiko hankamotz gelditu zen teologia mailako testuak herriari euskaraz aurkezteko orduan. Hutsune hori ikusten dute gaur egun Elizako hainbat kide euskaltzalek; hala ere, argitalpen batzuk egiten dira gaur egun zulo hori betetzeko asmoz (Markina-Xemeingo karmeldarrek egiten duten lanaz gain, aipatzekoa da Deustuko Unibertsitateak kaleratzen duen *Erljio Kulturaren Bilduma* edota Euskal Herriko erlijioso bizitzaren teologia institutuak argitaratzen duen *Hemen* aldizkaria).

1238rako Palestina utzi eta Europako lurraldeetara ihes egin behar izan zuten. Andre Mariak emandako eskapularioa babes izanik, apostolutza-lana eta otoitza izan zituzten bizibide. Euskal Herriko lehen komunitate karmeldarrak ere garai hartan sortu ziren: Baionan 1264an, Zangozan 1277an eta Iruñean 1330ean.

XVI. mendean Avilako Teresak eta Joan Gurutzekoak ordenaren eraberritzea hasi zuten. Teresak lekaime oinutsen ordena sortu zuen 1562an eta Joanek gauza bera egin zuen 1568an fraideekin, Teresak ezarritako bidea jarraituz. Karmeldar Oinutsak Euskal Herrira ere iritsi ziren; tartean, Markina-Xemeingo komentua sortu zuten 1691n. Hala ere, eliza ez zuten 1724ko abuztuaren 15era arte inaurratu.

Markina-Xemeingo karmeldarren komentua garai bakoitzeko gorabehera politiko eta sozialek astindu zuten. Besteak beste, Napoleonen inbasioaren ondoren erlijiosoak komentutik kanporatu zituzten (1809-1813), ustez ordena publikoa nahastu eta herria agintari frantsesen aurka jartzen zutelako. 1839an ere, Juan Álvarez Mendizabal presidenteak aginduta Espainiako eta Hego Euskal Herriko komentu gehienak desamortizatu zirenean ere, karmeldarrek komentu hori hustu behar izan zuten. Hutsik egon zen urteetan, lehen mailako eskola, ospitale eta guardia zibilen destakamendua izan zen.

1868an Markina-Xemeingo komentua izan zen lehenengo berrezarritako karmeldarren komentua Penintsula osoan. 1875ean, gainera, Markina-Xemeingo karmeldarren komentuaren eskariz, Erromak ordura arte bereizita zeuden karmeldar kongregazioak (italiarra eta espainiarra) batzea agindu zuen. Horrek bulzada berria ekarri zion karmeldar ordena osoari, ez Euskal Herrian bakarrik, baita Europan eta mundu zabalean ere.

Markina-Xemeinen, berrezarkuntza garai horretan sortu zen, halaber, Karmeldar Lekaimen komentua (herrian *Beheko Mojak* izenez ezagutzen zirenen) komentua, 1891n, Artibai kalean, Peñaflozidarren etxe izandakoan.

Euskal Herriko karmeldarrek Nafarroako San Joakin izeneko probintzia osatzen dute: Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa eta Errioxako komunitateak sartzen dira bertan. Markina-Xemeingo komentuak 1960ko hamarkadaren bigarren erdira arte "profesoan" ikastetxea zeukan. Profeso hauek boto erlijiosoak (txirotasuna, kastitate eta menpetasuna edo obedientzia) egin ondoren hurrengo urtean karmeldarren espiritualitatea lantzen zuten, Ordenako mistiko handien lanak aztertuz (Avilako Santa Teresarenak eta Gurutzeko Joanenak besteak beste). Urte bakoitzeko ikasle taldea 15-16 gaztetakoa izaten zenez, horrek bizitasuna ematen zion komentuari. Garai hartan komunitateko erlijiosoak 8-9 inguru ziren eta beste 3-4 anaia izaten zituzten<sup>8</sup>. 1960an, esaterako, hauek ziren komunitateko kideak:

---

8. Anaia esaten zaie komunitate erlijiosoetan bizi diren gizonezkoiei, baina abadetzako sakramenturik hartu ez dutenez, meza eta elizkizunak eman ezin dituztenei. Hauek gehienbat etxeko lanez, sukaldeaz, ortuaz... arduratzen dira.

- A. Jenaro (Hilario Larruskain), Priorea
- A. Emiliano (Julian Barandiaran), Prioreordea
- A. Venancio (Venacio Arana)
- A. Celso (Florencio Arruza)
- A. Rafael (Sotero Urionaguena)
- A. Juan Maria (Juan Zubiaur)
- A. Honorio (Gregorio Gerenabarrena)
- A. Donato (Satur Iregi)
- Anaia Juan Jose (Juan Jose Aurrekoetxea)
- Anaia Juan (Juan Sanz)
- Anaia Joakim (Joakin Lasa)
- Anaia Jose Luis (Jose Luis Iraeta)

1967ko uztailean alde egin zuten azken ikasleek. Orduetik aurrera, ikaslerik ez zegoenez, irakaslerik ere ez zen behar eta erlijioso kopuruak beherantz egin zuten apur bat. Hala ere, komunitatean 8-9 erlijioso izaten jarraitu zuten. 1969an hauek ziren kideak:

- A. Jenaro (Hilario Larruskain), Priorea
- A. Migel Maria (Manuel Juaristi), Prioreordea
- A. Jose Domingo (Frantzisko Ugartetxea)
- A. Rafael (Sotero Urionaguena)
- A. Juan (Juan Iturregi)
- A. Honorio (Gregorio Gerenabarrena)
- A. Juan Antonio (Antonio Juaristi)
- A. Luis (Luis Baraiazarra)
- Anaia Ignazio (Frantzisko Larrañaga)
- Anaia Jose Luis Iraeta

Hauetz gain, orduko priorearen aita ere, Joakin Larruskain ('Makarda Zaharra') komunitatera bizitzera joan zen alargundu ondoren.

Prioreei dagokienez, 1957an Jenaro Familia Santuarena (jaiotzaz, Hilario Larruskain) izendatu zuten priore. Honek 1963ra arte iraun zuen eta bere ondoren Migel Maria Jesus Haurrarenak hartu zuen kargua. Honen prioretza garaian jarri ziren abian, geroago ikusiko dugun bezala, Zerutxu ikastola eta Bertsolari eguna, besteak beste. 1969-1972 bitartean Aita Jenaro izan zen priore berriz. 1972-75 bitartean Lino Akesolok hartu zuen kargua eta 1975-78 bitartean Fabian Juaristik. 1978tik 1981era, berriz ere, Aita Jenaro izendatu zuten.



### 2.3. GARAPEN EKONOMIKO BERRIA

Arlo ekonomiko eta sozialean, 1960 hamarkada “desarrollismo” izenez eza gutzen da. 1959an Egonkortasun Plana onartu zuen Espainiako gobernuak. Honen helburu garrantzitsuena Espainiari ekonomia alorrean nazioarteko aliatuen mailara heltzea zen. Horretarako, Gerra Zibilaren amaieratik indarrean zegoen ekonomia autarkikoa ezabatu eta sistema ekonomiko liberalago baterako urratsak eman behar zituen. Besteak beste pezetaren devaluazioa bultzatu zen, dolarraren aldean zuen postura indartsua leunduz, nazioarteko merkatuetan Espainiako produktuak saltzeko aukera handituko zelakoan. Horrez gain, gastu publikoa orekatu behar izan zuen, Nazioarteko Diru Funtsak ezarritako baldintzak betetzeko.

Egonkortasun Plan hori aurrera eramateko Garapen Planak onartu zituen Gobernuak (1964-1967, 1968-1971 eta 1972-1975). Urte horietan langabezia gutxitu egin zen eta, sektoreei dagokienez, lehenengo sektorea (nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza) pisua galtzen joan ziren bigarrenaren (industria) kontura. Hirugarren sektorea (zerbitzuak eta garraioa) industriaren pare hazten joan zen.

Estatu espainiarreko beste lurralde batzuen antzera (Madril eta Bartzelona-ko gune metropolitarrak batez ere), Bizkaia eta Gipuzkoako zenbait eskualdek industrializazio sendoa jasan zuten. Horrek penintsulako beste lurralde batzuetatik hainbat langile etortzea ekarri zuen eta herri batzuk, herri txiki izatetik hiri handi izatera pasatu ziren.

Markina-Xemein immigrazio horretatik kanpo gelditu zen neurri batean, baina euskal gizartean izandako aldaketak eragina eduki zuen. Mugimendu kooperatibistaren hasierako urteak ziren Markina-Xemeinen; Esperantza fabrikak 1944an zabaldu zuen “Escuela de Aprendices” delakoaren lekukoa hartu zuen 1957-58 ikasturtean “Escuela Laboral Parroquial” delakoak. Eskola honi zuzenean lotutako Esperantza fabrikaz gain San Miguel S.A. (Arretxinagan) eta Kruzelegi latoneria (Artibai kalean) ziren herriko lantegi garrantzitsu bakarrak. Bi horietatik aparte zenbait fundizio zeuden baina lanpostu gutxi zegoen bertan.

Markina-Xemein eta inguruko herrietan eraldaketa garrantzitsuena baserriaren krisia izan zen. 1950eko hamarkadara arte Markina-Xemeingo baserrietako familia gehienek bizibide ia erabatekoak nekazaritza eta abeltzaintza ziren. Garai hartara arte baserriarrentzat pentsaezina zen baserria edukita beste lanpostu-aren batean aritzea.

Hala ere, 1950eko hamarkadatik aurrera baserriaren krisia etenik gabeko prozesua izan zen; baserri asko hustu egin ziren: Markina-Xemeinen, 1950ean 15 baserri zeuden hutsik, baina 1985erako 92 ziren eta beste 33 asteburu eta oporraldietako etxe bihurtu ziren (jabeek asteko lanegunak kalean igarotzen zituzten eta baserria aisialdiko gune bihurtu zen), herri-guneetan bizitzeko eta lan egiteko aukerak ugaritu ahala. Kontuan izan behar da, halaber, baserri asko isolatuta zeudela, eta horietako askotan argindarra edo ur korrontea ezarri gabe zegoen oraindik<sup>9</sup>.

---

9. 1950-1985 urteetan Markina-Xemeinen baserriak izandako eraldaketa aztertzeko, ikus BARI-NAGARREMENTERIA, M. D. *El medio rural de Markina-Xemein*, 1. arg. Bilbo, 1989.

Kontutan izan behar da Markina-Xemein eta inguruko eskualdeetako baserriek (Euskal Herri ozeaniko guztian bezala) lursail txikiak zituztela. Maria Dolores Barinagarrementeriak jasotako datuen arabera, 1960ko hamarkadaren hasieran, herriko baserrien %90,95ak 20 hektarea baino gutxiago zituen<sup>10</sup>. Ordura arte baserria egitura buruaskia edo "autosufizientea" zen eta bertan produzitzen zena familiaren biziraupenerako izan ohi zen guztiz. 60. hamarkadatik aurrera, aurrerakuntza teknikoek baserriko lana erraztu egin zuten pixkanaka eta, ondorioz, antzeko produktibitatea mantentzeko langile gutxiago behar ziren. Horregatik, baserria gero eta famili unitate txikiagoen bizileku bihurtu zen; etxeko gazteak hirietan zabalduak enpresetan lan egiten hasi ziren eta erosotasun edo arrazoi ekonomikoak zirela eta landa gunek atzean utzi eta herri handiagoetara joan ziren bizitzera.

Horrek guztiak eta kaletarrek askotan baserritarren aurrean erakusten zuten jarrerak baserritik bizitzea zailago egin zuten. Egun osoko nekazaritza-abeltzaintzaren orde, Lanaldi Erdiko Nekazaritza aukeratu zuten askok; baserrian bizitzen jarraitu arren, industrian, eraikuntzan edo zerbitzuetan lan egiten hasi ziren eta baserriko lanak zenbait produkturen (fruta arbolak edo abere batzuk) ekoizpenera mugatu ziren. Horrela, baserrira "lotzen" zituen tradizioa mantentzen zuten baina, aldi berean, beraien egoera ekonomikoa eta bizi kalitatea kaletarregana gerturatzen joan zen apurka-apurka. Garraiobideen hobekuntza eta autoen zabalakundeak ezinbesteko faktore izan ziren aldaketa hori gertatzeko.

Baserriko aldaketa hauei eskainitako atal hau bukatzeko 1963an sortu zen MIBA (Markina Inguruko Baserritarren Alkartasuna) kooperatiba aipatu behar da. Horren oinarrian Etxebarriko parroko zen Bernardino Barrutiak irekitako aholkularitza zerbitzua zegoen, Arretxinaga etorbideko 6an; zerbitzu horren helburua baserritarren premiei erantzuna ematea zen, beraien intereseko gaiei buruzko hitzaldiak antolatu (Xemeingo parrokiako lokaletan izaten ziren gehienetan), etab.

Julian Olazabalaga Eskola Laboral Parrokialeko zuzendariak Bernardino Barrutiaren ekimen horri bultzada berri bat eman nahi izan zion eta inguruko baserritarrak kooperatiba batean elkartzea proposatu zuen. Horrela sortu zen MIBA kooperatiba, 1963an. Besteak beste pentsu konposatuak, haziak ongariak... eskuratzea errazteko bideak lortzea zen bere egitekoa, baita hazien eta ganaduen aukeraketa, makineria berriztatzea... beti ere lehengaien eta bitartekoen prezio egonkortasuna bilatzen ahalegintzen zen, baserritarrak ahalik eta bitarteko egonkietan prezio egonkorrean eduki zitzaten bermatzeko<sup>11</sup>.

---

10. *Ibidem*, 107 or.

11. MUÑIZ ETXANIZ, Ibai. *Lea Artibai. Eskolatik eskualdera. De la escuela a la comarca*, 1. arg. Markina-Xemein: Lea Artibai ikastetxea, 2008; 71-73 or.

## 2.4. EUSKARA ETA KULTURA MARKINA-XEMEINEN

Arlo kulturalean, Markina-Xemeinek beti eduki izan du euskara garbiaren eta biziaren fama. Besteak beste Markina-Xemeinen bizi izan ziren XIX. mendean bizkaiera literarioan idatzi zuten autore asko edota bertako euskalkia hartu zuten eredu literariotzat. Besteak beste Juan Antonio Mogel, *Peru Abarka* famatuaren idazlea, eta bere loba Juan Jose eta Bizenta, Frai Bartolome Santa Teresarena karmeldarra (bere lanik ezagunena *Euscal Errijetaco olgüeeta eta dantzeen neurizco gatz-ozpinduba* izan zen), Astarloa... aipa genitzake.

Lan honetan aztertuko den gaiarekin lotura berezia duenez, Frai Bartolome Santa Teresarenaren bizitza eta lanari buruz zerbait aipatzea garrantzitsua da. Bartolome Madariaga Garate Etxebarrin jaio zen 1768ko abenduaren 21ean. Aita, Kosme Madariaga Bildasolo, Markinan bizi zen arren, jatorriz Eibartarra zen. Bere ama Maria Ines Garate Arrietaren gurasoak, aldiz, Etxebarrin bizi ziren, jatorriz Elgoibartarrak izan arren.

Bartolomeren gurasoak Xemeinen ezkondu ziren 1766ko otsailaren 2an eta Markinan ezarri zuten lehen bizilekua. Hala ere, seme-alaben bataio agiriekin erakusten dutenez, behin baino gehiagotan aldatu zuten bizilekuz. Hala, antza denez, Maria Inesen gurasoen baserrian (Sagarminaga baserrian, Etxebarria) bizi izan ziren aldi batez, eta beste denboraldi batez Sakoneta baserrian, Iturreta auzoan (gaur egungo Markina-Xemeingo lurretan zegoen baserri hau). Bizitoki-aldaketa horiek argi gelditzen dira seme-alaben bataio agirietan; lehen semea, Joan Bautista, Xemeinen bataiatu zuten 1766an, Bartolome Etxebarrin, 1768an, Ignazia eta Jose Xemeinen (1772 eta 1775, hurrenez hurren), Maria Teresa Etxebarrin, 1778an eta Kristobal Pedro Xemeinen, 1782an. Bartolomez gain, Jose eta Kristobal Pedro ere karmeldar izan ziren. Gainera Joan Bautista anaia nagusienaren hiru seme ere karmeldar sartu ziren: Jose Esteban (Xemeinen bataiatua, 1792an), Joan Andres (Bolibarren bataiatua, 1801ean) eta Antselmo (Bolibarren, 1809) Madariaga Maguregi.

Kontutan izan behar da Bartolomeren haurtzaro eta gaztaro garaietan (XVIII. mendearen amaieran, alegia), Markina, Xemein eta inguruetan Karmengo Amarenganako debozioa handitzen ari zela. 1777an, hain zuzen, Karmengo Amaren Anaidia edo Kofradia<sup>12</sup> sortu zen. Kofradia honen helburua fededunak santifikazio bidean laguntzea zen, batez ere Karmengo Eskapularioaren erabilpena bultzatuz. Talde honetako kide izan zen Bartolomeren aita ere; beraz, argi ikusten da familiatik zetorkiola Karmengo Amarenganako maitasuna. Debozio horrek bultzatuta, 1789ko otsailean sartu zen Korellako (Nafarroa) karmeldarren komen-

---

12. Markina-Xemeingo Karmengo Amaren kofradia Karmengo seglarrek edo Hirugarren Ordeneoak (laikoak) bultzatutako erakundea izan zen. 1777an sortu zen eta bertako kide izan ziren markina-xemeindar ugari, baita inguruko beste herrietako herritar asko ere. Besteak beste, Karmengo Amaren eguna (uztailaren 16a) indartzeko eta zabaltzeko lan egin zuen. Gaur egun kofradia hauek ez daude martxan Markina-Xemeingo komentuan, bereziki Vatikanoko II. Kontzilioaren ostean indarra galtzen joan ziren eta. Beste kofradia ospetsu batzuk San Joserena eta Pragako Jesus Umearena izan ziren, baita, kofradia izan gabe, "Pan de San Antonio" izeneko laguntza elkarteak ere.

tuan. Logroñoñ filosofia (1790-93), Iruñean teologia eskolastikoa eta Eskritura Santua (1793-96) eta Burgosen moralak (1796-99) ikasi ondoren eta Larrean (Zornotza) denboraldi bat igaro ondoren Markinako komentura etorri zen eta 1802an bertako predikari izendatu zuten.

Frai Bartolome Markina-Xemeingo komentura etorri zen garaian, herrian euskal literaturaren loraldia zegoela esan genezake. Bizkaiera literarioaren sortzaile eta bultzatzaile izan zen Joan Antonio Mogel Urkizaren (Eibar, 1745 - Markina-Xemein, 1804) ezaguna izan zela argi dago, azken hau hiltzean honen loba Joan Josek Frai Bartolomerengana jo baitzuen moraleko eskolak hartzeko<sup>13</sup>. Joan Antonio Mogelek 1770tik Xemeingo parrokiaren ardura izan zuen. Euskaraz egindako lanen artean *Peru Abarka* da aipagarriena: bertan, baserriarraren eta kalentarraren euskarak alderatzen ditu, lehenengoaren alde eginez, eta euskararenganako ardura bizia agertzen du. Lan hau idazlea bera hila eta handik urteetara (1881ean) argitaratu zen arren, bere garaian euskararen inguruan zegoen joera arduratsua islatzen du. Euskara herritarra bultzatzeaz gain, euskalkien arteko batasunaren bultzatzaile ere izan zen<sup>14</sup>. Garai hartako abade eta ikastun bizkaitarren helburua Bizkaiko euskararen batasuna lortzea zen, baina Mogelek hortik aurrera jo nahi izan zuen, Euskal Herri mailako euskara bultzatu nahian. Euskalkien arteko ezin ulertuak hitz edo esamolde batzuegatik zirela uste zuen eta horregatik hitz zerrendak osatu zituen, gipuzkeraz esaten ziren hitzek beste bizkaieraz zer esan nahi zuten zehazteko (*Nomenclatura de voces guipuzcoanas* izenez argitaratu zuen lan hau). *Peru Abarka* lanean argi erakutsi zuen zein zen beste euskalkiak ez ulertzeko arrazoia: euskaraz ikasi gabea izatea. Peru Abarka bizkaitarrak, Joanis iparraldekoak eta Txorgori gipuzkoarrak elkar ondo ulertzen dute, baina Maisu Juanek ez ditu besteek esandakoak ulertzen, euskarazko sena falta duelako.

Frai Bartolome berak ere euskararen batasuna azpimarratu zuen. Euskarak, berez, oinarri gramatikal bera du euskalki guztietan eta hauen arteko aldeak bera berezi batzuk edo ahoskera desberdinen ondorioz sortzen dira. Euskalkien arteko harremana nahiko murrizta zelako indartzen ziren beraien arteko aldeak. Frai Bartolomeren lanik ezagunena *Euscal-Errijetaco olgüeeta ta dantzeen neurrizco gatz ozpinduba* izan zen, baina era berean doktrinako beste lan batzuk (*Icasiquizunac*, hiru liburukitan argitaratuak, Hamar Aginduen eta Elizako Sakramentuen azalpena egiten dute), baita sermoiak eta gaztelaniaz idatzitako beste lan batzuk ere: *Plauto Bascongado* lanean, 1828an argitaratua, Joan Jose Mogeli egindako gutunak jasotzen dira. Hor erakusten dute bi idazleok euskararenganako ardura berezia.

---

13. Frai Bartolomeri buruzko informazio gehiago haren idazlanen edizio kritikoan aurki daiteke: URKIZA, Julen; BARAIAZARRA, Luis. *Frai Bartolome Santa Teresa: Idazlan guztiak*, 1. arg., Bilbo: Karmel Sorta, 2000; 1.558. or.

14. Mogelek euskararen batasunaren alde zuen jarrera aztertzeko, ikus: ZUAZO, Koldo. *Euskara batua: ezina ekinez egina*, 1. arg. Donostia: Elkar, 2005, 52-60 or.

Karmeldarren komentuari dagokionez, Frai Bartolomek ahalegin handia egin zuen kristau doktrina euskaraz emateko. Karmeldarren predikaria zenez, igande arratsaldetako otoitzaldietan eta jai egun garrantzitsuetan sermoia emateko arduratu zuen. Kargu hori izan zuen 1802tik 1817ra, priore (komentuko arduradun nagusi) izendatu zuten arte, alegia. Tartean ezin da aipatu gabe utzi 1809-13 bitartean, Napoleonen aldeko tropak Markinan sartu zirenean Karmengo komentua bereganatu eta erlijioso guztiak kanpora bota zituztela. Elizako irudi guztiak herriko parrokiari gorde ziren eta fraideek ahalegin handiz liburutegiko zenbait lan salbatzea lortu zuten. Aldi hartan frai Bartolome Etxebarriko parrokiari aritu zen lanean, baina sermoiak eta aitortzak egiteko ahalmenik gabe. Egoera horrek 1813ko ekainaren 26ra arte iraun zuen. Frantsesek alde egitean komentua egoera txarrean zegoen; erlijiosoak urte bereko abuztuan itzuli ziren komentura; kroniketan azaltzen denez, Markina-Xemeingo eta inguruko beste herrietako hainbat herritar etorri ziren komentura, berau garbitu eta atontzeko lanetan fraideei laguntzera.

Gogoan izan behar da garai hartan (XVIII. mende bukaera eta XIX. mendea) loraldi bat bizi zutela Markinak eta Xemeinek. Herrian berrikuntza nabarmenak egin ziren, horien artean Goiko Portaleko iturria (Karmengo iturria) eraiki zen 1787an. Iturrian bertan jarritako bertsoek (Juan Antonio Mogelen hiru kopia dira) gogorarazten dutenez, iturri hori “neque ta castubac” arintzeko asmoz eraiki zen, ilustrazioaren eraginpean; izan ere, ordura arte herri erdian bizi ziren familiek auzoetan sakabanatutako beste iturri batzuetara jo behar zuten ur bila.

XIX. mende erdialdean (1851n) herriarentzat oihartzun handia izan zuen beste eraikuntza garrantzitsu bat burutu zen: Xemeingo hilerria, Mariano Jose Lascurainek diseinatutakoa. Hau ere herriko garbitasun eta higieneari bultzatzeko egin zen; izan ere, aurretik hildakoak elizetan hilobiratzen ziren, baina ilustrazioak hilerriak elizetatik aparte egitea proposatu zuen, beraientzat propio jarritako leku batean. Handik gutxira (1869an) Urberuagako bainuetxea zabaldu zen; bertan XIX. mendeko eta XX. mende hasierako hainbat pertsonaia ospetsu izan ziren uren tratamenduak hartzen. Honek Markinari Europa mailako oihartzuna eman zion. Nazioarte mailako jende ospetsua izan zen bertan, arrazoi askogatik: euskaldunen kultura eta ohiturak aztertzeko, inguru honetako bitxikeriak ikusteko (Arretxinagako Mikel Goiaingeruaren baseliza eta bertako hiru harrizarrak, adibidez) edo bertan hitz egiten zen euskara Bizkaiko garbiena eta Euskal Herriko hoberenetakoa zela uste zutelako. Tartean zegoen, besteak beste, Wilhelm von Humboldt hizkuntzalari alemaniar ospetsua (Potsdam, Alemania, 1767-1858). Honek bere *Los Vascos. Apuntaciones sobre un viaje por el País Vasco en primavera del año 1801* liburuan garai hartako Markina eta Xemeinen berri ematen du: nekazaritzatik bizi ziren herri hauetan jendearen bizi kalitatea uste zitekeena baino hobea dela dio. Pertsonak pertsona direnez tratatzen omen ziren bertan, ez aberastasunen arabera: harriturik ikusten omen zuen “con qué completa igualdad se tratan, [...] la persona de distinción y la de constitución humilde, el pobre y el rico”. Era berean, bertako aberatsek (Jose Maria Murgaren kasua aipatzen du) herritarren osasuna hobetzeko hartutako neurrien berri ematen du. Garai hartan Murga Bizkaiko ahaldun nagusia zen eta lan gogorra egin zuen egin zuen orduan gaixotasun kutsakor larria zen nafarriaren (“viruela”) kontrako txertoak herritar guztiengana hel zitezen.

Juan Ernesto Delmas<sup>15</sup> (Bilbo, 1820 - Madril, 1892) kazetari eta idazlea ere Markina eta Xemeinen izan zen 1864an. XIX. mendeko bigarren zatian Bilboko eta Bizkaiko gizartean gertatu ziren gorabehera politiko eta sozialen berri ematen digu bere lanetan. Kontuan izan behar da Gerra Karlistak bizi izan zituela (1833-1840, 1846-49 eta 1872-1876). Delmasek berak, joera liberal moderatua izan zuen, ordenua eta aurrerapena bilatzen zituen, eskubide indibidualen (liberalen) aldekoa zen, erakunde ordezkakorrak defendatzen zituen, baina beti ere bere jaiotzatik ezagutu zituen tradizio monarkiko eta erlijiosoak zalantzan jarri gabe.

Markinara eta Xemeinera egindako ibilaldi hori *Guía Histórico-Descriptiva del Viajero en el señorío de Vizcaya en 1864* liburuan deskribatu zuen. Humboldtkek bezala, Delmasek ere Markina eta Xemeinen garai hartarako bizi kalitate ona zegoela zehazten du. Zehatz-mehatz azaltzen du Markinak eta Xemeinek zituzten zerbitzu publikoak: hiltegia, udaletxea, eskola, arraindegia, ospitalea, botika denda... era berean, Markina eta inguruetakoko monumentuekin liluratuta gelditu zela adierazten du, besteak beste, Xemeingo eliza, Karmengo komentua, Mertzedeoko komentua, Karmengo iturria...

Markina eta Xemein herrien deskribapen fisikoa egiteaz gain, herri horietan egiten zen euskara inguruotako onena zela zioen. Markinako euskara dioenean, inguru zabalekoa hartu behar da, hau da, Artibai ibaiaren ibilbide osokoa, ez Markina eta Xemeingo bakarrik; zentzu horretan Markinako euskara aipatzean, gaur egun Lea-Artibai izenez ezagutzen den eskualdekoa hartzen da, gutxi gorabehera. Delmasen beraren hitzetan “el vascuence que en ella se habla, así como en todo el país bañado por la ría de su nombre, está reputado como el más puro y elegante de las Provincias Vascongadas”.

Markina inguruko euskarak zuen fama on hori aintzat hartuta ospatu ziren Markinan 1883ko Lore Jokoak, Bizkaian lehenengoz; Antoine d’Abbadie jaunaren eskariari jarraituz Bizente Aranek Markina aukeratu zuen “aintzat arturic bere egoguitasunac gai onetaraco”. Jai hauek egiteko Udalak prestutasun handia erakutsi zuen eta, besteak beste, frontoi berria egin zen, xisteraz jokatu ahal izateko. Izan ere, orduko pilotatokia eskuz jokatzeke egokia izan arren, palaz edo xisteraz jokatzeke laburregia zen. Behin frontoi berria eginda, 1883ko irailaren 16tik 18ra. Jai hauetan era guztietako ekitaldiak egin ziren, hasi abere ferietatik eta pilota partiduetara. Hala ere, ekitaldi esanguratsuenak literaturako lehiaketak izan ziren, bertsoak, saioak, olerkiak eta marrazkiak saritu ziren eta<sup>16</sup>. Jaialdi hark herriko Udalaren eta Hori dela eta, Markina-Xemeinen beti egon izan da nolabaiteko euskal harrotasuna, Bizkaiko euskararik onena egiten zela uste zen eta.

---

15. Juan Ernesto izena erabili arren, bere bataioko agirian Juan Bautista Eustaquio izenez agertzen da, Santiagoko parrokiako (g. e. katedraleko) bataioen artxiboko 17. kutxan (Añamendi entziklopediatik hartutako datua).

16. Lore Joko hauei buruzko argibide gehiago jakiteko, ikus BILBAO ARETXABALETA, Migel A. *Las fiestas Euskaras de Markina, año 1883-Markina'ko Euskal Jaiak, 1883 urtea*, 1. arg. Markina-Xemein, 1982; 206. or.

Hala ere, ikerketa honetan ikus daiteke, 1950eko hamarkadaren amaiera eta 60ko hasieraz hitz eginez gero, beste era bateko giroa zegoela: euskara ia galtzeko arriskuan zegoen Markina-Xemeinen. “Markinan ez zen euskaraz egiten. Eskolan, kalean... dena erdaraz egiten genuen. Bakarrik etxeetan, familia euskaldunetan mantentzen zutenek egiten zuten euskaraz. Edo bestela baserritarrek” gogoratzen du Nekane Aginagak. Egia esan, joera hori aurretik ere bazetorren eta gaur egun ere irauten du, bereziki kalean. Gainera, giroak eraginda, kale-tar askok beraien buruak baserritarrak baino gehiagotzat zituzten. Luis Baraiazarraren berbetan:

Sasoi hartan euskara berba egiteko bai, baina kulturarako eta ikasketetarako ez zuela balio pentsatzen zuen jende gehienak. Orain bai, bideak eginda daude, eta euskara goiko mailetara jaso da, baina orduan arrisku bat zen.

Eskoletan mentalitate hori zen nagusi, “baserritarrak euskaraz hitz egiten dute besterik ez dakitelako, ezjakinak direlako...” Jende horren begietara, jakintsu agertzeko era bakarra gaztelaniaz ondo berba egiten jakitea zen, eta euskara kuriositate bezala edo ume txikiei edo ezjakinei berba egiteko hizkuntzatzat jotzen zuten. Maila kultural jakin bat zutenentzat ezinbestekoa zen erdaraz ondo mintzatzen jakitea, baina euskarari ez zitzaion inolako garrantzirik ematen.

Xabier Amuriza orduan (1965) Gizaburuagan zegoen abade. Bere parrokiari ezezik, Lea Artibai eskualdeko beste parrokia batzuetan eta erlijio taldeetan ere aritzen zen eta, horrez gain, Eskola Laboralean ere 1965-66 ikasturtean hasita, erlijio edo etika bezalako ikasgaiak ematen zituen. Markina-Xemeinen, sasoi hartan, inguruko beste herrietan baino euskara gutxiago egiten zela gogoratzen du. Horretan eragina zuen, duda barik, frankismoak euskararekiko zuen jarrerak, baina beste arrazoi batzuk ere bazeuden tartean:

[...] etxeetan eta kalean euskaraz egitea ez zegoen debekatuta [...] kontrakoa esaten duten askok aitzakiatzat hartu zuten hori. Debequak baino garrantzitsuagoak izan ziren arrazoi psikologikoak, baita jende askoren konplejuak ere.

Gainera, Markina-Xemeinen urte haietan pilotaren inguruan izandako gorakada nabarmenak ere euskararen moteltze horretan eragina izan zuten:

Pilotari asko denboraldi baterako etortzen ziren eta bai beraiek, baita inguruko jendeak ere erdaraz hitz egiteko joera handia zuen. [...] Jende askok, euskaraz egitea “bajeza” zela uste zuen.

Fenomeno berezi hori, gainera, Markina-Xemeinen gertatu zen bakarrik; inguruko beste herri guztietan giro euskalduna zegoen, erabat. Eskola Laboraleko giroa ere horrela gogoratzen du; “nire ikasle guztiak euskaldunak ziren, nirekin denek euskaraz egiten zuten. Baina gero kalera irten eta zirudien ez zen euskaraz egin behar, ez ezin zela egin”.

Nahiz eta herritar gehienek horrelako ikuspegia eduki (hau da, euskara galbidean zegoela uste izan), bazeuden bestetara pentsatzen zutenak ere: Aita Migel Maria (jaiotzez, Manuel Juaristi) Markina-Xemeingo Karmengo komentuko

prioreak 1964an idatzitako dokumentu batean aipatzen denez, euskara askok kulturalki atzeratutako hizkuntzat jo izan dute, irakaskuntzan bereziki garape-nerako traba bezala. Hau iritzi arrunta izan da, jakintsu askoren iritziaren guztiz desberdina. Berak ezagutu omen zuen euskara ikasi zuen alemaniar bat (27 hizkuntza hitz egiteko gai omen zena) eta pozgarria iruditzen zitzaion euskarari sekulako loreak botatzen entzutea “euskaraz astiro-astiro baina zuzen-zuzen” hitz eginez. Jakintsu hauetako askok euskara aztertzeo gogoia erakutsi zuten, euskara hain hizkuntza berezia zenez (gaztelaniarekin eta frantsesarekin konparatuz behintzat) jakinmin eta kuriositate handiz ikusten zuten. Hizkuntza berezia zela eta berau bultzatzeko beharra ikusten zuten. Aita Migel Mariren hitzetan “pudieramos decir que el vascuence se ha puesto de moda entre la gente culta”.

Hala ere, Markina-Xemeinen (bereziki kaleartean) euskara galtzen joateak kezka sortzen zuen bertako euskaltzaleengan.

Pixkanaka hasi nintzen neure buruari galdetzen ea zer pasatzen zen gure euskararekin. Argi neukan geure hizkuntza zela eta, gainera, zelako ederra zen... Aberastan hori ikusten nuen “Milla euskal olerki eder” irakurtzean, adibidez,

esaten du Nekane Aginagak. *Milla euskal olerki eder* liburu hori Aita Santi Onaindia (Amoroto, 1909- 1997) karmeldar ezagunak argitaratu zuen.



**3. Zerutxu Ikastola.  
Belaunaldi gazteak  
euskalduntzeko aitzindari**



### 3.1. HEZKUNTZA SISTEMA FRANKISMO GARAIAN

1939ko apirilaren 1ean Espainiako Gerra Zibila irabazi zutenen ezaugarrietako bat estatuko zenbait lurraldetan (Hego Euskal Herrian eta Katalunian bereziki) Errepublikara garaian hasitako ibilbide autonomisten aurkako jarrera izan zen (“separatismo” izena jarri zioten). Esan daiteke abertzaletasun periferiko hauen kontrako jarrera ezkerreko alderdi eta sindikatuen kontrako jarrera baino handiagoa zela beraiengan. Zentzu horretan ezaguna da Jose Calvo Sotelo buruzagi falangista espainiarraren esaldia: “Entre una España roja y una España rota, prefiero la primera, que sería una fase pasajera, mientras que la segunda seguiría rota a perpetuidad”<sup>17</sup>. Calvo Sotelo berak Gerran parte hartu ez zuen arren (1936ko uztailaren 13an hil zuten, Gerra Zibila hasi baino 4-5 egun lehenago) zalantza barik bere pentsamendua uda hartan matxinatutakoen inspirazio iturri izan zen.

Eraso horiek errebindikazio politikoen aurka ez ezik, euskararen eta euskal kulturaren adierazpen ororen aurka ere zuzendu zituzten eta horretarako hezkuntza sistemaz baliatu ziren besteak beste. Errepublikara garaian irakasle izandako asko (errejimen berriari leialtasunik adierazi ez ziotenak) lanetik kanporatu eta erbesteratu egin zituzten, “Comisiones Depuradoras de Instrucción Pública” izeneko erakunde baten bidez. Euskal Herrian erakunde honek “inkisizio lan” handia egin zuen; kontuan izan behar da hemengo ikastetxe askotan Gerra Zibilaren aurretik irakasle zeuden emakume asko EAB (Emakume Abertzale Batza) elkarteko kide zirela edo ideologikoki elkarte horrengandik gertu zeudela.

Hezkuntzako lanpostu horiek betetzeko Gerra Zibilean Francoren alde borrokatu zutenak edo errepublikarren aldetik errepresioa jasan zutenak jarri zituzten, baita gerran hildako eskuindarren seme-alaba edo alargunak ere. Helburua ez zen irakasle prestatuak jartzea, haurrak frankismoaren ideologia nazional-katolikoan heziko zituzten langileak izatea baizik. Zentzu horretan, urte gutxitan Euskal Herriko irakasle gehienak kanpotarrak, erdaldunak eta pentsaera frankista-koak izan ziren, euskararen eta euskal kulturaren aurkakoak, hain zuzen. Hezkuntzaren zentralizazio horrek ondokoa bilatzen zuen:

La trayectoria del nuevo Estado es en el sentido de absorber total, absolutamente, todas las escuelas municipales, en especial las de las provincias vascongadas y catalanas (...) por la sencilla razón (...) que fue precisamente en las escuelas de estas regiones donde más daño se ha hecho a la unidad de la Patria<sup>18</sup>.

---

17. Hitzaldi hau Donostiako Urumea pilotalekuan eman zuen. Esaldia bere horretan ondorengo iturri honetatik jasota dago: TORREALDAI, J. M.(1982). *Euskararen zapalkuntza (1936-1939)*. Jakin, 24; 17 or.

18. R. Toledo Lehen Hezkuntzako Zuzendari Orokorrek Gorte frankistetan 1945ean egindako hitzaldi bateko pasartea. Berau jasota dago ondoko artikuluan: TORREALDAI, J. M. (1982). *Euskararen zapalkuntza (1936-1939)*. Jakin. 24; 46 or.

Politizazioaz gain, frankismoak Errepublika garaian laiko bihurtutako hezkuntza berriro ere konfesional eta katoliko bihurtu zuen. Erlijioa hezkuntza sistemen legitimazio iturri bihurtu zen horrela. Bai eskola publikoek zein pribatuek erlijio katolikoko klaseak eman behar zituzten eta, klaseez gain, erlijioari lotutako hainbat zeregin gehitzen zitzaizkion: otoitzak, dotrina, elizkizun bereziak... Erlijio katolikoa bere erara interpretatu zuen frankismoak, kristautasunaren eta nazional-katolizismoaren artean paralelismoak jarritz. Interpretazio horren arabera, kristau katoliko izatea eta espainiar nazionalista izatea txanpon beraren aurpegi bi ziren.

1945eko Lehen Hezkuntzako Legeak gorago aipatutako oinarriak sendotu zituen. Frankismoaren transmisioa hezkuntzaren helburu garrantzitsuena bihurtu zen:

Es misión de la educación primaria, mediante una disciplina rigurosa, conseguir un espíritu nacional fuerte y unido e instalar en el alma de las futuras generaciones la alegría y el orgullo de la Patria, de acuerdo con las normas del Movimiento y de sus organismos (6. art.).

Hau da, umeek eskolan Aberria (Espainia) pozez eta harrotasunez zerbitzatzeko ikasi behar zuten, gogo sendoz eta diziplina gogorrez. Horretarako, besteak beste, balio izan zuen "Formación del Espíritu Nacional" izeneko ikasgaiak. Horrez gain, eskola guztiak parafernalia frankistaz horniturik zeuden: Espainiako bandera, Francoren eta Jose Antonio Primo de Riveraren argazkiak... Argazki hauek beti gurutzearen ondoan jartzen ziren, lehenago esan den bezala erlijio katolikoa eta pentsaera frankista bateratzeko ahaleginetan.

Zentzu horretan, hezkuntza ereduak hiru oinarri hauek hartu zituen: lehen-dabizi, dogmatismoa, hau da, irakasleak esaten zuena eztabaida ezina zen, ez zegoen galderarik edo zalantzarik izateko aukerarik. Irakasleak boterea ordetzkatzen zuen eta ikasleek otzan-otzan esana egin behar zuten. Bigarrenik, ikasketen prozesu guztia memorizazio hutsean oinarritzen zen. Testu liburuak buruz ikastea zen azterketak gainditzeko bide bakarra, nahiz eta ume askok liburuan jartzen zuena ulertu ez. Hirugarrenik, ikasketen prozesua guztiz indibidualista zen; ikasgelan ume asko elkartzeko ziren arren, ekintza guztiak banakako lanean egiten ziren, umeen talde izaerako zantzu guztiak desagerrarazteko.

### **3.1.1. Ikastolen sorrera**

Kultura eta irakaskuntza alorrean ikastolen sorrera aipatu behar da, zalan-tzarik gabe. Hainbat gurasok eta beste euskaltzale askok sistema frankistak ezarritako hezkuntzaren ordez (gaztelania hutsezkoa eta Euskal Herriaren oinarritzko bereizgarri kultural eta sozial minimoak ere aintzat hartzen ez zituena) euskal hizkuntzan, kulturean eta hurbileko ingurunean oinarritutako heziketa berezia bul-tzatu nahi izan zuten.

Ikastola hauek XIX. mende amaieran eta XX. mende hasieran izan zituzten lehen sustraiak. Zehatz esateko, Resurrección María de Azkuek, (Lekeitio, 1864 - Bilbo, 1951) abade, euskaltzale eta Euskaltzaindiako lehen lehendakari izan

zenak, 1896an sortu zuen “Ikastechea” izeneko eskola Bilbon (*Jardines de Albia* kalean); ikastetxe horretan goizez umeei euskal eskola ematen zitzairen eta arratsaldean “Euskaldun Biltokia” elkarteko kideak batu eta, besteak beste antzerkia lantzen zuten euskaraz. Lan horretan erlijioso batzuek jarraitu zuten, Azkuek, lan ugari zuela eta, ikastetxe hori utzi behar izan zuenean. Lehen esperientzia horren ondoren 1908an eta 1914an ere beste batzuk sortu ziren Bilbon bertan.

II. Errepublikaren garaian, 1932an, Eusko Ikastola Batza elkarteak eta EAJ alderdiko Emakume Abertzale Batzak euskarazko ikastolak Bilbotik Bizkaia guztira zabaltzeko nahia adierazi zuten. Hala ere, hiri garrantzitsuenetara mugatu ziren (Durango, Zornotza, Barakaldo, Algorta, Elorrio, Galdakao, Getxo, Portugalete, Sondika...). Lehen eskola hauek jarritako ereduak 1950-60 hamarkadetatik aurrera sortu zirenen aurrekari zuzena izan zen; nahiz eta Gerra Zibilaren (1936-39) ostean bertako andereñoak, arduradun eta ume asko erbestera bidali zituzten, 1940 hamarkadan zenbaitzuk Euskal Herrira itzultzeko aukera izan zuten eta horiek izan ziren frankismo garaiko ikastolen lehen hazia.

Ikastola hauen historiari egindako sarrera honetan ezin da beraien bultzatzaile garrantzitsuenak izan zen Elbira Zipitria Irastortza<sup>19</sup> (Zumaia, 1906- Donostia, 1982) aipatu gabe utzi. Hau 1920ko hamarkadaren amaieran hasi zen Donostian euskarazko eskolak ematen, baina EAJko eta Emakume Abertzale Batzako kide zenez, gerraren ondoren erbestera eratu egin zuten eta Saran (Lapurdi) bizi izan zen; bertan ere, euskarazko ikasketak ematen jarraitu zuen. Hala ere, 1943rako berriz ere Donostian zegoen eta klandestinitatean euskarazko klaseak ematen aritu zen zenbait urtez eta 1950eko hamarkada hasieran Hego Euskal Herriko lehen ikastola abiarazi zuen Fermin Calbeton kaleko 26 zenbakian (bere etxebizitzan alegia). Umeei eskolak emateaz gain, beste ikastoletan hasteko ziren andereñoak trebatzen ere lan egin zuen. Ikastolen eredu berritzailea abiarazi zuen, praktikoa: umeei ikasgaiak hasieratik buruz ikasi beharrean, landu egiten zuten, ulertu... Adibidez, matematika ikasterakoan eragiketak (batuketak, biderketak...) buruz ikasi aurretik, zotzekin, kanikekin edota bestelakoekin probak eginda. Guztia, beti ere, euskal kultura eta ingurua ezagutzeko bultzatzen zuen.

## **3.2. EUSKARA BERRESKURATZEKO LEHEN URRATSAK MARKINA-XEMEINEN**

### **3.2.1. Gaueko ikastolaren hasiera**

Mendigoizaleen taldea izan zen, sasoi hartan, euskararekiko grina hori zutenen bilgune. “Taldea horretan euskaraz ondo zekien jendea erraztasunik ez zuten irakasten ahalegintzen zen” diosku Garbiñe Arratek. “Geure buruak apur bat behartu egiten genituen euskaraz berba egitera. Nahiz eta erraztasun gehiago erdaraz eduki, ahalegindu egiten ginen”. Taldea berezia zen beste koadrilaren artean, bereziki domeka arratsaldeetan eta kalera irteten elkarrekin hasi zirenean.

---

19. Elbira Zipitriari buruzko informazio gehiago honako liburuxka honetan: MITXELENA, Mari K. “Elbira Zipitria (1906-1982)”. *Bidegileak bilduma*. Gasteiz: Eusko Jauriaritza, 2005.

Gure taldean neska eta mutil berez-berez ibiltzen ginen elkarrekin. Jende askok inbidia ziguten horregatik, batez ere beraiek mutilekin bakarrik dantzarako ibiltzen ziren eta. Guk ostera harreman naturala geneukan taldeko mutilekin [...]

dio Nekane Aginagak. “Askok usteko zuten gure taldea zirkulu itxi bat zela edo, baina ez, guk nahi zuten guztiak onartzen genituen”.

Talde horretako jendea izan zen Karmengo gaueko eskolaren sortzaile. Komentuan batzen ziren euskara lantzeko, hasieran Antonio Kareaga izan zen bertako arduradun eta geroago bere anaia Anjel ere hasi zen, Luis Baraiazarrak dioenez, “Kaperaren goiko gelatxoan elkartzen ziren, geroago Aita Tomas karmeldarrak (Zugaza-Artaza) sortutako Sugar taldeko gazteak elkartzen ziren lekuan”. Gazteak ziren horra joaten ziren gehienak, goian aipatutakoak batez ere. Taldetxo hori izan zen gerotxoago (1964ean) sortu zen Zerutxu ikastolaren lehen hazia. Talde horrek, euskara lantzeaz gain, arlo kulturala ere lantzen zuen (Euskal historia, ohiturak...).

### 3.2.2. Aita Migel Mariren eta Justo Arrietaren (alkatea) ahalegina

1963an Karmengo komentuko priore izendatu zuten Aita Migel Maria Juaristi (jaiotzaz, Manuel Juaristi, Azkoitia, 1923). Azkoitiarra jaiotzez, euskaltzalea zen erabat. Gainera, jendearekin tratu ona izateko erraztasuna zeukan, “persona diplomatikoa zen eta ederto egiten zuen berba. Azkenean denak konbentzitzen zituen”. Bai euskaraz, bai erdaraz ondo egiten zuen. Lauren Aretxabaletak gogoratzen duenez, behin

Aita Migel Maria Berriatura joan zen meza ematera, euskaraz. Mezetatik irtenda, baserriar denak esaten zuten euskaraz haren pare gutxik egiten zutela. Batek esan



Aita Migel Maria Juaristi, 1964.

ei zuen: 'Bai euskaraz ondo baina erdaraz jakin be ez jok egingo horrek. Zelan nahas-tauko jok erdera euskeragaz, erderaz ez badaki?'. Erdarazko ezer ez zuela sartzen erdaraz ez zekielako, hori pentsatu zuen hark. Baina A. Migel Mariak ikasketak erdaraz eginda zituen eta beste danok baino hobeto zekien.

Garai hartan Markina-Xemeingo alkate zen Justo Arrietarekin ere harreman ona zeukan. Sarritan egin zuten berba elkarrekin, besteak beste euskarak garai hartan Markina-Xemeinen zuen egoera larriaren gainean. Gorago aipatutako dokumentuan Aita Migel Mariak zioen euskara Markina-Xemeinen gero eta galduago zegoela, bereziki umeen eta gazteen artean. Zer edo zer egin ezean, Markina-Xemeinek utzi egingo zion bizkaiera garbienaren babesleku izateari. Udalean, pixkanaka, jende abertzalea sartzen joan zen, orduan zegoen sistemarekin (familia gurasoak sartzen ziren besteak beste)<sup>20</sup>. Hor zeuden Lauren Aretxabaleta eta Jose Antonio Ansola. Felipe Amutxastegiren arabera

[...] nahiz eta Udala frankisten kontrolpean egon, kultura gaietan adibidez zer edo zer lortzeko balio izan zigun. Baina hasieran bi-hiru izango ziren ikastolaren aldekoak bakarrik, beste guztiak erabat kontrakoak ziren.

Esan dugun bezala, Justo Arrietak harreman estua zuen Aita Migel Mariarekin. Justo Arrieta Martinez 1960ko urriaren 24an izendatu zuten Markina-Xemeingo alkate. Biek batera jo zuten Mertzedeako ikastetxera, bertako ardura-dunei euskarazko klaseak jartzeko eskatzera.

Orduan Mertzedean barnetegia zegoen, neskontzat, batxillerra egiteko... komentuan eta barnetegian guztia erdaraz egiten zen, gaur egungoarekin ez dauka ezelako zerikusirik. Mertzedeako ikastetxea erdaldunen gunen indartsua zen Markinan

gogoratzen du Luis Baraiazarrak. Dirudienez, Mertzedean eztabaidak izan ziren, erantzuna pare bat hilabetez luzatu zen eta. Hala ere, bertako zuzendariak ezeko eman zuen. Egoera horren aurrean, Aita Migel Mariak euskarazko zerbait antolatu behar zela esaten zion Arrietari. Aita Migel Mariak idatzitako memoria batean agertzen denez, alkateak umeentzako ipuin lehiaketa bat antolatu zuen euskaraz, dirudienez Ondarroako alkatearekin elkarlanean, 1962-63 urte inguruan. Nahiz eta behin baino gehiagotan inguruko egunkarietan agertu bertan behera gelditu zen, inguruko gaztetxoetatik batek ere ez zuen beharrezko gramatika ezagutzarik ipuinik euskaraz idazteko.

---

20. Abertzaleak sartzen joan zirela esan da, ez alderdi abertzaleak legezko zirelako (hauek ez ziren legeztatu 1970eko hamarkadaren bigarren erdira arte gutxienez, behin Franko hil ondoren), orduko hauteskunde sistemak nolabaiteko legitimazioa bilatu nahi zuelako baino. Frankismo garaiko erakundeak "demokrazia organikoa" zeritzan sistema baten bidez hautatzen ziren. Sistema honen arabera, demokrazia mota horren oinarria ez ziren ordezkariak politikoa bermatzen zuten alderdi politikoak, Francoren eta Falange espainiarraren arabera gizartearen oinarriko "zelulak" zirenenak bai-zik: familia, herria eta sindikatua (bertikala eta bakarra). Familiaren atalean familia buruek eman zezaketen botoa, hau da, seme-alabak zituzten gizon ezkonduak. Sistema honen bidez frankismoaren oposizioko sektoreak pixkanaka erakundeetan sartzen joan ziren. Hala ere, izenak berak dioten bezala, udalaren herena aukeratzeko zen soilik sistema horren bidez; beste zinegotzi guztiak "goitik" ezarzen ziren, baita alkatea ere. Azken hau Gobernadore Zibilak izendatzen zuen zuzenean.





Aita Zezilio Pragako Ume Jesusen kofradiako hurrekin, 1936 urtea (gutxi gorabehera).

Udalak eta Karmengo prioreak omenaldirik onena ikastolari bere izena jartzeari zela pentsatu zuten. Horregatik, ikastolaren izen ofiziala “Zerutxu-Pequeño Cielo: Hogar infantil Padre Cecilio” izan zen. Aita Migel Marik honela definitu zuen: “Un pequeño cielo para angelitos menores de 7 años en el que la enseñanza escolar completa se dará en euskera”. Hala ere, 3-7 urte bitarteko umeentzatenez eta hortik irtendakoan beste eskolaren batera jo behar izango zuten, azkenengo mailakoek egunero erdarazko klase bat izan behar zuten, beste ikastetxeetarako jauzia hain gogorra izan ez zedin.

Aita Migel Maria euskal giroan mugitzen zen andereñoen baten bila zebilen ikastolarako. “Garai hartan, orduko giroarekin, barruan zerbait sentitzen zuen bat izan behar zen, euskaltzalea izan behar zen, bestela ez zegoen zer eginik” gogoratzen du Garbiñe Arratek. Nekane Aginagak dioenez,

[...] niregana etorri zen, nire familiarekin harreman handia zuen eta. Badakit lehenengo Pakita Ugarteri esan ziola, baina ordurako nagusia zela eta ez zuen gogorik edukiko horrelako zerbaitetan sartzeko. Orduan gazteagoren bat bilatzen hasi zen eta niregana etorri zen eta baietz erantzun nion.

Ikastola hasieran Arretxinagan jartzea pentsatu zen, hango eskolan<sup>24</sup> lokalen batzuk libre zeuden eta. Hala ere, laster konturatu ziren leku hori urrun zegoela

---

moilari karmeldar ospetsuenetakoak gonbidatu ziren, baita Reig kardinala ere, Espainiako apezpikuen burua. Iturriaz gainera, Karmengo elizako Ume Jesusen aldea ere bere ekimenez egin zuen Roman Goikoetxea artistak (Iturriko irudia egin zuenak, hain zuzen).

24. Arretxinagako eskolan, hau da Xemeingo udaletxe zaharrean.



herri erdian edo herriko beste auzo batzuetan bizi ziren ume txikiak (3-7 urtekoak) egunero haraino bidaltzeko. Horregatik ideia hori baztertu egin zen. Udalak pleno aretoa proposatu zuen, besterik ezean, ikastola jartzeko. Baina hau ere ez zen egoki ikusi, pleno aretoak eta haurtzaindegí batek material eta apaingarri hain desberdinak behar zituztela kontuan izanik. Ezin zen pleno aretoa umeen marrazkiekin beteta eduki, adibidez. Udalak, horren aurrean, kontzejupeko loka-la uztea erabaki zuen (Zearkaleko arkupeetan, garai hartan udaletxea zen erai-kinaren azpiko lokaletan hain zuzen. Geroago lokal horretan herriko udaltzainak egon ziren).

Lokal hori ez zegoen egoera onean, berriztatu egin behar zen. Horretarako udalak 80.000 pezetako aurrekontua onartu zuen. Lan horiek zenbait hilabete iraungo zutela ikusita, 1964-65 ikasturtea Karmengo komentuan hastea erabaki zen, azaroan.

Hasieran 15 bat ume izango ziren. Lehenengo eguna zoratzekoa izan zen. Ume asko negarrez, beste batzuk elizatik zehar eskapaka... Eskerrak Aita Migel Mari neugaz zegoen laguntzen. Etxera joan eta amari esan nion: 'Ama, mundue jausi jata ganera!' Baina berak esan zidan jarraitzeko, animoak eman zizkidan. Horrek indarra eman zidan. Gero bigarren egunetik aurrera errazagoa izan zen.



Zerutu ikastolako umeak Nekane Aginaga andereñoarekin San Jazinto ermita ondoan. Umeak hauek dira (goitik behera, ezkerretik eskumara): Ramon Kaltzakorta, Juanjo Arrate, Xabier Barquin, Jose Ignacio Santamaria, Xabier Aginaga, Patxi Makle, Miguel Anjel Amoros, Agustina Ibarluzea, Jone Ansola, Izaskun Santamaria, Gotzone Arrate, Jose Manuel Guerrero, Marian Malaxetxebarria, Beatriz Arrieta, Gemma Ibarluzea, M<sup>a</sup> Tere Molinero, Maite Leturiondo, Antonio Sanchez, Jabier Kaltzakorta, Molina, Ricardo Lopez, Xabin Arrate, Rosa Maiztegi, Jon Aretxabaleta, Abel Hidalgo, Mertxe Ansola, Tere Jesus Leturiondo, Robles, Alexander Aretxabaleta, Josu Olabarria, 1965.

Kontuan izan behar da sasoi hartan 3 urteko ume txikiak ez zirela eskolara joaten. Gehienak 5-6 urterekin hasten ziren, Ospitaleko eskolan aurretik, baina gehienak 6 urte beteta. Gainera ez zegoen ezelako materialik, euskaraz gutxiago. Geuk egin behar izaten genituen eskulanetako gauzak adibidez, larru zatiak hartu, zapatariari eraman zulo batzuk egiteko eta gero umeei josten irakatsi jostorrazt handiak hartuta.

gogoratzen du lehenengo andereño Nekane Aginagak.

### **3.4. ZERUTXU IKASTOLAKO ANDEREÑOAK**

Garai hartan ikastolan aritu ziren andereñoek ez zuten aparteko prestakuntzarik izaten. Familia gehienetan derrigorrezko hezkuntza amaitu bezain laster, gazteak, eta bereziki neskak, lanean hasi behar izaten ziren, baita etxeko lanean amari laguntzen ere. Markina-Xemein moduko herri txiki batean, oso gutxi ziren hezkuntza berezia jasotzen zutenak. Gehien jota, Eskola Laboralera joaten ziren, baina sasoi hartan hori mutilentzat zen bakarrik.

Esan bezala, lehen ikasturtean (1964/65) Nekane Aginaga izan zen Zerutxu andereño bakarra. Hala ere ikastolaren barruan Garbiñe Arrate orduan hasi zen txikienei (3-4 urtekoei) solteko dantza irakasten. Hurrengo kurtsoan Garbiñe ere andereño sartu zen, txikienekin. Urte horretan joan ziren kontzejupeko lokalera. Ordurako 24-25 bat ume zebiltzan ikastolan. "Neu ere magisteritza barik hasi nintzen andereño. Geroago, 41 urterekin atera nuen titulua, behin Bera Kruzera pasatu ondoren" gogoratzen du.

Orduan behin lehen hezkuntza amaitu ondoren lanera joan behar izaten zen edo bestela etxean lagundu. Titulua ateratzeko ikastolatik irtendakoan etxera joan eta bertan ikasi behar, gero azterketetara joateko. Batxillerreko 5 urteak horrela egin nituen.

dio Nekane Aginagak.

1967an Nekane Aginagaren etxera euskara ikastera joan zen Bilboko neska bat, Arantza Santa Maria Amurrio;

Irakasle titulu ofiziala zeukan. Nik Elizako titulu bat neukan bakarrik, Donostian, Bilbon eta Markinan Madre Pilarrekin praktikak eginda gero ateratakoa. Titulo hori katekesia eta horrelako gauzak emateko gehiago zen, eguneroko klaseak emateko baino, baina besterik ez zegoen.

Aita Migel Mari konturatu zen irakasle titulua zeukan bat ikastolarako lagungarri izan zitekeela. Horrela, Arantzari eskatu zion Nekane Aginagari laguntzen hasteko. 1967ko ikasturtean hasi zen Zerutxun andereño.

Euskaraz egiteko erraztasunik ez zuenez egunero gelditzen nintzen berarekin hurrengo egunerako klaseak prestatzeko. Berak dena idatzi egiten zuen eta gero klasea apunte horietatik irakurrita ematen zuen.

dio Nekane.

Egun batean gela barruan umeak zarataka eta saltoka hasi ziren eta Arantzak 'jausi, jausi' esaten zien. Nire neba Xabierrek (orduan 4 urte izango zituen) esan zion: 'Andereño, jausi ez, jarri'. Andereño hau urtebetez aritu zen Zerutxu ikastolan laguntzen (1967-68 ikasturtean), euskara ikasten ari zen bitartean.

Zerutxuko andereñoek uda aprobetxatzen zuten beraien formazioa hobetzeko. Batzuetan eskolako gauzak ikastera jotzen zuten, beste batzuetan euskara sakontzera. Besteak beste Elbira Zipitriaren ikasle izandako Karmele Esnalen ikastaro batzuetara joan ziren pedagogiako kontuak ikastera (nola irakatsi, ikastolaren martxa nola aurrera eraman...). Han sekulako etorria zeukaten euskaraz, euskara benetan garbia erabiltzen zuten. Metodologia aldetik ikastolaren eremuan sakontzen zuten, umei zelan erakutsi, beraien garapenean zelan lagundu, etab.

Horietatik aparte, euskara lantzerantz normalean erlijiosoek komentuetara joaten ziren, udako ikastaroak antolatzen ziren eta; besteak beste Lazkaoko beneditarretan, Getariako jesuitetan... Kontakatu horiek gehienetan Aita Migel Mariaren bitartez egiten ziren.

Ikastolan bakoitzak bere egitekoa zeukan: batzordea, hasieran, dirua lortzeaz arduratzen zen, gero hasi ziren gauza gehiago egiten (jaialdiak, dantza, ikastaroak eta hitzaldiak...). Aita Migel Mari, berriz, beste ikastolekin eta kanpoko jendearekin harremanak izateaz arduratzen zen.

1969-70 ikasturtean Garbiñe Arrate, Maritxu Ituarte eta Begoña Isasi ziren ikastolako andereñoak. Nekane Aginagak ikastola utzi zuen beste ikastaro batzuk egitera joateko. 1970eko irailean Mari Karmen Egaña sartu zen, orduantxe irakasle-eskolako ikasketak amaitu berri Gasteizen. Zerutxuko batzordekoak behin baino gehiagotan joan zitzaizkion ikasketak amaitu ondoren ikastolan andereño sartzeko eskatuz. Orduan "giro polita zegoen, euskara aurrera atera behar zela ikusten genuen, gure ardura zelako, nahiz eta euskarazko libururik eta materialik ez egon" gogoratzen du.

Eskualde mailan ikastolen artean harreman estua zegoen garai hartan. Lekeitioko Resurreccion Maria Azkue, Ondarroako Egunsentia eta Kresala eta Markina-Xemeingo Zerutxu ikastoletako andereñoak hamabostero elkartzen ziren gutxi gorabehera, bakoitzean herri batean. Batzar horietan ikastola bakoitzak zeukan materiala erakusten zien besteei; trukaketa lan handia egiten zen, orduko material urritasunari aurre egiteko bakoitzak zeukan guztia besteen esku uzten zuen. Baina materialez gain, metodo pedagogikoak ere trukatzeko zituzten; ikasgaiak nola irakatsi behar ziren, umeen portaera, eguneroko gorabeherak ikastolan... horiez guztiez eztabaidatzeko aukera zegoen.

Zerutxu ikastolan 1971ko irailean aldaketa garrantzitsu bat gertatu zen: Bera Kruzekin izandako elkarrizketek fruitua eman zuten eta urte hartan eskolaurrea ez beste maila guztiak batu egin ziren. Horrela Zerutxun eskolaurreko mailak bakarrik gelditu ziren eta orduan sortu berri zen OHoko lehenengo mailatik aurrerako umeak (6-7 urtetik aurrerakoak alegia) Bera Kruzera pasa ziren, baita ordu arte Zerutxun andereño izandako Begoña Isasi eta Mari Karmen Egaña ere.

Eskolaurreko umeak ez ziren Bera Kruzera pasa orduan Bera Kruzen hezkuntza euskalduntzen hasi berritan zirelako eta ikastolako umeen gurasoek ez zuten nahi 3-6 urteko umeak gaztelaniaz eskolatzea, euskaraz baizik.

Zerutxu eta Bera Kruzen batasun horren ondoren Garbiñe Arrate bakarrik gelditu zen ikastolan. Orduan, beste andereño bat bilatzeko beharra izan zuten. Tere Maiztegi orduan Bilbon zegoen, hizkuntzak ikastera urte hartan joanda. Berak ez daki zelan baina ikastolan lanean hasteko aukera eskaini zioten.

Ez dakit zein gogoratu zen nirekin, igual momentu hartan Batzordean zeudene-tako batzuen ezaguna izango nintzen, baina markinarra eta euskalduna izateak, ahizpa gazteagoa ikastolan eta neba nagusia dantza taldean izateak... horrek eragina izango zuen.

pentsatzen du berak. Ez zuen ordura arte inoiz pentsatu ere egin andereño izatea eta horregatik sorpresa atsegina izan zen beretzat: “alde batetik lana eskaintzen dizute eta bestetik, lan hori ez zen edozelako lana, lantegi batean sartuta aritzea, nobedade handiko lana baizik”.

Tere Maiztegi ere esperientzia gabekoa zen, haurrekin inoiz lan egin gabekoa, hain zuzen. Lehenengo ikasturtean (1971/72) 3 eta 4 urteko umeak eduki zituen gelan, guztira 42 ume. 5-6 urtekoak Garbiñerekin zeuden eta irakurtzen ikasten hasten ziren. Lehenengo egunean umeak nola hartuko zuten ez zekien:

Umeak sarrerako gela handi batean jarrita zeuden, ormaren kontra zeuden banquetan. Ni banan-banan joaten nintzaien eta bakoitzaren aurrean makurtuta berbetan hasten nintzen, beraien burua aurkezteko esaten nien (izena, zenbat urte zuten...). Halako batean bost bat urteko mutil baten parera heldu nintzen; izena galdetu nion baina isilik gelditu zen. Bat-batean, gelaren beste puntan zegoen bere anaiak (hau gazteagoa, 3-4 urtekoa) garrasi egin zion esanez: ‘Joxe, Joxe, egiozu haginka!’ Ez dakit zer pentsatu zuen, haserre egingo niola edo. Gero barregura handia eman zidan, baina momentuan pentsatu nuen: ‘Ene, ni ze mundutara nator baina?’

Gero eta ume gehiago zeudenez, andereñoen beharrizana ere handitzen zihoan. 1977/78 ikasturterako Zerutxu batzordeak deialdi bat egin zuen, andereño izan nahi zutenek “Dantzari”<sup>25</sup> tabernako zerrendan izena eman zezaten. Deialdi horretan bederatzi hautagaik eman zuten izena. Tere Maiztegik dioenez, “batzordekoak eta gu [andereñoak] batzartuta egon ginen hautagaien artean egokiena izan zitekeena aukeratzeko”. Batzordeko eztabaidaren ondoren, Mila Arrieta aukeratu zuten eta M<sup>a</sup> Karmen Ibarzabal ordeko<sup>26</sup>.

---

25. “Dantzari” taberna Goiko Portalean zegoen, gaur egun egunkariak saltzen dituzten lokalean.

26. 1977ko irailaren 1eko akta.

Zerutxuko andereñoek betebeharrak hauek zituzten<sup>27</sup>:

- Beraien eginkizuna behar den bezala betetzeko gertatua egotea.
- Euskara eta euskal kultura bereganatzea eta horretarako behar dituzten ikastaroetan parte hartzea.
- Andereño izatea (umeentzat eredu) ikastolan eta ikastolatik kanpo.
- Mertzede eskolaurreko andereñoekin harremana izatea, OHO ikastera doazenak maila bertsua eraman dezaten.
- Sarrerako orduak ondo zaintzea.
- Ikastolara arrazoi gabe hutsik ez egitea eta halakorik izatekotan Batzordeko lehendakariari ahalik arinen jakinaraztea.
- Ikastola garbi eta apain edukitzea ahalegintzea.
- Beharrezko materialaren jakinaren gainean egon eta erostea, gero diruzainari kontua emanez.

Mila Arrieta ikastolan hasi zen 1977ko irailean. 1979ko irailean eskola publikoan plaza eskatu zuen. Plaza hori lortzean bere ordezkari Karmen Ibarzabal sartu zen andereño. Honek Zerutxuko txikienean (3 urtekoen) klasea hartu zuen. Tere Maiztegi 4 urtekoen gelan aritu zen eta Garbiñe Arrate 5 urtekoenean. Azken hauek irakurtzen eta idazten hasten ziren orduan. Mari Kruz Ansolak ere jardun zuen urte betez ikastolan, 1979/80 ikasturtean.

### 3.5. IKASTOLAKO HEZKUNTZA EREDUA

Sarreran azaldu da, labur-labur, nolakoa zen frankismo garaiko hezkuntza: autoritarismoan eta memorizazioan oinarritzen zen hezkuntza hura. Ikastolako ereduak ez zen orduko eskoletan erabiltzen zena. Ikaskuntza praktikoa egin nahi zen, umeek beraien eguneroko esperientziatik ikasi behar zituzten gauzak. Materialik ez zegoenez, inguruko gauzak aztertuz, ikusiz eta ukituz ikasten zuten. Nekane Aginagak esaten duenez,

[...] eredu hori Ingalaterrako eskola batzuetan sortutakoa da. Orduko eskola ofizialetan ez zen horri buruz ezer aipatzen, nik nekiena liburu batzuetatik irakurrita nekien. Hezkuntza eredu hori askatasunean eta bizitasunean oinarritzen zen<sup>28</sup>.

Karmeldarrek, eta Aita Migel Mariak bereziki, ondo ikusten zuten eredu hori. Egunero joaten zen ikastolara bertako martxa ezagutzera.

Behin etorri eta amaraun bat ikusi zuen orman. Isil-isilik esan zidan 'Begiratu zer daukazu hor' garbitzeko esango balu bezala. Orduan nik bat-batean esan nion 'Ah, hori hor daukat umei erakusteko armiarrek amaraunak nola egiten dituzten'. Grazia egin zion eta hantxe utzi zuen.

---

27. 1975eko urtarrilaren 9ko akta.

28. Eredu hau "Summerhill school" izenez ezagutzen da. Alexander Sutherland Neill-ek sortu zuen 1921ean, Leinstonen, Ingalaterran. Bere ideia garrantzitsua hau zen: umeek askatasunez hobeto ikasten dute beldurrez baino. "Eskola demokratikoa" izena eman zitzaion, bertako hezkuntza garabeherak ikasle, irakasle, guraso eta bestelako taldeen parte hartze zuzenez erabakitzen zirelako.

Ikastolak zuen eredu biziaren erakusgarri, andereñoek sarri eramaten zituzten umeak kanpora. Eguraldi ona egiten zuen egun askotan joan ohi ziren non-baitera, San Jazintora gehienbat. Han ermitaren inguruan zelaitsu txiki bat dagoenez, han jartzen ziren. Umeek, horrela, ingurua ezagutzen zuten, leku berria izaten zen gehientzat, baserriak, animaliak, landareak eta abar ikusteko aukera zuten horrela. Eredu praktikoa, beraz: bertan umeek gauzak ikusi, entzun eta uki zitzaizketen zuzen zuzenean.

Horretaz gain, kanpora joateko ibilaldiak ere izaten ziren. Gernika ingurura, Arratera... joaten ziren adibidez, egun pasa, kurtsuan behin. Irteera horietara ikastolako andereñoek gain guraso batzuk ere joan ohi ziren, aukera zutenak eta laguntzeko prest zeudenak. Nekane Aginagak gogoratzen duenez "Ahal zutenak etortzen ziren noizean behin".

Euskara bultzatu eta norberaganatu beharra ere garrantzitsua zen ikastolarentzat. Jende askok ez zuen euskararen beharrik ikusten kultura jasoa, akademikoa izateko. Euskara askotan maila "bajuetarako" hizkuntzat hartzen zen. Mari Karmen Egañak arazo hori ikusten zuen: "Garrantzitsua begitantzen zitzaidan gure hizkuntzan, euskaraz, oinarri bat edukitzea. Izan ere, euskaraz analfabetoak ginen denok, euskaraz irakurtzen eta idazten ez genekien eta". Beste hizkuntzak ikastea garrantzitsua iruditzen zitzaion, noski, baina bere uestez

[...] umeentzat garrantzitsua da lehenengo urteetan behintzat klaseak umeek ulertzeko hizkuntzan izatea. Ez ulertzeko bakarrik, irakurzaletasuna bultzatzeko ere aurretik ezagutzen den hizkuntzan eman behar dira lehen pausoak.

Euskaraz gain, inguruko kultura aztertzen zen ikastoletan; hezkuntza ofizialean Espainia zen marko bakarra, baina ikastolan herria, eskualdea... aztertzen ere ahalegintzen ziren, nahiz eta materialik ez egon prestatuta. Ingurua ezagutzeari garrantzia ematen zitzaion, hurbilekoa ezagututa pausoz pauso marko handiagoetara joan zitezkeelako.

### **3.6. GURASOEN LANA IKASTOLA AURRERA ATERATZEKO**

Ikastola aurrera ateratzeko gurasoek lana egiten zuten. Lehen urteetan gutun-azal batzuk banatzen zituzten etxez etxe, dirua jasotzeko. Jauntxo batzuegana edo joera euskaltzaleko familia aberatsengana jotzen zuten. Lauren Aretxabaletak dioenez,

Jose Antonio Ansolak urtero ekartzen zuen orduko Banco de Vizcaya-k ateratzen zuen agenda bat. Han, ez dakit zergatik, Bilboko aberats askoren helbideak zeuden eta inor ezagutu barik han ibiltzen ginen pentsatzen norengana joan. Abizen erdal-dunengana ez ginen joaten.

Dirua lortzen zen, Felipe Amutxastegik gogoratzen du hasierako urteren batean 9.167 pezeta lortu zituztela, ordurako dirutza polita. Hala ere, ez zen erraza izaten; "denbora eskasak ziren eta gogoratzen naiz etxe baten zer esan ziguten: 'Venis a por el dinero de Franco, y a Franco no le queréis... Fuera!' Eta danbatekoa".

Lauren Aretxabaletak gogoratzen du behin Getxora joan zirela mediku baten-gana ikastolarako diru eske. Mediki hori gerra sasoiaren gartzelan egondakoa ei zen eta Aita Leon (Aranguren) karmeldarra ezagutzen zuen ordutik. Honek esan zien gizon altua zela, bastoi batekin ibiltzen zela, eta bere izena eta helbidea eman zien. Bere etxera joanda mediku horren amak edo esan zien kanpoan zela baina laster etorriko zela bueltan. Kanean gelditu ziren zain. Halako batean han ikusi zuten gizon altu bat zetorrela bastoi baten laguntzaz. Gehiago pentsatu barik, berarengana joan ziren eta mediku hau beldurtu egin zen:

¿Quiénes sois? Esaten hasi zen bastoia altxatuta. Guk esan genion: 'Venimos de Markina, de parte de Aita Leon'. Hori entzutean trankildu egin zen. Ikastolaren alde dirua batzen genbiltzala esan genion eta eman zigun diru kopuru polita sasoi hartarako. Baina guk egiten genuena eta pistola batekin lapurtzera joatea antzekoak ziren. Inor ezagutu barik, gabaz etxean atea jotzen eta dirua eskatzen.

Mediku hark gero beste behin ere diru laguntza eman zion ikastolari eta ikastolaren aldeko bihurtu zen, antza denez konbentzitu egin zen Aita Leonen izena entzutean, harremana baitzuen berarekin.

Ikastolaren hasierako urteetan, 1966an, etorri zen Luis Baraiazarra Markina-Xemeingo karmeldarren komentura. Garai hartan komentu hau karmeldar profesoen<sup>29</sup> ikastetxea zen,

Larrean profesia eginda urtebete pasatzen zuten hemen ikasleek, Ordenako bizi-tza, legea, ordura arte ikasitakoaren jarraipena egiten zuten [...]. Ikasleentzat urte pozgarria izan ohi zen, aurrekoa errepasatzea baitzen gehienbat. Horregatik azterketak ez ziren hain gaitzak izaten.

Luis bera ez zen ikasle etorri, abade egin berri baino. Bera etorri zenean profesoen kolegioaren azken urteak ziren Markina-Xemeinen. Abade egin berri zegoenez, profesoei eskolak ematen hasi zen, euskara eta literaturako klaseak, hain zuzen.

Markina-Xemeingo herritar askok gogoan dute Karmenen profesoen ikastetxea zegoeneko garaia. Orduko sasoi hartan fraide gazteak ugari ziren Markina-Xemeinen, batez ere Euskal Herria bokazio gune garrantzitsua zelako eta karmeldar ikasle gehienak hemendik igarotzen zirelako. Ikasle hauek astean behin edo gehiagotan taldean irteten ziren, besteak beste Etxebarriara joaten ziren bidean oinez, frontoian pilotan jokatzera. Garai hartan, gainera, habituz jantzita ibiltzen ziren beti eta horrek arreta pizten zuen herritarrengan.

---

29. Profesioak ordena erlijiosoetan behin pobrezia, kastitate eta obedientziako botoak egin ondoren abadetza hartzeko bidean jarraitzen dutenak dira (nobiziatua bukatu zutenak). Markina-Xemeingo Karmeldarren komentua profesio horientzako ikastetxea zen. Profeso urtea behin Humanitateak ikasi ondoren burutzen zen, Filosofia eta Teologia ikasten hasi aurreko urtea, hain zuzen; bertan Ordenako legedia, santu karmeldarren lanak... lantzen ziren gehienbat, humanitateetan ikasitakoez gain (latina, grekoa, literatura...). Euskarako klaseak ere izaten ziren, besteak beste Aita Migel Maria Juaristik emanak. Profesoen ikastetxe hau 1968an itxi zen.

Hortik aparte, Felipe Amutxastegik gogoratzen du nola “ikasle horiek Markina nako komentuan zeudenean, zapatu arratsaldeetan Ama Birjinari ‘Salbea’ errezatzen zitzaion”. Fraideek eta ikasleak, denetara, 50en bat izango ziren, guztiak habitu berezi bat janzten zuten gainera otoitz hori egiteko, arratsaldeko mezaren amaieran. Ikusgarria izaten omen zen, euskaraz abesten zuten gainera, Aita Jose Domingo Ugartetxea karmeldar markinarrak harmonizatutako ‘Salbea’ edo ‘Agur Erregina’ hain zuten. Aurrerago esan den bezala, profesoen ikastetxe hau 1968an itxi zen.

Euskal mugimendua sortzen ari zen Markina-Xemeinen garai hartan, euskararen gainbehera gelditzeko.

Batez ere gurasoen jarrera jatorra azpimarratu behar da. Zer segurantz izango zuten guraso haiek beraien umeak horrelako zerbaitetan sartzeko? Arrisku horiek egon arren, gurasoek gogor egin zuten ikastolaren alde eta trabak gainditzea lortu zuten.

Garbiñe Arratek ere aitortzen du gauza bera:

Haiek fede itzela eduki zuten; inon ez zen euskaraz irakasten, Markinan beste bi eskola egon arren (eskola nazionalak eta Mertzedeako ikastetxea), euren umeak ekarri zituzten zer etorkizun izango zuten jakin barik. Jakinda horrelakoak hain txarto ikusten zirela gainera, balore handia eduki zuten.

Bestelako jendeak, ikastolaren inguruan mugitzen ez zenak, jarrera hotzagoa zeukan: “Batzuek txarto ikusiko zuten ikastola, edo ondo ez behintzat. Mugimendu horretan mugitzen ginenok (mendigoizaleak, dantza taldea, euskara...) desberdinak ginen”.

Zerutzuren inguruan lan egiteko gogoz gero eta jende gehiago sartu zen, bereziki umeak ikastolara ekartzen zituzten gurasoak. Hauek lan handia egiten zuten

[...] arratsaldeetan elkartzen ziren kartoiak, paperak, botilak... batzeko. Hori guttia lau pezeta lortzeko, baina ez zegoen beste aukerarik. Ikastola mantentzeko diru asko behar zen, guri ordaintzea azkena zen. Dirua zegoenean bakarrik kobratzen genuen, 2.000 pezeta igual. Diru horretatik geuk erosi behar izaten genuen askotan aurkitzen genuen material apurra, ikastola ezer gabe ez edukitzeko,

gogoratzen du Garbiñe Arratek. Botila eta kartoi horiek Josune liburu dendan biltzen ziren, gero saltzeko. Hortik lortzen zen dirua ezerezaren parekoa zen ia, baina beste aukerarik ez zegoen ezer egiteko. Urteak aurrera joan ahala egoera hobetzen joan zen (diru aldetik behintzat) beste sarrera batzuk bilatu ahal izan zirelako: Gabonetako loteria, jaialdietan frontoiko taberna erabiltzea, Karmen jaietako txosna, etab.

Zerutxu elkarteko kideen kuotak ordainarazteko ere elkarteko kideak arduratzen zien, bankuaren bidez egin beharrean. Kuotak batzen ibiltzen ziren batzuk aipatzekotan, hauen izenak esan daitezke: Kasilde Aginaga, Jaione Aretxabaleta,



Garbiñe Arrate, Josebe Garcia, Kristine Beaskoetxea, Jose Antonio Ansola, Juncal Ansola, Isidro Arroitauregi "Txaraka", Agustina Gandiaga etab. agertzen dira, besteak beste, kontuen liburuan, bazkideen kuotak batzen zituztenen artean. Andereñoek ere ikasleen gurasoek emandako dirua jasotzen zuten eta gaueko eskolakoek ere ordaintzen zuten. Azken hauetaz Anjel Kareaga agertzen da arduradun. Ikastolaren hasiera urteetan, aldiz, guraso batzuei dirua eskatzea arriskutsua zen, Lauren Aretxabaletak gogoratzen duenez,

[...] abertzaleak ez zirenak konbentzitzea gaitza zen, nahiz eta ia debalde izan. Beste ikastetxe handietan (Mertzedean adibidez) ordaindu egin behar izaten zen, baina euskararekiko ezer berezirik sentitzen ez zutenentzat arriskutsua zen umeak ikastolara bidaltzea.

Ikastolako lokalak garbitzea ere gurasoen zeregina zen. Borondatez antolatzen ziren taldeak asteko garbitasuna burutzeko. Sekula ez zuten inolako arazorik izan umeak edonora eramateko. Andereñoek jakintzat hartzen zuten ikastolan zebiltzan umeak antolatzen ziren edozein ekintzetara joateko prest zeudela. Gurasoek inoiz ez zuten aitzakiarik jartzen ume txikiak ere behar zen lekura eramateko, Ondarroan antolatzen ziren Kantu txapelketetara, adibidez.

Lan horietaz gain, Zerutxu ikastolak garrantzia ematen zion gurasoen formazioari, bai hizkuntza mailan gurasoen artean euskal kontzientzia sortzen ahaleginduz, baita formazio psikologiko eta pedagogikoari ere, hitzaldiak emanez batez ere: bertan umeen hezkuntza hobetzeko metodo berriak erakusten zitzaizkien gurasoei.


### **3.6.1. Zerutxu Elkartea. Ikastolaren bultzatzaile**

Zerutxu elkartearen hastapenak Eskola Laboralaren inguruan zebilen talde baten esku zeuden. HOAC (gaztelaniaz "Hermandades Obreras de Acción Católica")<sup>30</sup> taldea sortu zuen bertako zuzendari Julian Olazabalagak, 60 hamarkada hasieran. Talde horren helburua langileen erabateko goratzea zen. Zortzi urtez astero-astero batzarrak egin zituzten, Elizak proposatutako erregela hartuz (Beguiratu, Aztertu eta Jardun) gizarteko errealitatea hobetzeko egin zitezkeen jarduerak zehazten ziren. Lauren Aretxabaletak gogoratzen du don Julianek behin esan ziela sasoi hartan gai sozialetan gehien prestatutakoak eurak zirela. Eskolara joateko aukerarik eduki ez zuten batzuei errealitate soziala hausnartzeko eta egoera bidegabeak nola aldatzen joan aztertzeke aukera ematen zieten batzar horiek.

Talde horretako kideei don Julianek eta A. Migel Mariak erakundeetan sartzeko joateko esaten zieten, pixkanaka egoera aldatu ahal izateko. Aldi berean herriko Guraso Elkartea sortzea bultzatu zuten. Baina guraso horietako asko ez

---

30. HOAC taldea industrialetan jarduten zuten gizonezko helduengan Elizaren irakatsi soziala zabaltzeko taldea zen. "Acción Católica" deituriko mugimendu zabalagoaren barnean zegoen. HOACez gainera, JOC (Juventud Obrera Cristiana) eta Herri Gaztedi (baserri giroko mugimendua, beranduago sortua) zeuden.



Zerutxu elkartearen sorrera akta, 1967-01-22. Zerutxu elkartearen akta liburua, Karmeldarren komentuan gordea.

ziren joera abertzale eta euskaltzalekoak eta ez zuten ikastolaren aldeko jarrera argiegirik. Lauren Aretxabaletak gogoratzen duenez, “jende ona zen, asmo honekin eta lan egiteko gogoz. Baina euskara eta ikastolaren aldeko jarrerarik ez zuten, batzuk kanpokoak zirelako eta beste batzuk ez zutelako mugimendu hori hain ondo ikusten”. Hori dela eta, aparteko beste elkarte bat sortzeko beharra nabaritu zuten. Hortik sortu zen, beraz, Zerutxu elkarte.

Beste alde batetik, Ikastolak aurrera jarraitu ahal izateko babeslekuren bat behar zuela nabaritu zuten. Aita Migel Mari izan zen ordura arte ikastolaren arazo gehienak bere gain hartu zituen, beti ere gurasoen eta andereñoen laguntzarekin, baina osasun arazo batzuk ere izan zituen eta Zerutxu ikastolako jendea beldur zen beste komenturen batera bidaliko ote zuten. Elkarte edo batzorde horren zeregina ikastola babestea zen, gero eta gehiago jasotzen zituzten erasoan aurrean. Lege aurrean kili-kolo zegoen ikastola eta bertako gurasoek elkarte beharra ikusi zuten, aurrera egiteko bide bakarra zela eta. Izan ere, 1966an hezkuntzako inspektoreak egindako ikustaldian Zerutxu ikastola debekatu eta itxeko agindu zuen. Mugimendu euskaltzaleetan aritzen zen jendeak, gainera, sarri jasan behar izaten zituzten era guztietako miaketak eta atxiloketak.

1960. hamarkadan euskararen eta euskal kulturaren aldeko elkarte bat sortu ahal izateak arazoak zekartzan berarekin. Kontrol politikoa zorrotza zen eta kontuan izan behar da euskaltzale eta abertzale asko “fitxatuta” zeudela; edonolako ekintzak egitearren Guardia Zibilak atxilotu eta horren ondorenak epe luzerako gelditzen ziren. Euskal usaineko talde guztiak susmopean zeuden eta kontuz ibili behar ziren nor jartzen zuten horrelako elkarteren bateko buru. Elkar-teko burua “fitxatutakoa” izanez gero, beldur ziren elkar-teak ez zuela ezer egiteko askatasunik edukiko. Izan ere, Felipe Amutxastegik gogoratzen digunez “*gobernadoreen eta ‘txapelokerren’ beldurrez fitxa bako bat jarri nahi izan zuten, bestela dena bertan behera botako zutela eta*”. Azkenean, 1967ko urtarrilaren 22an egindako batzarrean, kide hauek hautatu zituzten batzordea osatzeko:

- Lehendakaria: Francisco Arrate.
- Lehendakari ordea: Julian Maguregi.
- Idazkaria: Jose Antonio Ansola.
- Idazkari ordea: Joaquin Maguregi.
- Diruzaina: Juan Duralde.
- Diruzain ordea: M<sup>a</sup> Soledad Ibarzabal.
- Mahaikoak: Lauren Aretxabaleta, Felipe Amutxastegi, Ramon Biteri, M<sup>a</sup> Kar-men Juaristi, Anjel Juaristi, Celestino García, Javier Arrate, Ignacio Maguregi, Jacinto Biteri<sup>31</sup>.

Batzordea aldiro-aldiro berritzen zen, bazkide guztiek parte hartzen zuten batzarrean. Hauteskunde hauetarako bazkideek beraien proposatzen zituzten hautagaiak. Urtero edo bi urtero berritzen zen batzordearen erdia. Horrek jende berria sartzeko aukera ematen zuen, baina aldaketa pixkanaka egiten zen; hau

---

31. 1967ko urtarrilaren 22ko akta.

da, aurreko batzordetik gelditzen zirenek eta aukeratu berriek batera jarduten zuten. Hala, 1969an beste batzorde bat osatu zen; Ramon Biteri izendatu zuten lehendakari eta Santiago Txurruka lehendakari-orde. Idazkaritzan Jose Antonio Ansolak jarraitu zuen eta Juan Duraldek diruzaintzan<sup>32</sup>.

Aita Migel Mariak ere parte hartzen zuen batzordean. Kontuan izan behar da gizarte hartako giroa gaur egunekoa baino askoz erlijiosoagoa zela eta, horregatik, Zerutxu bezalako taldeetan abade edo erlijiosoren bat izatea garrantzitsua zen. "Asesor espiritual" deitzen zitzaion, orduko garaietan erlijioak zuen garrantzia zela eta abade bat izateak segurtasuna ematen zion taldeari. Gainera, Luis Baraiazarrak gogoratzen digun bezala,

[...] sasoi hartan euskal kulturaren zertxobait landuta zeukatenak abade eta erlijiosoak ziren gehienbat. Euskara bera ere, maila jasoan, erlijiosoek erabiltzen zuten, besteek ez zuten euskaraz idazten eta irakurtzen jakiten eta.

Gaur egun hori asko aldatu da; batetik, erlijioak gizartean zuen indarra galdu egin duelako eta beste alde batetik elizgizonez aparte jende ikasia (baita euskal kulturaren aditua ere) asko ugairitu delako. Aita Migel Mariren gaixoaldietan eta, geroago, Markina-Xemeindik kanpora joan zenean, Luisek berak bete zuen bere tokia batzordean.

### **3.7. EUSKAL MUGIMENDUA INDARTZEN, BAITA ZERUTXUTIK KANPO ERE**

Euskal mugimendua Zerutxutik kanpora ere indartzen ari zen. Euskal Herri mailan alfabetatzearen aldeko eragileak eta aitzindariak ziren batzuk Markina-Xemeinera etorri ziren jendea euskara ikastera bultzatzeko: Karlos Santamaria, Rikardo Arregi, Juan San Martin... Hitzaldi horiek Aita Migel Mariak antolatutak izan ohi ziren gehienetan. Beraien helburua euskara eta euskal kulturaren berri ematea zen, guraso euskaldunei eta euskaltzaleei orokorrean, euskararen aldeko lana egitera bultzatzeko. Hitzaldiok jendea esnarazteko balio izan zuten, herrian euskarak zuen egoera larriaz kontura zedin. Izan ere, 60. hamarkadan zehar euskaraz berbetan jakin arren, Markina-Xemeinen ez zen euskara askorik hitz egiten. Jendea euskararekiko ardura gabe bizi zen eta, zentzu horretan, karmeldarren bultzada hori ezinbestekoa izan zen ikastolaren mugimenduak indarra har zezan. Tere Maiztegik dioenez,

[...] beti pentsatu izan dut karmeldarregatik izan ez balitz Markinan ez litzateke giro hori inondik sortuko. Gaur egun Markinako umeek eta gazteek euskaraz egiten dute, neurri handi batean, hortik sortutako giroak lagunduta. Zerutxu sortu zenean, izan ere, beste eskoletan ez zen ezer euskaraz egiten eta asmorik ere ez zegoen gainera.

Luis Baraiazarra karmeldarra ere orduan hasi zen Mertzedeko barnetegiko neskei euskara irakasten, beti ere borondatez horrela nahi zutenei. Klase hauek

---

32. Batzordeko kideak aparteko eranskinean zerrendatuta daude.

antolatzeko baimena eman zuten Mertzedeako ikastetxean; ikastola sortzeko garaian Karmengo prioreak egindako eskariei ez zieten baiezko erantzunik eman, baina apurka-apurka jarrera aldatzen joan ziren. Mertzedeako ikasle batzuk ere familia eta giro euskaltzaleetatik zetozenez, euskara ikastea eskatuko zuten. Hala ere, baliabideen aldetik klase eskasak ziren: materialik gabe jardun behar izaten zuten. Markina-Xemein eta inguruko herrietako batzuek gain, barnetegian zeuden beste batzuk ere etortzen ziren, euskaldun zaharrak gehienbat:

Klaseak eguen arratsaldetan izaten ziren. Egun hori asteko egun librea izaten zen eta barnetegiko beraien ikaskideak paseatzera ateratzen ziren. Egoera ez zen batere erraza ikasleak mantentzeko. Kantuak eta jokoak sartuz klasea deigarriago egiten ahalegintzen ginen. Hala ere, zelako gauza eskasa izango zen pentsatzen has-tean lotsatu egiten naiz.

Eskola Laboralean ere bazen euskararen aldeko mugimendurik. Juan Bizente Gallastegi Eskola Laboraleko zuzendari ordea zen, baita Etxebarriko eta Barinagako parrokoa ere (gaur egun Elorrioko parrokian dago). Honek ere harreman estua zeukan Aita Migel Mariarekin, eta ikastolaren eta euskal alfabetatze mugimenduaren alde ere ibili zen. Eskola Laboraleko zuzendaria Julian Olazabalaga zen orduan. Olazabalaga oso pertsona praktikoa zen:

Bere helburua gauzak egitea zen, berdin zen euskaraz edo erdaraz. Ez zuen hizkuntzarekiko aparteko ardurarik. Euskara ematen hasi zen Eskola Laboralean beste batzuk egiten zuten lanagatik. Beragatik berdin izango zen dena erdaraz egitea ere. Guk gogor egiten genuen euskararen alde.

gogoratzen du Luis Baraiazarrak. Hala ere, oso pertsona efektiboia zen; antolaketarako gaitasuna zuen, baita diru-laguntzak jasotzeko ere.




Eskola Laboralean inguruko abade eta erlijioso askok ere lan egin zuten gehien bat erlijio klaseak ematen. Horietako asko euskaltzaleak ziren, aurre-rago aipatutako Juan Bizente Gallastegiz gain, Xabier Amurizak ere erlijio edo etikako klaseetan liburuko pasarte batzuk gaztelaniatik euskaratzen jartzen zituen ikasleak. Horrela euskara kontuan geldirik zeuden gazteengan ardura eta erantzukizuna piztu nahi izan zuen, bereziki:

Markinako gazteek ez zuten euskaraz egiten elkarren artean; kalean eta etxeetan euskaraz egitea ez zegoen debekatuta, inguruko herrietan euskara askoz gehiago egiten zen Markinan baino. Baina hemen pilotaren eragina, frontoia puntaren puntan zegoen orduan, jokalaria handiak etortzen ziren... horrek guztiak jendea euskaratik aldentu eta erdaraz berba egitera bultzatzen zuen, zerbait izateko era hori izango balitz bezala.

Jende askok euskaraz hitz egitea balio gutxikotzat hartzen zuten eta horri aurre egiteko ahalegin guztiak egiten zituzten; euskararekin batera, antifranksimoa, abertzaletasuna eta beste ideia batzuk ere zabaltzen ziren, baina 60. hamarkadan zehar Markinako mugimendu euskaltzalea oraindik guztiz militantea (eta zentzu horretan, minoritarioa) zen.

### 3.8. IKASTOLAREN KONTRA. DEBEKUAK

1966-67 kurtso hasieran Lehen Hezkuntzako inspektorea, Jose Luis García Prieto, agertu zen Ikastolara. Honek Zerutxu legez kanpokoa zela esan zuen, Lehen Hezkuntzako legea (1945ekoa) betetzen ez zuelako. "Alkatea bera (Justo Arrieta) joan zen Bilbora ikastola defendatzera. Ez dut gogoratzen zer esan zuen, baina gogor egin zuen ikastolaren alde. Hala ere, alferrik izan zen" gogoratzen du Nekane Aginagak. Zerutxuk kontzejupeko lokala utzi zuen, baina ezkutuan aurrea jarraitu ahal izan zuen. Garbiñe Arrate ume txikienekin Karmengo komentura itzuli zen, sakristia ondoko gelara, eta Nekane Aginaga eta Arantza Santamaria etxetara joan ziren. Aginagatarren etxean ("Argindar") eta Foruriatarrenean egon ziren:

	<b>GOBIERNO CIVIL</b>	Fecha: 16 de Febrero de 1968.
	DE <b>VIZCAYA</b>	Negdo: 4º (4.13)
Sección de Coordinación y Relaciones Públicas		Núm: 1638
Asunto: Escuela de vascuence existente en la Casa Consistorial.		N/Ref:
Sr, Alcalde del Ayuntamiento de		
<u>MARQUINA-JEMEIN</u>		
<p>Ha llegado a conocimiento de mi Autoridad que en unos locales de los bajos de esas Casas Consistoriales, viene funcionando una Escuela de vascuence, no obstante carecer de la oportuna autorización y haber sido dispuesta su clausura por la Inspección Provincial de Primera Enseñanza, así como que en los propios locales funciona una escuela de folklore, a pesar de haberse prohibido que tuvieran lugar ensayos de esta naturaleza, dado el carácter netamente político que se daba a los mismos.</p> <p>En su consecuencia, he dispuesto que por esa Alcaldía se proceda inmediatamente a la efectiva clausura de tales locales, adoptando las medidas que sean necesarias para impedir que puedan seguir siendo utilizados en las finalidades apuntadas.</p> <p>Lo que comunico a V.S. para su conocimiento y demás efectos, significándole deberá dar cuenta a este Gobierno Civil del cumplimiento de lo que se ordena.</p> <p>Dios guarde a V.S. muchos años. EL GOBERNADOR CIVIL,</p> 		
		

Gobernadore Zibilak udalera bidalitako jakinerazpena, 1968-02-16. Karmeldarren artxibokoa, akten liburuan gordetako.

Gure etxean (Argindar) ezkaratzean elkartzen ginen. Ordurako gure amak entzi-mara edo ganea ipinita zeukan eta goizean goiz jaikitzen zen bazkaria ipintzeko. Gero txapa zuri batekin tapatu eta batzuk han eta besteak mahaian, horrela egiten genuen klasea.

Justo Arrietaren alkatetza 1967an amaitu zen. Bere ondoren, Luis Rodriguez Duralde izendatu zuten Markina-Xemeingo alkate, 1967ko otsailaren 4an. Urte hartan egin ziren hauteskundeetan gurasoen ordezkariak ere parte hartu zuten (“Tercio familiar” edo “Tercio de Padres de Familia” deitzen zitzaion horri)<sup>33</sup>. Aita Migel Mariak bultzatuta, Lauren Aretxabaleta eta Jose Antonio Ansola aurkeztu ziren eta boto portzentaje altua lortu zuten. Hala ere, sistema horrekin bi-hiru zinegotzi lor zitezkeen bakarrik; gainerako guztiak “afectos al Régimen” izan behar ziren eta goitik izendatzen zituzten. Hauek juramentuak egiten zituzten Espainiako banderaren aurrean, baina gurasoen ordezkariak ez zuten horrelakorik egin behar. Laurenen iritziz,

[...] hauteskunde haiek Europara begira egiten ziren, Espainian nolabaiteko demokrazia zegoela sinestarazteko. Tranpa izan arren, pixkanaka gure gauzak lortzen joateko aukera ekarri zigun, errazago baita Udal barruan helburuak lortzea kanpotik lortzea baino.

### **3.8.1. Azterketak egitera Markinatik kanpora**

Luis Rodriguez Duralde, alkatea izateaz gainera, eskola nazionalerako mai-sua zenez, ez zuen uzten ikastolako umeek bertan azterketarik egiten. Ez zuen ikastola onartzen. Izan ere, ikastolako andereñoak titulu gabekoak zirenez, ezin zuten azterketarik egin. Baina, arazo edo aitzakiarik garrantzitsuena ikastola bera legez kanpokoak izatea zen.

Ikastolan hasierako urteetatik zeudenak (1964/65 ikasturtetik alegia) 1967/68 ikasturterako derrigorrezko hezkuntzan hasteko adienean zeuden. Zerutxu legez kanpoko eskola zen arren, gurasoek beraien seme-alabak euskaraz ikas zezaten nahi zuten eta horregatik bertan jarraitu zuten urte batzuetan, 1971n Bera Kruzekoekin bat egin zuten arte.

Bien bitartean, alkatearen jarrera horren aurrean, azterketak egiteko beste ikastetxe ofizial baten beharra nabari zen. Aita Migel Mariak Eskoriatzako komentuan arreba bat zeukan moja eta hauek neskenetzako ikastetxea zeukaten bertan. Aita Migel Mariak erabaki zuen neskek bertan matrikulatzea, bertan azterketak egin zitzaten.

Baina ikastolako mutilek ezin zuten hara joan azterketak egitera; horren aurrean, mutilak Bilbora eramatea erabaki zuen, Santutxuko Karmelo eskolara. Eskola hau Bilboko karmeldarren inguruan sortutakoa zenez, harremana zeukaten Markinako karmeldarrekin. Horretan beste askoren laguntasuna ere izan

---

33. Aurrerago esan den bezala, frankismo garaiko hauteskundeak ez ziren alderdi politikoetan oinarritutako sistema demokratikoaren bide zegiten. Aitzitik, familia, herria eta sindikatua deituriko oinarritzko zelulen bidez aukeratzen ziren (ik. 19. oharra).

zuten, Tere Rotaetxe andereñoarena eta beste hainbat abertzale eta euskaltzalerena, esaterako. Bertako andereñoak ere batzarrak izaten zituzten Karmelo ikastolan ere. Esan beharra dago azterketak egitera kanpora joate hau akta liburuetan ere ez dela agertzen; klandestinitatean burutzen zelako hain zuten.

1971ko ekainean Luis Rodriguez Duraldek jarrera aldatu zuen eta Zerutxuko ikasleak Markinako eskola “nazionaletan” azterketak egitea baimendu zuen. Azterketa horietarako gaztelania ere irakasten zitzairen umeei, lehenengo mailatik hasita egunero apur bat ikasten zuten. Horrez gain, eduki “ofizialak” (beste eskoletan ematen zirenak) ere landu behar izaten ziren: Espainiako historia eta geografia, adibidez.

### **3.8.2. Guardia Zibilaren kontrola**

Ikastolarako atea Karmengo kaletik zegoen denboretan, Guardia Zibilen kuartela zeukan parez pare (Osasun Etxearen inguruan). Kontrola handia izan ohi zen ikastolaren gainean, egunero ikusten zituzten gurasoak umeak ekartzera etortzen zirenean, andereñoak sartzen eta irteten... Andereñoek ere makina bat ostera egin behar izaten zituzten bertara. Ikastolako sarrera kuartelaren pareparean zegoenez, zuzenean kontrolatzen zuten horko mugimendu guztia. Garbiñe Arratek ondo gogoratzen du astean birritan ez bazen, behin gutxienez joan behar izaten zutela “Deitu egiten ziguten: ‘Zeñoita’. Eta hara joan behar. Sartu eta hasten ziren esaten ‘Vosotras sois las que le inculcáis a los niños... poneis un cartel de no se qué’. Txarto pasatzen genuen askotan”.

Tere Maiztegi ere gogoan dauka sarritan joan behar izaten zutela koartelera, guardia zibilei kontuak argitzera. Behin, bazkalostean ikastolara zihoala ume batzuk zeuden atean zain baina bera heltzean guardia zibil batek koartelera joateko dei egin zion. “Esan nion ezin nituela umeak bakarrik utzi (orduak guraso ez nagusi gabe etortzen ziren ume asko ikastolara, 4-5 urtekoak). Baina guardia zibilaren agindua bete egin behar”. Kuartelera sartu eta han hasi ziren galderak egiten “ea zertan ari ginen, zer egiten genuen umeekin, noren baimena genuen, nork ordaintzen zuen hori guztia...”. Halako batean ikastolara bateren bat hurre-ratu zen (gurasoren bat edo beste andereñoaren bat izan zitekeen) eta gogoratzen du kuartelaren barrutik nola entzun zituen umeak azalpenak ematen: “Poliziek etorri eta andereño Tere kartzelara eraman dute!”.

Gainera, orduko legearen arabera, Espainiako bandera jarri behar izan zen ikastolaren sarreran. Batzuek ez zuten aparteko jarrerarik horretan. Felipe Amutxastegik gogoratzen du: “Espainiako bandera jarri behar zela eta, jarri zuten. Nik ez daukat ezer Espainiaren kontra. Baina ikastola barruan euskaraz erakutsi ahal izatea zen lehenengo helburua”.

#### **3.8.2.1. Guardia zibilak Karmengo komentuan (1973-08-02)**

Ikastolaren eta Zerutxu mugimendu osoaren kontrako kolpe latzenetarikoa 1973ko abuztuaren 2an gertatu zen. Egun horretan, eta aurrez inolako abisurik eman gabe, Guardia Zibila azaldu zen komentuan, miaketa bat egiteko baime-



narekin. Aurrez inolako abisurik eman gabe esan dugu, izan ere, erregistroko aktan<sup>34</sup> agertzen denez, orduan komentuko buru (priore) zen Aita Lino Akesolo kanpoan zen. Pentsatzekoa da horrelako miaketa bat aldeztatik abisatu gero, komentuko priorrea behintzat egun eta ordu horretan bertan izaten ahaleginduko zela.

Gertaera honen aurrekari garrantzitsuena 1973ko uztailean argitaratu zen *Tiki-Taka* aldizkaria izan zen. Aldizkari hau Luis Baraiazarra eta Tomas Zugaza-Artaza karmeldarrek atera zuten gaztetxoentzat. Bertan, labur-labur, Euskal Herriko geografia, historia, ipuinak... azaltzen ziren, irudi biziz lagunduta. Hilabete horretan, Tomas Zugaza-Artaza Derion egin ohi ziren udako ikastaroetara joan zen, eta bertan zeuden euskaldunen artean aldizkaria banatzen hasi zen. Hala, ikastaroetatik bueltan zetozela, aldizkaria jaso zuten batzuk poliziaren sarekada batean erori ziren eta aldizkaria kendu zieten. Aldizkarian Markina-Xemeingo komentuan idatzi zela jartzen zuenez, hori izan zen miaketarako arrazoietakoa bat.

Horrelako miaketa bat egitean, bai Guardia Zibilak, baita miaketa jasan behar zutenek ere, testigu batzuk izenda zituzketen. Fraideek Lauren Aretxabaleta eta Jose Ansola izendatu zituzten eta Guardia Zibilek Julian Aliende udaltzaina eta Leon Onaindia. Jose Ansola eta Leon Onaindia ezin izan ziren joan eta orduan Lauren Aretxabaleta eta Julian Aliende zeudela hasi zen miaketa.

Guardia Zibilen buru Hidalgo kapitaina zen erregistro orduan. Lauren ezagutzen zuen aspalditik, aurretik atxilotuta egon baitzen eta ikusi zuenean esan zion “Hombre, usted por aquí? Usted será muy amigo de los frailes, verdad?”. Laurenek erantzun zion baietz, fraideak pertsona zintzoak zirela eta ondo konpontzen zela beraiekin. Orduan atxilotuta (“retenido”) zegoela esan zion; nahiz eta testigu lez etorri ezin zuen inorekin hitz egin. Berak gogoratzen duenez,

[...] erregistroa hasita, ortutik fraide zahartxo bat etorri zen, nahiko gorra. Neugana etorri eta belarrira esan zidan: ‘Hi, Lauren, ze pasetok hemen?’. Baina ni isilik egon behar eta ezin erantzun. Ostera ere galdetu zidan gauza bera, baina ni ixilik, Guardia Zibil denak niri begira zeuden eta. Fraide gor hark pentsatuko zuen: ‘Honek ez du piperrik ere entzuten!’.

Erregistroan Aita Tomas Zugaza-Artazaren, Aita Luis Baraiazarraren eta Aita Lon Arteagaren gelez gain komentuko liburutegia ere begiratu zuten. Koruan komentuko multikopista aurkitu zuten, han zeukaten ezkutatuta eta. Multikopista hori fraideek erabiltzen zuten, batetik beraien mezatako testuak, abestiak, etab. egiteko eta bestetik ikastolaren eta euskararen aldeko propaganda idazteko. Horrez gain, euskaraz idatzitako edozein testu, gutun, olerki... susmagarri iruditzen zitzairen eta hartu egiten zuten. Lauren Aretxabaletak gogoratzen duenez, horrelako zerbait aurkitzean esaten zuten: “¡Aquí hay otro pekatura”.

---

34. Komentuaren kontrako erregistroko akta ondorengo liburu honetan jasota dago hitzez hitz: URKIZA, Julen. *Karmeldarrek Markinan (1691-1991). Historia eta agiriak*, 1. arg. Larrea-Zornotza: Karmel Sorta, 1992; 846-852. Guardia zibilek idatzitako testua da eta argi ikusten da euskarazko izenak eta testuak idaztean egiten zuten akats pila.

Aurretik esan den bezala, erregistroa egitean orduko priorea, Aita Lino Akesolo, ez zegoen komentuan. Bere ordezkoa Aita Jenaro Larruskain zen. Erregistroa luzatzen zela ikusirik, guardia zibilei esan zien guztiak sagraioaren aurrera joan eta hiru agurmaria esango zituztela gauza guztiak behar zen bezala joan zitezten. Lauren Aretxabaletak bere barrurako pentsatu zuen: “Ai, Makarda, ez dakik zer jende moduren artean habilen! Honekin errezatzera? Hemen dabilta gure kontra ‘pekatua’ dela eta ez dela”.

Miaketa luzea izan zen. Arratsaldeko bostetan hasi eta ez zituzten askatu hurrengo goizaldera arte. Hamabi ordu baino gehiago izan ziren baina astebete egon zirela iruditu zitzairen. Gainera, komentuan hainbeste denbora pasa ondoren kuartelera eraman zituzten, testiguak eta fraide batzuk. Lauren Aretxabaletak gogoratzen du Julian Aliendek benetan txarto pasa zuela, arduratuta zegoe-lako emaztea eta seme-alabak etxean zeudelako ezer jakin gabe. Halako batean, gehiago ezin eta jateko zerbait eskatu zuen, aurreko eguerditik ezer jan gabe zegoelako. Azkenean, agente batek sardina lata bat ekarri zion eta zabaltzean esan zuen: “Honek [sardinak] eurak baino baltzauek jazak!”, guardia zibilengatik. Hala ere, berari ez zioten ezer esan, aguazila zenez ez zuten uste ezer txarrik esango zuenik eta.

Aita Lino Akesolo prioreak protesta egin zuen salaketa egiteko eragatik eta eraman zituzten materialengatik. Bere esanetan, guardia zibilek eramandako hainbat material (testuak, idazkiak, liburuak, aldizkariak...) ez ziren inolaz ere subertsiboak, hain zuzen edozein liburu-dendetan aurki zitezkeelako. Bereziki, garai hartako zenbait komunikabidetan (Bilboko *Hierro*, Donostiako *La Voz de España*, Madrilako *Ya* eta *Vida Nueva*, etab.) agertu zen Markina-Xemeingo komentuan 8 kilo propaganda aurkitu zituztela eta 7 abade eta 4 karmeldar atxilotuta zeudela.

Aita Lino Akesolok gezurtatu egin zituen salaketa hauek, *Vida Nueva* aldizkarirako idatzitako gutun batean<sup>35</sup>. Artikulu horretan adierazten denez, guardia zibilek edozein liburu mota eraman zuten, besteak beste, Txomin Agirrerren *Garoa* famatua, XIX. mende hasierakoa eta subertsiborik ezer ez zuena, baita XVII. mendeko poesia erlijiosoko liburu batzuk ere (garai hartako liburudenda gehienetan aurki zitekeen materiala). Guardia Zibilek liburu horiek hartzeko erabiltzen zuten aitzakia honako hau zen: epaileei zegokiela, eta ez beste inori, liburutegietan eta artxiboetan gorde beharreko materiala zehaztea. Aita Linok, ordea, komentuko liburutegian edozelako liburuak egon zitezkeela defendatu zuen gogor. Liburu, aldizkari eta testu horiek postaz heltzen zitzaizkien eta liburutegian gordetzen zituzten ikertzaileentzat eta horretarako eskubidea zutela defendatu zuen Aita Linok, ikertzaileen eta kulturako langileen mesederako zela eta. Guardia Zibilek ostera ekin eta ekin ari ziren liburu haiek subertsiboak zirela esanez.

---

35. AKESOLO, Lino. “No hay ningún carmelita detenido”. In: AKESOLO, Lino. *Idazlan guztiak*. 1. arg. Larrea-Zornotza: Karmel Sorta, 1989; 1.142-1.143 or-an jasotako artikulua.

Aita Lon Arteagaren logelan atzerriko txanponak bilatu eta eraman zituzten. Aita Lonek salaketa jarri zuen Gernikako epaitegian eta berriz ere miaketan testigu izan zen Lauren Aretxabaleta eraman zuten deklaratzera. Honek esan zuen guardia zibilak Aita Lonen gelan sartu zirenean bera atean gelditu zela, gela txikiak zirenez 3-4 lagun baino gehiago ez zen bertan sartzen eta. Epaileak galde-tu ei zion: “¿Pero usted no vio a nadie allí? ¿No vio al que robó las monedas?”. Baina berak ezin erantzun; argi zegoen guardia zibilak hartu zutela diru hura, han beste inor ez zegoen eta. Erantzunez gero, ordea, arriskutan ere jarriko zen, guardia zibilak bere kontrako iritzi txarra zabaltzen zegoela usteko zuten eta.

Guardia zibilek ere ez zituzten beti horrelako miaketak ontzat ematen. Batzuk horrelako erregistroak gehiegizkoak zirela pentsatzen zuten, fraide batzuen kontra horrela egitea bidezkoa ez zela uste zutenak ere. Lauren Aretxabaletak gogoratzen du, erregistrotik denbora batera, nola ikusi zuen Markina-Xemeinen Gernikakoa ei zen koadrila bat (zeukaten euskaragatik ezagutu zuen) eta bertan komentuko erregistroan parte hartu zuen guardia zibil bat zegoela begitandu zitzaion. Guardia Zibilaren kapitaina izandakoa Markinan, baina bera ei zen moderatua: “Behin baino gehiagotan entzun nion esaten: ‘Vamos hombre! Tratar a estos pobres frailes como si fueran bandidos!’”. Taldeko batzuk euskaraz ari ziren eta hurreratuta galdetu zion bertako bati: “Hor zuekin dagoen hori guardia zibila da?”. Baietz erantzun zioten, ordurako jubilatuta zegoela baina guardia zibila izanikoa dela. Orduan bera (guardia zibila) hurreratu zitzaion eta agurtu egin zuen, berari ere aurpegi ezaguna egin zitzaion eta. Laurenek esan zion: “Usted estuvo aquí en Markina, en el registro del convento, verdad?”. Erantzuna ere argia izan zen: “Desde luego, esas cosas no son así, pero ¿qué le vamos a hacer? Mejor no decir nada”. Berari ere lotsagarria iruditzen zitzaion ezer txarrik egin ez zuten karmeldarrak horrela tratatzea.

### **3.9. ESKOLAZ KANPOKO EKINTZAK**

#### **3.9.1. Dantza taldea**

Felipe Amutxastegi 1967-68 ikasturtean hasi zen dantza taldea sortzen. “Batzordekoei esan nien banekiela euskal dantzei buruz zerbait eta prest nengoela ikastolako umeei dantza erakutsi eta talde bat sortzeko. Batzordean denak konforme zeuden horrekin”. Artibai taldeko nagusiek ere parte hartzen zuten hor; Garbiñe Arratek, adibidez, dantzak erakusten jarraitu zuen, ikastolan andereño izateaz gain. Bigarren urterako, ordea, eztabaida sortu zen: taldeko batzuk dantza taldea Markina-Xemeingo ume guztientzat izatea nahi zuten. Felipe Amutxastegik gogoratzen du nola konpondu zen eztabaida hori:

Nik argi neukan dantza taldea ikastolakoentzat bakarrik izan behar zela. Konpromiso hori hartu nuen ikastola bultzatzeko. Batzordean bozketa egin zenean 25 neure alde eta 1 kontra. Halan, Zerutxu ikastolako umeekin osatu genuen taldea.

Geroago, 1972an, euskara jakitea dantza taldean sartzeko baldintza bihurtu zen; euskaraz ez zekitenek gaueko eskolan izena eman behar zuten.



Umeen Euskal Jaia Eibarren, 1966.

Garai hartan, aurrerago esan dugun bezala, Luis Rodriguez Duralde zen Markinako alkatea. Eskola Nazionaletako maisua zenez, ikastolaren kontrakoa zen guztiz. Felipe Amutxastegik gogoratzen digu Xemeingo ezpata dantza zela eta ez zela berarekin edukitako haserrealdia. Kontua da Xemeingo ezpata dantza egiteko ezpata eta eskapularioak (Xemeingo armarrria izaten zuten hauek josita) Bazokikoak izan ziren II. Errepublika garaian. Gerra hastean norbaitek Bilbora eram zituen han gordetzeko eta Felipe bertara joan zen eskatzera.

Ikastolarako zela esan eta arazo barik eman zizkidaten. Baina baten batek, bel-durrez, eskapularioei armarrria kendu zien eta urte horretan armarrri barik egin zuten dantzan gure mutilek (11-12 urtekoak). Baina hurrengo urtean pentsatu nuen: 'Ze demontre, armarrri eta guzti'. Nire ama zanak josi zituen armarrriok eta mutilek han irten zuten Karmenetik (Osasun Etxearen paretik) dantza egitera. 'Txapelokerrak' atzetik eduki zituzten bide osoan, eskopeta eta guzti.

Beste behin, alkateak ez zien utzi Arretxinagako jaietan Xemeingo dantza egiten. Orduan ermita barruan egitea pentsatu zuten, han alkateak ez zuelako ezer esateko eskubiderik. Kontua da urte horretan Markinara etorri zela lehen anbulantzia, Gurutze Gorrikoa, Bilbotik edo.

Bertako enfermerek dantza ikustean hasi ziren esaten: 'Uy, que cosa más bonita!' eta horrelako gauzak. Orduan alkatea etorri eta kanpoan egiteko eskatu zigun. Esan nion: 'Sí, ahora vienes con ésas porque éstas te han dicho... si quieres que bailemos, una comida y 1.000 pesetas'. Eta isil-isilik ordaindu eta plazan dantzan egin genuen.



Zerutxu dantza taldeko partaide taldea, 1971.

Ikastolan erlijioa ere parte garrantzitsua zen, fraideek bultzatua izanda gehiago. Baina garai hartako giroa ere horrelakoa zen, gizartean orokorrean askoz garrantzi handiagoa zeukan eta, beraz, ez zen horrelako kontrasterik nabaritzen. Umeak astero joaten ziren katekesira ikastolatik zuzenean, adibidez. Horri lotuta, esan behar da Zerutxuren inguruan ospatu zela lehen aldiz lehenengo jaunartzea euskaraz Markina-Xemeinen. Ikastolako gurasoek ez zuten nahi beraien umeek, eskola eta katekesia euskaraz eginda, gero lehenengo jaunartzea beste era batera egiterik. Fraideek eta Zerutxuko arduradunek bultzatu zuten. Xemeingo abadeekin tirabira batzuk egon ziren, egin behar zenaren inguruan. Baina, Felipe Amutxastegik gogoratzen duenez,

[...] orduan Xemeingo parrokoa Don Elias (Lasuen) zen, gizon ona, santua... haren bitartez konpondu zen eztabaida. Ospakizunean ezpata dantza ere egin zuten ume batzuek elizan. Jendez beteta egon zen, horietako asko emozionatuta.

### **3.9.2. Eskolaz kanpoko beste ekintzak**

#### **3.9.2.1. Ikasturte amaierako mendi irteerak eta ibilaldiak**

Dantza taldeaz gain, Zerutxu elkarteak beste hainbat ekintza antolatzen zituen, beti ere euskara eta euskal kultura bultzatzeko. Horien artean mendi irte-

erak antolatzen ziren. Mendi irteera horiek ikasleen lehiaketa batzuekin lotuta zeuden. Lehiaketok ikasturtero antolatzen ziren. Ikasleek euskal kulturari buruzko idazlan batzuk egin behar zituzten eta irteera horiek lehiaketaren amaiera eta sari banaketa izan ohi ziren. 1972ko ikasturte amaieran Markina-Xemeingo baserri guztien zerrenda osatu zuten, adibidez. Ikasleek fitxa batzuk bete behar izan zituzten honako datu hauekin: baserriaren izena, bertan bizi zen familiaren abizena, Markina-Xemeingo mapan kokatzea eta inguruan zituen mendiak zerrendatzea. Datu horiek biltzeaz gain, idazlana ondo idatzita egotea ere beharrezkoa zen saria lortzeko. Txapelketan parte hartu zutenei sariez gain txapelak ere eman zitzaizkien. 1973ko lehiaketa zuhaitzei buruzkoa izan zen. 1975ean baserriko tresnei buruzkoa, 1979an Markina-Xemeingo ermitei buruzkoa, etab. Beste behin euskal ohituren bilduma, esaterako, Euskal Herrian baserriari, jaiei, ezkontzari... buruzko ohiturak bildu zituzten. Horrela umeek euskal ohiturak eta kultura ezagutzen zuten jai giroan. Helburu garrantzitsuena aurrekoen kultura transmititzea zen, guraso eta aitita-amamek umei kultura hori eskaintzea. Hori guztia, banako lanetan barik, talde lanean egiten zuten.

Jaialdi hauetarako bolanderak botatzen ziren, egunean bertan, goizeko bederatzietan gutxi gorabehera.

Baina alkatea Zerutxuren aldekoa ezenez, bolanderak Abixuko zubitik botatzen genituen. Toki hori Etxebarriko lurra denez, Markinako alkateak ez zuen ezer esatekorik. Behin bolanderak entzunda, guretako guztiok jotzen genuen mendira.

dio Felipe Amutxastegik. Irteera horietara andereñoak ere joaten ziren baina batez ere batzordekoen esku izaten zen antolakuntza guztia.

Udako kanpaldiak edo koloniak ere antolatzen zituen Zerutxuk. Ekintza hauek erabakitzeke orduan beste ikastolekin harremanak zituzten arren, ibilaldi hauek ikastola bakoitzaren kontua izaten ziren. Andereñoak eta laguntzaile batzuk joan ohi ziren bertara, ikastolako ume guztiekin. Mari Karmen Egañak gogoratzten duen bezala,

[...] inork ez zuen eragozpenik jartzen. Ikastolan zeuden ume guztiak etortzen ziren eskolako beste ekintza bat izango balitz bezala. Nafarroako herri txikietara joaten ginen, justu-justu okina pasatzen zen leku batera. Eta noski, ez telefonorik, ez mugikorrik ezta osterantzekorik gabe.

Andereñoak opor egun horien aurretik tokia ikustera joaten ziren eta egin beharreko ekintzen plangintza zehatza prestatzen zuten. Eguraldi txarra egiten zuenerako aterperen bat zegoen lekuak bilatzen zituzten. Ekintza gehienak, horrelako tokietan ohikoa denez, kirola, jolasak eta horrelakoak ziren, beti ere euskaraz. Kolonia horietan, adibidez, umeak taldeka jartzen zituzten eta bertsoak edo koplak asmatu behar izaten zituzten bertako sukaldariei eta laguntzaileei eskerrak emateko.

### **3.9.2.2. Euskal kultura bultzatzen egindako lanak**

Zerutxuren lorpenetako bat Markina-Xemeinen Gabonetan Olentzero prestatzea izan zen. 1975erako jendeak Olentzeroren aldeko hautua egin zuen, Erregeen kabalgata antolatzea baino egokiagoa zela ikusiz. Alde batetik euskal mitologiako pertsonaia zenez, euskal kultura bultzatzeko bidea izan zitekeen. Bestetik, Olentzeroren eguna Gabon Gauean ospatuta, haurrek jolasteko denbora gehiago izan zezaketen, ikastolara behin Errege Eguna pasatuta itzultzen ziren eta. Prestakuntza egiteko ikastolan Olentzerori buruzko ipuinak eta abestiak irakatsi zitzaizkien umeei eta diseinua Kili-Kilikoen laguntzaz egin zen.

Euskal ohiturak bultzatzeko joera horretan, Santa Ageda bezperan kantatzera ere irteten ziren; lortzen zuten dirua, ikastolari laguntzeko ez ezik, behar larriagoan zaudenei laguntzeko ere erabiltzen zuten: 1977an, adibidez, 42.000 ogerleko lortu zituzten eta hortik 20.000 Caritasi eman zizkioten. Beste ekintza batzuen artean soinua eta txistua ere irakasten ziren; lehenengoan Martin Alberdi zen irakaslea eta bigarrenengan Imanol Aretxabaleta. Irakasle hauek ia ezeren truke egiten zuten lan hori. Baldintza bakarra euskal kultura eta euskaltzaletasuna bultzatzea zen. Gaueko eskolako irakasleek sarritan lana dohain egiten zuten umeei euskara, euskal historia, kondaira, geografia, gramatika, abestiak... irakasten. Gau eskola honetara Zerutxu ikastolan ez zebiltzan gazteak etortzen ziren.

Dantza taldeak orain arte jarraitu duenez giro horretan sortutako guztitik iraun duen bakarrenetakoa izan da. Hala ere, ez da historia arazo gabekoa izan. Alde guztietatik jaso izan ditu erasoak. Behin baino gehiagotan sartu ziren guardia zibilak Zerutxuren lokalean, erregistroak egiteko. Baina ez erregistroak bakarrik: "gau batean lokalean sartu eta gure armairuan pintadak egin zituzten, 'Viva la Guardia Civil' eta antzerakoak ipinita". Beste behin ezpata guztiak karmeldarren ortuan zegoen putzu handi batean (3-4 metrokoa) botata topatu zituzten. Urpekari bat etorri behar izan ei zen ezpata guztiak banan-banan ateratzeko.

Zerutxu dantza taldea 1970 urte inguruan hasi zen herritik kanpora joaten. Euskal Jaietara joaten ziren hasieran. Lehenengoa Eibarren izan zen. "Dirurik ez geneukanez, bakoitzak berea ordaindu behar izan zuen: umeez bosna pezeta eta nagusiek (geuk ere bai, arduradunok) hamabosna. Eta horrela autobusa lortu genuen". Eibarren ikusi zuten Zerutxu talde ona zela, bertakoek dantzan ondo egiten zutela. Horrek errezeloak sortu zituen alkatearengan eta urtebetez kanpora joatea debekatu zien. Orduan izen gabe joaten ziren.

1975eko uztailaren 27an Euskal Jai antolatu zen Markina-Xemeinen. Euskal Jai hauek dantza taldeen bilerak izan ohi ziren. Gasteizen itzelezko lekua izaten zen eta antolakuntza on-ona izaten zen, baina "Gasteizen atzetik Markinakoa zen onena" gogoratzen du Felipe Amutxastegik; herri txikia izan arren, zelai ederra zeukan herri erdi-erdian eta bertan egiten ziren dantzak. Gainera, kanpotik zetozen umeei jaten emateko familia askok eman zuten izena.

Jai horretan Mertzede deko ikastetxeko patioan elkartu ziren dantza taldeetako kideak eta handik Xemeinera joan ziren meza entzutera. Meza ostean, umeei jateko zerbitu eman zitzaien Xemeingo eliza aurrean eta hantxe zauden guztiak jarrita.



Zerutxu ikastolako umeak Santa Ageda abesten, Garbiñe Arrate eta Tere Maiztegi andereñoekin, 1972.



Zerutxu ikastolako andereñoak eta ume batzuk Inauterietan mozorrotuta. Andereñoak: Mari Kruz Ansola, Tere Maiztegi, Garbiñe Arrate eta Mari Karmen Ibarzabal. Umeak: Koldo Ibarzabal eta Eider Maguregi, 1980.



Halako batean, bonba abisu bat egon zen, Eskola Laborala eta zine tokia zeuden lekuan bonba bat zegoela esanez, ETaren izenean. Ume guztiak Xemeinen, ezin mugituta, denak arduratuta... artifizieroak etorri ziren arte. Azkenean alarma faltsua izan zen.

1976an ere jaialdi bere errepikatu zen. Urteak pasata, jende berria sartu zen udaletxean eta esan zuten jaialdi hori gastu handia zela urtero antolatzeko. Orduan pixkanaka galtzen hasi zen, guztiz desagertu arte.

Markina-Xemeingo Karmen jaietan ere (herriko jai nagusiak), Zerutxu elkarteak eragile garrantzitsua zen. Garai hartan arlo kulturala aurrera eramaten zuen bakarrerenetakoa zen behintzat. Horrela beraien eskaerak jaiei lotuta egiten zituzten. Ikastolara sartzeko, adibidez, goiko aldetik atea zabaltzea nahi zuten, horrela fraideei trabak kentzeko. Izan ere, ikastolara sartzeko umeak egunero komentutik pasa behar ziren eta batzuetan zarata ateratzen zuten. Horren aurrean, dantza taldekoek esan zuten atea zabaltzen ez bazen ez zutela Karmen egunean aureskurik egingo. Azkenean lortu zen eskakizun hori betetzea, baina eztabaida handien ondoren. Felipe Amutxastegik 3-4 urtetan Karmen egunez eskutitz anonimoak jaso zituen, "hipokrita nintzela esanez, gauza bat pentsatu eta gero bestea egiten nuela, eta horrelako gauzak". Geroagoko urteetan ekintza gehiago antolatzen zituzten Karmenetan; taberna edo txosna, umeen eguna, euskal jaia...

### **3.9.2.3. Zerutxu aldizkaria**

Zerutxu elkarteak "Zerutxu" izeneko aldizkaria kaleratu zuen 1977ko urrian hasita. Aldizkari horretan ikastolako eta Zerutxu mugimenduko berri ematen zen. Akta liburuan agertzen denez, "heziketari buruzko gaiak landuko dira. Euskara erraza erabiliko da baina baturako bidea jarraituz". Markina-Xemeini buruzko artikulak, berriak, Zerutxu elkarteko taldeen ekintzak eta umeek ikastolan egindako lanak jasotzen ziren bertan. Aldizkaria 10 pezetatan saltzen zen eta helburua ahalik eta irakurle kopuru handiena lortzea zen. Azken kezka hau behin baino gehiagotan errepikatu zen, besteak beste ikastolako umeen gurasoei harpidedun bihurtzeko eskatuz eskutitz bana idaztea erabaki zuten eta.

### **3.9.2.4. Zerutxu ikastolaren plangintza**

Zerutxu aldizkaria hasieran hilean behin ateratzen zen arren, denbora aurrera joan ahala maiztasuna gutxitzen joan zen. Aldizkari honetan Zerutxu ikastolaz eta mugimenduaz ez ezik, beste gai batzuetaz ere hitz egiten zen: bertan zehazten dira, besteak beste, Zerutxuk inguruko beste eskolekin (Mertzedeko ikastetxea eta orduko "eskola estatalak") eta inguruko herrietako ikastolekin (Bolibar-ko ikastola eta Aulestiko *Urregarai* ikastola) zituen harremanak; azken hauek Zerutxu elkartearen eraginez sortu ziren. Ikastola hauen guztien helburua ordura arte nahiko urria zen 3-6 urte bitarteko umeen eskolaratzea bultzatzea zen (euskaraz, noski). 1982rako Markina-Xemein eta inguruko herrietan (Etxebarria, Bolibar, Aulesti, Munitibar, Amallo-Larruskain...) umeen %80a eskolatzea lortu nahi izan zuten, eta horietatik %85a euskaraz matrikulatuta egotea. Helburu hori lortzeko 1977-1982 bitarteko plangintza zabala osatu zuten, urtez urte bete beharreko kopuruekin:



# ZERTXV

ILLA URRILA (1977)

ZENBAKIA 1..

markina eta inguruetako haur-ikastolaren barriak

## HERRIARI BEGIRA

Iraillean eman zaio amaiera epe luzerako egin den plangintzari. Epe luze hau bost urtekoa izango da: 1977tik 1982ra bitartekoa. Planginta honetan, Markina eta inguruetako eskolaurrea eta E.G.B. aztertzen dira. 14 urte arteko heziketa, beraz. Herriak, berriz, Markina, Etxebarri, Aulestia, Munitibar, Laruskain eta abar.

Zenbakietara goaz, hona hemen ondorenak: 3 urtetik 6ra bitarteko umetatik % 54 bakarrik doaz eskolara. Eta 54 hauetatik 33k euskal heziketa dute.

Euskararen arazoa oso larria da gure eskualdean. % 33 bakarrik dira euskal giroko heziketa artzen dutenak. Beste 67ak, erdal-eskolaren indarrez geroago ta gehiago erdaldunduz doaz. Horrela ikastolarenahalegina ia-ia fruiturik gabe geratzen da.

Herritar guztiak arazo honen berri jakitea derrigorrezkoa da, erantzun egoki eta jator bat eman ahal izateko. Ahalbait gehienek izan dezatela ikastolatan leku.

Lehen eman diren zenbakiak azterturik zera ikusten dugu: erdiak inguru, esko laurretik (pre-eskolarretik) pasatu gabe doazela E.G.B.ara. Tamalgarri eta kaltegarria umearentzat!! Sikologoek diotenez, oso garrantzitsua da etapa hori. Orduantze jartzen dira geroko bizitzaren oinarriak. Adin horretan ar tzen ditu gerorako jokaera sakonenak.

Gauzak honela, helburu bi izan ditugu kontuan: ume gehiago eskolaratzea eta euskal heziketa ere gehiagori ematea.

	1976-77	77-78	78-79	79-80	80-81	81-82
- Jurtetik 6arteko umeak	408	415	440	450	460	470
- Eskolatuak %	% 54	% 58	% 63	% 67	% 75	% 80
- Zenbat ume	220	241	277	302	345	376
- Euskeratuak	% 61	% 65	% 70	% 75	% 80	% 85
- Zenbat ume	134	157	194	227	276	319
- Gelak	5	6	6	7	9	10

Urrengoko zenbakian ikusiko dugu nundik doazen umeak ikastolara, eta zer igarotzen dan 6 urtetik aurrera.

Zerutu aldizkariaren lehen alearen portada, 1977ko urria.

### Zerutxu ikastolaren 1977-1982 plangintza

	1976-77	1977-78	1978-79	1979-80	1980-81	1981-82
3-6 urteko umeak	408	415	440	450	460	470
Eskolatuak (%)	%54	%58	%63	%67	%75	%80
Eskolatutako kopurua	220	241	277	302	345	376
Euskaraz (%)	%61	%65	%70	%75	%80	%85
Euskaraz kopurua	134	157	194	227	276	319
Euskarazko gelak	5	6	6	7	9	10

Iturria: Zerutxu aldizkaria, 1. zbkia. (1977ko urria)

Bolibarren eta Aulestin ez bezala, Larruskain-Amallo auzunean ume gutxi zeudenez, Markinako ikastoletara etor zitezen autobus zerbitzua jarri zuten.

### 3.10. KARMELDARREN KONPROMISO ARGIA ZERUTXUREN ALDE

Ikastolako eta Batzordeko kideen arabera, fraide karmeldarren laguntasuna ezinbestekoa izan zen mugimendu hori guztia aurrera eramateko. Aurrerago esan den bezala, diktadura garai hartan Elizako elkarte eta komunitate erlijioso batzuk kulturaren eta euskararen babesle izan ziren, hain zuzen jendaurrean egin ezin ziren hainbat ekintza ezkutuan burutzeko aukera eman zutelako. Horretan, Markina-Xemeingo karmeldarren komentuak ere ahalegin handia egin zuen, bai ikastolari zegokionez, baita beste ekintza batzuetan ere (tartean, geroago aipatuko den Bertsolari Eguna, adibidez).

Elizaren barnean, 1960-1970 urteetan, aldaketa garrantzitsuak gertatu ziren. Aurretik aipatu dugu Vatikanoko II. Kontzilioak (1962-1965) Elizarentzat ekarri zuen eraberritzea; hainbat alorretan Elizak gizarte garaikidearekin elkarriketa sakona hasteko nahia erakutsi zuen. Gogo horren baitan mugimendu ugari sortu ziren, Askapenaren Teologia deiturikoa, adibidez. Mugimendu hau jatorriz Hego eta Erdiko Amerikakoa izan zen eta bere helburua Kontzilioak egindako aurrerapausoak Hirugarren Munduaren beharretara egokitzea zen (justizia eza, gosea, gutxieneko eskubideen ukapena...). Askapenaren Teologia hau, Amerikakoa izan arren, Europara ere hedatu zen eta bertako Elizako zenbait sektoretan oihartzun handia izan zuen. Euskal Herrian ere, bertako giroa kontuan izanda, Elizaren oinarriko talde ugari izan ziren joera honetakoak; Elizaren eta Ebanjelioaren mezu askatzailea Euskal Herriaren egoerara egokitu nahi izan zuten, bertako bidegabekeriak salatu eta beste egoera hobea bat sortzeko.

Xabier Amurizak Kontzilio osteko lehen urteak Gizaburuagan igaro zituen abade. Bere parrokiak gain, eskualdeko zenbait talde eliztarren gidari ere aritzen zen garai hartan. Talde horiek Eliza Katolikoaren goi karguek Euskal Herrian eta Espainian zeukaten jarrerarekin ez zetozen bat eta, gorago aipatu den bezala, kristautasunaren mezu askatzailea Euskal Herrian sustraitzea nahi zuten. Berezik Oндarroako talde batek eztabaidak zituen garai hartako parroko ondarruta-

rrekin, ikuspegi horiek zirela eta. Garizuma garaian ohikoak izaten ziren gogo-jardunak, Aste Santua gertatzeko otoitzaldi eta elizkizun bereziak; hauek gehiengotan eliztar talde batek abade edo erlijiosoren baten gidaritzapean egiten zituen, parrokiako geletan normalean. 1967-68 urteetan, esan dugunez, Ondarroako zenbait eliztarrek bertako parrokoekin eztabaidak zituzten, azken hauek jarrera oso kontserbadorea erakusten zuten eta. Horregatik eliztar horiek Xabier Amuriza eta Alberto Gabikarengana jo zuten gogo-jardunak Ondarroako parrokiatik kanpo egin nahian. Xabier Amurizak berak gogoratzen duenez, “denbora baten non egin erabaki ezinik egon ondore Markinako karmeldarretara etortzea iruditu zitzaigun egokiena.” Bertso Egunari buruzko atalean jartzen denez, 1963tik hasita karmeldarrek urtero bertsolarien bilera antolatzen zuten Pilarika egunez. Horren bitartez, Amurizak harremana zuen beraiekin eta bazekien karmeldarrek zer nolako konpromisoa zuten euskara eta euskal kulturarekiko.

Talde hartako eliztarrek, kristau betebeharrak (elizkizunak, otoitzak, predikazioa...) behar bezala egin nahi zituzten baina beraien joera erabat kontestatarioa zen Elizaren hierarkiaren eta agintari politikoen aurrean. Amurizak hori gogorarazi zion Aita Migel Mariri, orduan komentuko priore edo buru zenari, baina azken honen erantzuna eskuzabala izan zen: “Gu ez gara sartuko zuen kontuetan. Zuek gogo-jardunak egin nahi dituzue eta horretarako leku bat eskatu duzue: Zelan ez dizuegu ba emango?” Gogo-jardun horretako saio bakoitzera autobuskada bi bete lagun etorri ziren.

Horrek susmoak sortuko zituen agintarien artean, baina ez dirudi karmeldarrei inork ezer esan zienik. Izan ere, garai hartan fraideak beraien bizitza egiten zuten eta ez zuten harreman handirik izaten beste elizetan (parrokietan) zeuden abadeekin.

Bere arabera, hori izan zen karmeldarren konpromisorik handieneko gertakaria. Ezin zuten esan ez zekitenik gogo jardun hauek zein eratakokoak ziren:

[...] abade biok (Gabika eta Amuriza) fitxatuta geunden ordurako eta Ondarroako parrokiatik ez bazen, Gotzaindegitik zerbait esango zieten. Markinan zegoen kontrola eta agintari falangistak, kuartela... dena inguruan eta egunero autobuskada bi Ondarroatik, zeresana emango zuten.

Zerutxu ikastola komentuan izateak ere gorabeherak sortzen zituen karmeldarren artean. Gaztetxoek sarri okerkeriak ere egiten zituzten, hala nola, fraideen ortura joan eta sagarrak ostu. Behin gainera, ume bat elizan organoa jotzen hasi ei zen. Aita Jenarok (jaiotzaz Hilario Larruskain, Makarda baserrikoa, Markina-Xemein, 1914-1988) haserre egiten zien sarri-sarri, baina hurrengo egunean berriro atea zabalik zegoen ikastolakoentzat eta dantza taldekoentzat. Aita Juantxu (Juan Iturregi, Mungia, 1910- Markina-Xemein, 2004) ere sarritan haserretu zen umeen okerkeriak zirela eta, baina hurrengo egunerako arpegia guztiz aldatzen zitzaion. Aita Lon Arteaga karmeldarren liburutegiko arduraduna zen eta kulturari edo dantzei buruzko liburuak uzten zizkion Felipe Amutxastegiri, gauza gehiago prestatu ahal izateko. “Edozer eskatuta, hurrengo egunerako topatzen zuen zerbait eta etxera eramateko ematen zidan. Haiek bueltatzekoan beste zerbaitekin etortzen zen, egunero zerbait berria topatzen zuen eta”.

Hala ere, garai hartarako fraide gehienak guztiz euskaltzaleak ziren Markina-Xemeingo Karmenen. Horrela, fraide gehienek ikastola babesten zuten eta bertako jardunaz arduratzen ziren.

Aita Juantxu (Iturregi) egunero etortzen zen ikastolara. Altueraz txikia zenez, ez zuen zaratarik ateratzen ibiltzean, eta ez genuen jakiten noiz zetorren. Isil-isilik atea zabaldu eta ume guztiak beldurtzen ziren hasieran, sustoa hartzen zuten eta. Baina geroago ohitu egin ziren. Ondo-ondo konpontzen ziren elkarrekin.

gogoratzen du Garbiñe Arratek.

Aita Emilianok (jaiotzaz, Julian Barandiaran, Eskoriatza, 1904- Markina-Xemein, 1967) musika irakasten zuen, pianoa eta txistua, eta musika ikasteko liburuxka bat kaleratu zuen euskaraz. Hala ere, bere lan gehiena komentu barrurako izaten zen: “herritarrekin ez zuen harreman handiegirik, korukoekin edo musika ikastera etortzen zirenekin gehienbat. Gainera meza gutxi ematen zituen, normalean organoa jotzen aritzen zen eta”, diosku Luis Baraiazarrak. Bere lanik ospetsuenetakoa Bach-en “Toccatà y fuga” lana txisturako moldatzea izan zen. Aurkezpen kontzertua Ansola anaiek egin zuten Bilboko Areatzako kioskoan eta oihartzun handia izan zuen, baita garaiko zenbait egunkaritan ere<sup>36</sup>.

Aita Emilianoren heriotzaren ondoren etorri zen Aita Jose Domingo Santa Teresarena (jaiotzez, Francisco M<sup>a</sup> Ugartetxea, Markina-Xemein, 1888-1980). Honek musikari bultzada handia eman zion Markina-Xemeingo Karmenen. Bertokoa izanik, harreman estuagoa zuen kaleko jendearekin, baina horrek ez zuen eragozten kultura handiko pertsona izatea. Umetako eta gaztetako anekdotak kontatzeko ere erraztasuna zeukan: “Markinako istorioak, bere ume denborakak, hainbestetan kontatuta, buruz zekizkien. Baina kuriosoena da beti hitz eta esaera berberak erabiltzen zituela istorio bera kontatzeko. Grazia itzela zeukan horretan” oroitzen du Luis Baraiazarrak. Dantza talderako eta jaialdietarako bertsoak, abestiak... konposatzen zituen eta askotan berak zuzentzen zituen abeslariak. Felipe Amutxastegik kontatzen du: “gogoratzen naiz zelan ibiltzen zen jendea zuzentzen, Santa Agedarako, Gabonetarako... bertsoak eta abestiak ere prestatzen zizkigun askotan”.

Zerutxu elkarteak bere urtebetetze egunean pattar botila eta txokolatzeko bonboien kaxa bat oparitzen zizkion bere laguntasuna eskertzeko, asko gustatzen zitzaizkion eta. 1976an omenaldi herrikoi bat egin zitzaion; Xemeingo parrokiari herriko Udalaren partaidetzaz, Durangoko orfeioaren laguntzaz eta zenbait bertsolariren partaidetzaz meza nagusia ospatu ondoren Zerutxu taldeak omenaldiko aurrekua dantzatu zuen. Frontoian bertsolariez gain, Ansola anaiek eta Zerutxu taldeak ere parte hartu zuen. Mertxe Zelaiak aurkeztutako ekitaldi horretan Pedro Azkune jarduneko alkateak eta Jabier Matute zinegotziak bordatutako txapela eman zioten Udalaren izenean eta Bizkaiko Aurrezki Kutxak musika apa-

---

36. Bilboko Areatzan 1960ko abuztuan estreinatu zen pieza hori. Geroago, 1969an, Ziotza-Bolibar eta Markina-Xemeinen arteko batasuna ospatzeko egindako ekitaldian ere jo zuten, maiatzean hain zuzen (iturria: El Correo Español-El Pueblo Vasco, 1969-05-09).



Markinako ereserkia aurkezteko ekitaldia. Ezkerretik eskuinera: Aita Bizente Batiz karmeldarra (letraren egilea), Jabier Matute, Ane Mendizabal, Pakita Ugarte, Aita Jose Domingo Ugartetxea karmeldarra (melo-diaren sortzailea) eta Pedro Azkune (garai hartan Markina-Xemeingo alkatea), 1977ko urtarrila.

ratu bat eta Bach-en lan guztien bilduma oparitu zizkion. Ez da ahaztu behar, beste hainbat lanen artean, Bizente Batiz karmeldarrak idatzitako “Markinako herriari ereserkia” olerkiei eta kalejirari berak ezarri zuela doinua. Ereserki hori lehen aldiz jendaurrean egun horretan abestu zuten Zerutxuko gaztetxoek, Ansola anaien txistuaz lagundurik<sup>37</sup>. Aita Jose Domingo bera pozik gelditu zen, nahiz eta Zerutxu elkarteko aktetan agertzen denez<sup>38</sup>, Etxano jatetxean egindako bazkariara pentsatu baino lagun gutxiago bertaratu.

Karmeldarrak mugimendu honen guztiaren bultzatzaile garrantzitsuenak izan ziren. Hasieratik aipatu da nola bultzatu zituzten herriko euskaltzaleak ikastola eta bere inguruan hazitako talde guztiak sortzera. Lokalak ere beraiek jarri zituzten hasieran, kontzejupea berritu behar zenean eta gero, ikastola kontzejupeetik kanporatu zutenean. Gurasoek egindako batzar gehienetan parte hartzen zuten, bai Aita Migel Mariak edo baita Aita Luis Baraiazarrak ere. Inoiz ez zuten aitzakiarik jartzen batzar horietan proposatzen zirenak aurrera eramateko. Askotan batzordekoek edo andereñoek proposatutakoaren osagarri jartzen zituzten aurreragoko planteamenduak. Zerutxu elkarteak konfiantza osoa sentitzen zuen fraideei behar zen guztia eskatzeko.

---

37. Omenaldi horren kronika garai hartako “El Correo Español-El Pueblo Vasco” egunkarian jaso zen (1976-12-10)

38. 1977ko urtarrilaren 17ko akta.

### 3.11. ZERUTXU ETA BERA KRUZEN ARTEKO BATASUNA

Zerutxu ikastolak edukitako oztopo garrantzitsuena herrian zeuden beste bi ikastetxeak ziren: Eskola Nazionalak eta Mertzedeako Bera Kruz ikastola. Herri txikia izanik hiru ikastetxe mantentzea ezinezkoa zen, baina ez ume faltagatik; ikastolan gero eta ume gehiago zebiltzan, hasierako urteetan 15 inguru izatetik 70 hamarkada hasierarako 60 ume gotera pasa ziren.

1970ean Villar Palasí ministro espainiarrak hezkuntzako erreforma garrantzitsua bultzatu zuen Hezkuntzako 14/1970 Lege Orokorraren bidez. EGB edo OHO (Oinarritzko Hezkuntza Orokorra) sortu zen. Bera Kruzen barnetegia itxi behar izan zuten horregatik, ikasleak gutxitu egin ziren eta. Urte horretatik aurrera, pixkanaka euskara sartzen hasi ziren Bera Kruzen, beti legeak uzten zuen zirrikitu apurretatik. Zehazki, 14/1970 legeak OHO mailan ikasi beharreko arloak zehaztu zituen: hizkuntza “nazionala” (gaztelania), atzerriko hizkuntza eta, hala dagokionean, tokiko hizkuntza (kasu honetan euskara); erlijioa; gizarte eta kulturaren ezagutza (bereziki Espainiakoa); matematika, fisika eta mekanikako oinarriak; eta geroagoko hezkuntzarako (Batxilergorako edo Lanbide Heziketarako gehienbat) baliozko izan daitezkeen beste ikasgai batzuk<sup>39</sup>.

Luis Baraiazarra horrelaxe sartu zen 1971n. Bigarren mailako umei (7-8 urtekoei) ematen hasi zen.

Dolores Garcia orduko zuzendariak uste zuen egokia zela adin horretako umeen maisua erlijiosoa izatea, bide batez lehenengo jaunartzea egiteko prestatzeko [...]. Ni B taldeko maisua nintzen eta goizetan nire ikasleei ikasgaiak euskaraz ematen nizkien. A taldeko andereñoa moja zen, hermana Amelia, eta hark erdaraz ematen zien goizetan bere ikasleei. Arratsaldetan aldatu egiten ginen; nik bere ikasleei euskara eta beste ikasgairen bat ematen nien eta berak nirei gaztelania eta beste zerbait. Gaur egun B eredu a dena edo A indartua izango litzateke.

Horrela, lehenengo mailatan euskarazko hezkuntza zabaltzen joan zen, baita nagusiagoen artean euskara ikasgaia ere. Garai hartan Zerutxu eta Bera Kruz batzeko lehen ahaleginak ere egin ziren. Mertzedeako komunitateak jartzen zuen baldintza garrantzitsuena honako hau zen: politikarik ez sartzea, hau da, batasuna egitean Bera Kruz ikastola bihurtzea baina zentzu politikorik gabe, legea betez. Lauren Aretxabaletak gogoratzen du orduko moja batek esaten zuena:

Leonor Larrañaga zen Mertzedeako mojen burua sasoi hartan. Bilbokoa edo Deustokoa zen. Ikusten dudak bakoitzean esaten dit: ‘Ay, Lauren, cuando vosotros veníais a donde mí, con el tema de Zerutxu, lo mal que pasaba yo, qué apuros pasaba...’

Antza denez, ikastolaren kontuak ez zituen ondo ezagutzen eta beldurra sentitzen zuen gai horretan. Euskara eta euskal kultura umei irakastea politika egitea zela uste zuen eta horrek ardura berezia sortzen zion.

---

39. Hezkuntza Orokorrari buruzko 14/1970 Legea, 17 art.

Zerutxuk haur hezkuntza emateko eskubidea zuenez bakarrik, horkoa amaituta ikasle gehienak Bera Kruzera joan ohi ziren ikasketak jarraitzera. Gurasoek Mertzedeke ikastetxea oso gune erdalduna zela ikusten zuten, euskaldun gutxi egonda giroak irentsiko zituela uste zuten, eta horregatik nahi zuten jende guttiz euskalduna ere hor sartzea. Joera politiko eta ideologikoei dagokienez, Bera Kruzen era guztietako jendea zegoen. Felipe Amutxastegik gogoratzen du “Carrero Blanco hil zutenean, gure semearen andereñoak umeei esan zien hori bekatu handia zela, bere alde errezatu behar zela, eta horrelako gauzak”. Irakasle batzuk ez zuten ikastola ikusi ere egin nahi, baina hala ere bazeuden ikastolaren aldeko irakasleak ere “asko lagundu zigun jendea ere bazegoen, Pakita Ugarte adibidez”. Baina gurasoak izan ziren Bera Kruz pixkanaka ikastola bihurtzea lortu zutenak. Horrela, 1975-76 ingururako OHO gehiena euskaraz ematen zen.

Horrela Zerutxu eskolaurrea bihurtu zen. 3 urtetik 6 urtera bitartekoak zeuden bertan, hori amaitzean gehienak Bera Kruzera jotzen zuten. Bera Kruzen hezkuntza elebiduna ematen zen, eskolaurretik hasita aurrera. Zerutxuko gurasoek ez zuten nahi beraien ume txikiak (3-6 urtekoak) hezkuntza elebiduna jasotzea, euskara hutsezkoa baizik, eta orduan 3-6 urte bitartekoak gelditu ziren Zerutxun.

Eskolaurrea ez zen derrigorrezkoa eta agintariek ez zuten hainbesteko kontrolik ezartzen. Gainera, Bizkaiko eta Gipuzkoako ikastolak urte haietan elizaren babespean gelditu ziren; hain zuzen, 1972an “Euskal Katekesia” deiturikoaren oinarriak ezarri ziren, ikastola gehienetan erabili zen figura legala hain zuzen. Zerutxu ikastolaren sarreran ere plaka berria jarri zuten: “Zerutxu: Catequesis Parroquial”. Bilboko Elizbarrutiak emandako definizioaren arabera, “Euskal Katekesia”:

Parrokia edo parrokia arteko erakunde bat (da), zuzenean Elizaren menpean sortua kristau heziketarako (fede emaila eta garatzaile) herriko bertako hizkuntzan (euskaraz) eskolar joateko adinera heldu ez zirenentzat (hirutik bost urtera bitartekoak) edozein arrazoi zela eta eskolaurrea duten beste ikastetxe batzuetara joaten ez direnentzat<sup>40</sup>.

Horrela, Elizak emandako babesari esker loratu ziren ikastolak. Markina-Xemeingo ikastolaren kasuan, aurretik ere Elizaren (kasu honetan fraide karmeldarren) babespean sortutako ikastola zenez, ez zuen funtzionamenduan aldaketa handirik jasan. Ofizialki, katekesia parrokiaren ardura zenez, ikastolak herriko parrokoaren zuzendaritzapean izan ziren, baina hau ikuspegi formalari dagokionez bakarrik; izan ere, Zerutxu ikastolak batzordearen gidaritzapean jarraitu zuen. Parrokiaren eta Elizaren onspena kristau heziketari lotua zegoen gehienbat; ikastolan burutzen zen heziketa erlijiosoa parrokoak onartu behar zuen. Praktikan agintarien aurrean ordura arte izandako arazoak baretzeko balio izan zuen.

---

40. Honako lan honetatik jasotako aipamena: ARRIEN, Gregorio. *Bizkaiko ikastolak, 1957-1972: Beren hasiera eta antolaketa*, 1. arg. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1993; 264 or. (edizio elebiduna).



Lehen Hezkuntzako mailek Bera Kruzekin bat egin ondoren, 1977an, eskolaurreko lehen urteko umeek (2 urtekoak) Karmengo komentuko lokaletan jarraitu zuten, Mari Karmen Ibarzabal andereñoarekin. Hiru, lau eta bost urteko umeak, Garbiñe Arrate eta Tere Maiztegiarekin, lehenagoko herriko eskolak izan ziren lekura jo zuten<sup>41</sup>. Erabaki hau behin ikastolak legezatu ondoren (1978an) hartu zen; eskola “nazionala” edo publikoa Bekobentara eraman ondoren.

Karmeldarretan zegoen lokalak historia berezia zuen Zerutxurentzat. Betiko lokala zen, urte asko zeramatzaten bertan eta. Gainera, ikastolaren ondoan zeuden lurretan umeek jolasteko leku egokia zeukaten lau-lau jarrita eta zinburu batzuekin. Aldapa txiki bat zegoen eta umeak han ibiltzen ziren gora eta behera. “Mendira goaz” esaten ei zuten hara jolastera joaten zirenean. Fraideen ortua alanbrez itxita zegoen arren, dena ikusten zuten, arbolak, ortuaria... Tere Maiztegiak dioen bezala: “umeentzat leku on-ona zen jolasteko, gaur egun guztiz asfaltatuta dauden patioak baino hobea”.

Lokal berriak (frontoi ondokoak) eskola izateko prestatuak zeuden, aurretik herriko eskola bertan egon zelako. Gelak handiagoak ziren eta argiztapen hobea zuten (leiho handiagoak). Gela batetik Zelaia ikusten zen eta beste aldetik Murganeko basoa. Tere Maiztegiak gogoratzen duenez,

[...] atzeko gelatik patiotxo batera joaten ginen. Han txabolatxo batzuk egin zituzten gurasoek, eta animalia batzuk izan genituen bertan, umeek animaliak zaintzen ikasteko, eperrak adibidez. Lantzean ume batzuk etortzen ziren nirekin eta arrautza batzuk hartzen genituen gero tortilla egin eta jateko.

Horrekin umeek gauza asko ikasten zituzten: euren etxeetan sarritan jaten zituzten tortilla edo arrautza frijituak nondik zetozen eta animaliak zaindu eta errespetatzeko beharra ikasten zuten. Horrela umeak ikusten zuten animaliak zaindu behar zirela, ez izaki bizidunak zirelako bakarrik, baita gure eguneroko janaria beraiengandik hartzen dugulako ere.

Zerutxu aldizkarian honela jaso zen animaliak jartzeko ideia hori:

[...] Orain arte egin ez ditugun saio edo aproba batzuk egiteko asmoa dugu. Horretarako, plazako ikastolaren atzean toki egoki bat atondu nahi dugu. Jolastoki bat izango da bere jolas-tresna ta guzti. Baina era berean, abereak eta landareak jarriko ditugu, umeek haiekin harreman izan dezaten.

Abere asko ipiniko ditugu: oiloak, untxiak (konejuak), usoak... animalien bizitzaren berri eguneroko esperientziaz ikas dezaten. Baratze bat ere jarriko dugu, lorak zaintzen ikasiz batera, eguneroko janari asko (barazkiak) nola lurretik datozen jakin dezaten. Fruta-arbola eta beste gauza asko ere sartuko ditugu. Honela, jolas antzera, bakoitza bere zeregintxoak egitera ohituko da txiki-txikitatik. Eta bizimodua nolakoa den hobeto jabetuko dira.

---

41. Gaur egun Markina-Xemeingo biblioteka dagoen lekua.



Zerutxu ikastolako patioa, karmeldarren komentuan, 1971.

Guzti honek, teknika bat eta esku ona eskatzen du andereñoen aldetik, baina eginez-eginez errez moldatuko dira barruan daramatena hortxe jartzera, eta bientzat mesede: bai andereñoentzat eta bai haurrentzat<sup>42</sup>.

Hori ere gurasoen ekarpena izan zen. Gurasoak garrantzia handia ematen zioten umeak inguruarekin harreman zuzena edukitzeari, kultura eta ohitura aldetik behinik behin. Edozertarako prest agertzen ziren, ikastolan sortzen ziren premia guztiei aurre egiteko. Eskolarako materiala ekartzeaz ere arduratzen ziren, edozelako premiari egonez gero.

Goragoko mailetako umeak (lehenengo mailatik aurrerakoak) urte hartan Bera Kruzera pasatu ziren, Begoña Isasi eta Mari Karmen Egaña andereñoekin. Aldaketa hau ez zitzaien erraza iruditu. Bera Kruzaren egin zuten lehen urtean neskak eta mutilak bereizita ikasi behar izan zuten. Horrek ikastolako eredu apurtzen zuen, Zerutxun beti neskak eta mutilak elkarrekin ikasi zutelako. Hala ere, ikastolatik etorritako gurasoek eta andereñoek lan egin zuten neskak eta mutilak elkarrekin jartzeko eta hurrengo urterako (1972-73 ikasturterako) batera jarri zituzten.

Kontuan izan behar da 70 hamarkadara arte Bera Kruz nesken ikastetxea zela bakarrik. Eskolaurrean zenbait mutil zebiltzan arren, geroago herriko eskolara joaten ziren. Zerutxuko ikasleak etorri ahala, mutilak ere gero eta gehiago zirenez, ordutik aurrera ikastetxe mistoa bihurtu zen.

---

42. Zerutxu aldizkaria, 7 zenbakia, 1978ko maiatza.

Bera Kruzera heltzean, Zertutxuko andereñoek beste hainbat “nobedade” ere bizi izan zituzten. Bera Kruzeko gurasoek ez zuten orduan hezkuntzan parte hartzen zuzenean, baina Zerutxukoak etortzean egoera hori aldatu egin zen; hortik aurrera gurasoek, irakasleek eta Mertzedeko mojek batera eraman zuten Bera Kruzen martxa. Mertzedeko mojek eta Bera Kruzeko irakasleek ere jarrera aldatu zuten pixkanaka; hasieran Zerutxutik zetozenak guztia aldatuko zutela uste zuten, dena hankaz gora jarriko zutela, baina konturatu ziren gauzak serio egiten zirela. Gurasoen parte hartze handiagoak, gainera, guraso elkartearen indartzea ekarri zuen; herri mailan gero eta eragin handiagoa izango zuen.

Eskolako materialak erdaraz erabiltzen ziren Bera Kruzen. *Barquero* zen tesu liburu garrantzitsuenaren. Baina euskarazko klaseak indartzen joan ahala euskarazko liburuak ere sartzen joan ziren, *Saioka* izenekoak. Pixkanaka, euskarazko-ari gero eta garrantzia handiagoa eman zitzaion.

Orduko ikastetxe guztietan bezala, Bera Kruzen ere Espainiako bandera jarri behar izaten zen goizero. Mari Karmen Egañak gogoratzen du bere gelan zegoela mastila, bandera jartzeko eta berak jarri behar izaten zuen. Franco hil zen egunean zuzendaria (M<sup>ñ</sup> Dolores Garciak) banderari krespoi beltza jarri behar ziola agindu zion. Mari Karmenek esan zuen berak ez zekiela krespoia nola jartzen zen ere eta ez zuela jarriko. Azkenean zuzendaria bera etorri zen gelara, bandera hartu, krespoi beltza jarri eta berak atera zuen. Hori izan zen Bera Kruzen Espainiako bandera jarri zen azken eguna.

Eusko Jaurlaritzak hezkuntzako eskumenak bereganatu zituen zerutxu eskolaurre gisa ofizialki onartuta zegoen. Eusko Jaurlaritzak onarpen hori berretsi egin zuen bakarrik. Baina Bera Kruzen ere eskolaurrea zegoen sasoi hartan (Zerutxutik aparte). Bera Kruzen helburua ikastetxe kontzertatu bihurtzea zen, diru-laguntza jaso ahal izateko. Horren aurrean Eusko Jaurlaritzak esan zuen Markina-Xemein bezalako herri batean (5.000 biztanle inguruko herri batean) ezin zela eskola kontzertatu bat baino gehiago egon. Bera Kruzek diru-laguntza jaso nahi izatekotan bi aukera zituen: beraien eskolaurrea kendu edo Zerutxurekin bat egin.

Zerutxu elkartekoek ulertu zuten hobe zela eskolaurre bakarra edukitzea, euskaraz, gero OHO guztia ere euskaraz emateko. Harremanak gero eta estuagoak ziren Zerutxu ikastolaren eta Bera Kruzen artean; nahiz eta ikastolaren hasieran harremanak eskasak izan, garai hartarako helburuen batasuna nabari zen: euskarazko irakaskuntza ematea. 1980rako Bera Kruzen haurtzaindegia eta OHOk zatirik handiena euskara hutsez ematen zen. Azkenean, 1985ean bat egin zuten, Bera Kruz ikastola sortuz. Orduan Zerutxun zeuden andereñoak (Garbiñe Arrate, Tere Maiztegi eta Mari Karmen Ibarzabal) Bera Kruzeko eskolaurreko andereño hasi ziren.

Bera Kruz eta Zerutxuren arteko batasunaren ondoren Bera Kruz ikastola sortu zen. Aldaketa garrantzitsua izan zen Markina-Xemeinen euskaraz hezkuntza guztia ematen zen ikastetxea sortzea (ordurako Bekobenta eskola publikoan

ere euskaraz ematen zen). Ikastolako andereñoek egonkortasuna lortu zuten (lanpostu, soldata... aldetik) eta herri erdian zegoen zentro handi bat erdarazko ikastetxe izatetik euskarazko ikastola izatera pasatu zen.

Bera Kruzera pasa ondoren, Zerutxuko andereñoek karmeldarrekin izandako harremana galdu zuten. Momentu horretan garrantzia handiagoa eman zioten ikastetxe berriari beraien lekua aurkitzeari eta beraien egoera orekatzeari, aurretik bizi izandakoarekin lotura mantentzeari baino. Tere Maiztegi gogoratzen du

Garbiñe, Mari Karmen eta hirurok negar ere egin genuen... etapa eta giro jakin bati agur esatea izan zen. Gure artean giro ona zegoen, nahiz eta gorabeherak izango genituen gure artean.

Gogorra izan zen 3 andereño zituen ikastola txiki batentzat Bera Kruz bezalako ikastetxe handi baten sartzea, baina denborara konturatu ziren beraien ahalegina eta ekarpena ere egin zutela Bera Kruzi beste era bateko ukitutxo emateko. Hala ere, komentuarekin bat-batean etena egitearen ondorioz bertan gelditu ziren ikastolako material asko: lanak, ikasleen fitxak, etab.

Denborarekin konturatzen zara atzean utzi duzula altxor bat, beste jende askorentzat aparteko baliorik izango ez zuena, baina bai guretzat [...]. Norbere ikasle izan direnei beti esaten diet 'gure umiek', Lotura afektibo handia sortzen da, nahiz eta harremana igual hain ona ez izan.

gogoratzen du. Garbiñe Arratek ere pena bera sentitzen du:

[...] fraideek gordeko zuten zerbait, baina seguru nago hor gauza asko galdu zirela. Momentu horretan pentsatu nuen Batzordekoak egin behar zirela horren kargu, ni ez nintzela inor horiek hartzeko. Inor ez zen arduratu eta han gelditu ziren. Komentua berri zutenean ere horietako asko bota egingo ziren seguruenik.

Zerutxu elkartearen amaiera ere izan zela esan daiteke, dantza taldea izan ezik (honek gaur egun ere jarraitzen du etengabe euskal folklorea lantzen). Baina batzordea, gaueko eskola, musika... apurka-apurka itzaltzen eta desagertzen joan ziren. Giroa aldatu ahala, jendeak ez zuen beharrezkotzat ikusten kultura ekintza horiek guztiak Elizaren babespean egin beharra; alde batetik, Elizak gizartean izandako pisua beheraka hasi zen nabarmen (praktika erlijiosoko ekintzak behintzat, sinesmena alde batera utziz). Beste alde batetik, frankismoa amaitu ondoren, ekintza horietako gehienak arrisku gabe kanpoan egiteko aukera zabaldu zen: ikastolak legezatu egin ziren, euskarak maila ofiziala erdietsi zuen (Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroako zati batean), etab. Azkenean, ezin da aipatu gabe utzi belaualdi gazteagoek hezkuntza maila altuagoa jaso dutela alor guztietan, beraietako asko ikastolan ibili eta euskaraz alfabetatuta daudela. Mugimendu honen guztiaren sortzaile eta bultzatzaileak euskaldun eta euskaltzale sutsuak izan arren, euskal kultura landurik ez zuten izan eta garai hartan arlo horretan zerbait ezagutzen zuten karmeldarren babesa bilatu behar izan zuten. Gaur egun hau guztia aldatuta dago, herrian hainbat elkarte daude eta bakoitzak jarduera autonomoa egiten du.

## **4. Bertsolari Eguna Karmengo komentuan**



Aita Migel Mariaren ekimen garrantzitsu bat izan zen bertsolariak Karmeldarren komentuan urtean behin elkartzea. Zerutzuri buruzko atalean argi gelditu denez, karmeldar honek euskararekiko eta kulturarekiko ardura bizia zeukan eta horretan laguntzeko gogo bizia erakusten zuen. Hala, bertsolariak elkarrekin harremanak izatea ezinbestekoa iruditzen zitzaion eta Markina-Xemeingo komentua leku ona zela ikusi zuen. Horrela, 1963an hasita, urtez urte Euskal Herriko hainbat bertsolari bildu izan ziren jaialdi honetarako Markina-Xemeingo karmeldarren komentuan. Urteak aurrera joan ahala hasierako indarra galtzen joan zen; egoera politikoa aldatuz zihoan neurrian, bertsolariak ez zuten hain begi onez ikusten jai egun hori komentu barruan egitea eta 1970eko hamarkadaren erdira arte iraun zuen.

#### **4.1. BERTSOLARITZAREN ETA EUSKAL KULTURAREN EGOERA**

1960ko gizarte eraldaketa garrantzitsuen artean ezin ditugu aldaketa kulturalak aipatu gabe utzi. Hego Euskal Herria frankismoaren menpe zegoen garai hartan, baina gorago aipatu dugunez gizartean aldaketa garrantzitsuak gertatu ziren. Euskal kulturaren aurrerapauso garrantzitsuak eman ziren urte horietan. Besteak beste, hauek aipa daitezke: euskal eleberrigintza modernoaren hasiera (Txillardegiaren *Leturiaren Egunkari ezkutua*-rekin hasita), olerkigintza molde berriak (Gabriel Aresti edota Jon Miranderen berritasuna, bai gai aldetik, baita estilo aldetik ere), euskal kantagintza berria (Ez dok Amairu), Koldo Mitxelena eta Luis Villasanteren lanak, besteak beste... Ezin aipatu gabe utzi urte horietan egindako zela lehenengoz Durangoko Liburu eta Disko azoka.

Era berean, 1968ko Arantzazuko Biltzarra eta euskara batuaren sorrera ere ezinbesteko datua du. Euskara batua sortzeko baldintza garrantzitsuena honako hau izan zen: gero eta euskaldun berri gehiago zeuden, bereziki hiriguneetan. Pixkanaka euskara idatzia zabaltzen ari zen, ikastola, gau eskola, alfabetatzen mugimendua eta bestelakoen bidez. Ordura arte ahozko erabilera izan zuen hizkuntza zenez, idazkera zehaztu gabe zegoen eta euskalkien arabera egiten zen. Euskara batua proposatu zutenen helburua hizkuntza bateratzea zen, bereziki ortografiaren alorrean. Alor horretan gatazka gogorra piztu zen “h”-aren inguruan batez ere<sup>43</sup>.

---

43. Hegoaldeko literatura tradizioetik guztiz at zegoen hizkia zen baina Iparraldean erabiltzen zen, ahoz ere aspiratu egiten zen eta. Arantzazuko Biltzarrean “h”-aren erabilera arautzeak euskalgintzan zatiketa handia ekarri zuen; zenbait aditu Euskaltzaindiaren aurka agertu ziren eta akademia paralelo bat sortu zuten: “Euskerazaintza”.

Gerra Zibilaren ostean, bertsolaritza ia-ia desagertua zen. Gipuzkoan tradizio handiagoa zegoen Bizkaian baino, eta horregatik garatuago, sendoago... zegoen. Bizkaian, ostera, galtzeko puntuak zegoen, gerraren eta gerra osteko errepresio gogorraren ondorioz. Bertan eskualde euskaldunenetara mugatua zegoen (Lea Artibai, Busturialdea, Arratia eta Durangaldea gehienbat).

Herriaren aurrean bertsolaritzak prestigio handia zeukan. Bertsolaritzari indarra emateko, lehen txapelketak egin ziren garai hartan, 1958an egindako Bizkaiko lehenengo txapelketatik hasita; txapelketa hau Bilboko Areatzan izan zen. Balendin Enbeitak irabazi zuen, gerra aurretik Mungian (1929) eta Getxon (1930) egindako Bizkaiko txapelketak irabazi zituen berberak, hain zuzen. Hurrengo etorri ziren Euskal Herriko Bertsolari txapelketa (1960), etab. Garai hartan, eta 1986ko txapelketara arte, Euskaltzaindia izan ohi zen lehiaketa horien antolatzaile.

Frankismo garai hartako bertsolaritzaren ezaugarri garrantzitsuenetakoa honako hau zen: bertsolarien inplikazio sozial eta politiko gutxi hartzen zuten. Beldur handia zuten, batez ere nagusienek, konpromisoetan sartzeko. Baina bertsolari gazteek, Gabriel Aresti tartean, bertsolaritzari beste ukitu bat eman nahi zieten, bertsolaritza konprometituagoa nahi zuten; garai hartan Euskal Herriko egoera politikoaren aurrean jarrera argiagoa erakustea garrantzitsua iruditzen zitzaion.

Hala ere, prestigio handia eduki arren, bertsolariak ez zeuden antolatuta. Txapelketak Euskaltzaindiak antolatzen zituen, bereziki Alfontso Irigoien Etxebarriaren (Bilbo, 1929-1996) gidaritzapean. Bertso saioak aldiz bakoitzak bere kontura antolatzen zituzten eta bertsolari bakoitza bere kontura ibiltzen zen. Ezagunenak ez zirenak ez zuten elkar ezagutzen eta horrek bertsolaritzaren garapen egokia oztopatzen zuen.

## 4.2. AITA MIGEL MARIAREN BERTSOZALETASUNA

Karmeldarren komentuko prioreak, Aita Migel Maria Juaristik, bertsolarako zaletasun handia zuen. Bera izan zen bertsolari egun hauen sortzailea. Bertsolarien artean elkar ezagutzea, lankidetzeta eta elkarren arteko berri izatea ezinbestekoa iruditzen zitzaion, bertsolaritza gerra zibilaren eta osteko errepresioaren zulo beltzetik ateratzeko. Idazleen artean edo beste talde batzuetan zegoen elkar ezagutza hori bertsolaritzak falta zuela ikusten zuen. Harreman hori bertsolaritzarako lagungarri izango zela iruditzen zitzaion. Xabier Amurizak honela aipatzen du bere *Enaz*, *banaz* liburuan:

[...] fraile harengan gizatasun eta abertzaletasun ezkutu handi bat aurkitu neban  
[...] oso izakera eta berbakera suabearen azpian nortasun konbentzituak aurkitu neban, Euskal Herriaren bizkunderi lanean behintzat.

Behin, Amurizak Aita Migel Maria motorrez eramanean zuen Azkoitiara, bertso egun horien antolakuntza kontuetan zebiltzala. Bidean bertsolari egun hori zuten

hizketa-gai. Ordurako Amurizak ezagutzen zuen Karmeldarrek euskararen eta bertsolaritzaren alde zuten jarrera argia, baina Aita Migel Marirekin hitz egiten berak uste baino handiagoa zela konturatu zen. Batzar hura ezaguna zen inguru guztian eta horrek agintari frankisten errezeloa behin baino gehiagotan piztuko zuen zalantzarik gabe. Amurizak esan zion konpromiso handiegia bazen beste lekuren bat bilatuko zutela baina Aita Migel Mariak argi esan zion:

[...] guk atek zabalik ditugu, lekua prestatu eta bazkaria eman. Gero zuek ikusi zer egiten duzuen, guk badakigu gauza onak egiten zabilatzatela. Gure etxean geuk agintzen dugu eta beste inork ez du ezer esateko.

1964an Migel Marik berak Basarriren bertso batzuk bidalita gonbidatu zituen bertsolariak. Bertsook *Zeruko Argia*-n argitaratu zituen Basarrik aurreko urtean, Markina-Xemeingo karmeldarren ekimen hau eskertuz:

*Markiña aldetik era ontako  
Albisteak datozkigu;  
Ondo artuak izango gera,  
Ori aurrez badakigu.  
Alkar maiteak izan gaitezen  
Lur gaiñ onetan beti gu,  
Urtean beingo billera on bat  
Oso premizkoa zaigu.*

*Familikoak bezela batu,  
Zer degu gauza oberik?  
Ortatik ez da iñoiz sortuko  
Penik edo naigaberik.  
Txistulariei etzaie falta  
Batzarrik edo billerik,  
Bertsolariok ez ote degu  
Ortako eskubiderik?*

Bertsolaritzaren inguruan zerbait berria egiteko beharra ikusten zuten bertsolari askok ere. Horregatik, ez zioten karmeldarren gonbidapenari uko egin. 1963ko urriaren 12a aukeratu zuten bilera hori egiteko; Pilarreko Andre Mariaren eguna, Guardia Zibilen eta Hispanitatearen eguna ere bazen. Egun horretan bertsolariek berbatu gabeko adostasun bat izan ohi zuten; inongo plazatan ez zuten kantatzen, jai horrekin bat egiten ez zutela adierazteko.

Bertsolari batzuek, “boikot” horrekin bat egiten zuten arren, beste era bateko ekintzaren bat antolatu nahi izaten zuten. Xabier Amurizak gogoratzen duenez, batzuk hasi ziren esaten “egun horretan (Pilarika egunez) ez kantatzea, ondo, baina ezin genezake beste zerbait egiteko aprobetxatu, bakoitza bere etxean egon beharrean?”.

Aita Migel Marik ikusi zuen Pilarika eguna egokia izan zitekeela bertsolariak komentuan elkartzeko. Agintarien aurrean jarduera erlijioso bezala aurkezten



zuen ekitaldi hori, hala behar izanez gero. Guardia Zibilek jai eguna izaten zuteenez, eragozpen gutxiago jarriko zuten egun horretan. Karmengo komunitatearen baitan harrera ona izan zuen ekintza honek, bereziki lehenengo urteetan. Izan ere, karmeldar gehienak joera euskaltzalekoak ziren. Amurizak berak gogoratzen du Aita Migel Mariren jarrera:

[...] jarrera zabala, euskaltzalea eta abertzalea ikusi nuen.[...] Publikoaren aurrean gauza asko egin ezin zituzten arren, azpitik asko laguntzen zuten, lokalak uztean batez ere. Igartzen zen barrutik pozik zeudela, euskal kulturari horrelako mesedea egitean.

Garai hartatik aurrera, gainera, Markina-Xemeingo komentua euskaldunez osatua egon da erabat eta barruko bizitza (harremanak, otoitzak, elizkizunak...) euskaraz egiten ziren. Luis Baraiazarrak gogoratzen duenez “aspalditik Markinako komentura ez dute inor bidaltzen euskara menperatu ezean”.

### 4.3. BERTSO EGUNETAKO EGITARAUA

Bertso Egunetako egitaraua urtez urte errepikatu ohi zen. Goizean, hamai-ketan edo hamaika eta erdietan, meza nagusia ospatzen zuten Karmeldarren elizan, gehienetan Aita Migel Maria berak emanda. Meza hori hildako bertsolarien alde eskaintzen zen. Bertsolariak ere parte hartzen zuten elizkizunean; hasieran, eskaintza orduan eta amaieran bertsoak abesten zituzten, une bakoitzean bina bertso. Hemen, adibidetzat, 1967ko jaialdiko mezan kantatutako bertso batzuk jarriko ditugu.

Azpillagak, meza hasieran, Karmengo Amari bertsolarietzako laguntasuna eskatu zion:

*Zeruko Ama, pixka(ba)txo bat  
Bertsolarieri lagun.  
Gaixo dagoan hizkuntza zarra  
la sendatutzen degun.  
Bake santua nahi gendukela  
Gorrotoarekin urrun.  
Ta Euskal Herrian jaiotzen dana  
Izan daitela euskaldun.*

*Udaberriko xori talde bat  
Egunsentian kantari  
Bezela gatoz bertsolariak  
Bultzaka hizkuntza zarrari.  
Gure gogoa hauxe da eta  
Izan dezala ugari  
Gaur bezalako egun ederrak  
Eskainiagaz Amari.*



Bertsolari eguna. Karmeldarren komunitateko kide batzuk gonbidatutako bertsolariekin. Jesarrita, erdian, betaurrekoekin, Aita Migel Maria Juaristi priorea, 1964-10-12.

Meza amaieran Abel Muniategik bertso hauek kantatu zituen:

*[...]Juntaturikan  
Mintzatu gera otoitzez  
Munduan zehar hamaika gauza  
Konpon(du)tzen dira hitzez  
Eta ondoren zertan ibili  
Hain jokabide traketsez  
Gu behintzat anai izan gaitezen  
Ez mingainez, bai bihotzez.*

*Herri zahar honen esnatzailatzat  
Izendatuak gera gu  
Euskal Herria arnasa eske  
Gure erdian gaur degu  
Bakarka hortik ibilirik  
Heriotza da(d)ukagu.  
Baina guztiak alkar hartuta  
Asko egin dezakegu.*

Meza ostean komentura sartzen ziren eta hitzaldi bat izaten zuten bertsolaritzako gairen bati buruz (historia, elkartearen sortzeko beharra, doinuak...). Bazkaloetan bertso saioa hasten zen. Bertsolarien tartean Ansola anaiek ere parte hartzen zuten txistua jotzen.

#### 4.3.1. Hitzaldiak

Hitzaldiak garai hartako euskal kulturen jantziak zirenek eman ohi zituzten. Gaiak era guztietakoak ziren, betiere bertsolaritzari lotuak. 1964ko batzarrean, adibidez, Aita Lino Akesolo idazle karmeldar ezagunak bertsolaritzaren historiaz egin zuen hitzaldia. Beste urte batzuetan Joxe Mari Iriondo, Xabier Amuriza, Juan Mari Lekuona, Alfontso Irigoien, Hernandorena, Abel Muniategi, Mikel Zarate, Jose Mari Aranalde... izan ziren.

1965eko hitzaldia, berez, Jose Mari Aranaldek prestatu zuen baina azken orduan etorri ezina agertu zuen eta Iriondok eman zuen hitzaldia. Garai hartan, Iriondo Loiola Irratian ari zen lanean eta gertutik ezagutzen zuen bertso mundua. Bertsolaritza Euskal Herrian kristautasuna baino lehenagokoa zela zioen; bertsolariek izaki mitologiko batzuek herritarrentzat zituzten mezuak hedatzea omen zuten beraien zeregina, batez ere beraien haserrea erakusteko. Geroago, kristautasuna sartu zenean, Elizak izaki mitologiko horienganako sinakeriak ezabatu zituen baina bertsolaritza babesten jarraitu zuen beti. Halako neurrian ze, bertsolariek sarritan parte hartzen zuten elizkizunetan, abadeak sermoian esandakoa bertsoz errepikatuz. Ohitura hori, noski, urteetan galdu egin zen, baina Karmengo bilera hauetan nolabait berreskuratzen ahalegindu ziren, esan dugun bezala, mezatan ere bertsoak kantatzen ziren eta. Elizak, gainera, jakin izan zuen bertsolaritzaz baliatzen bere mezua zabaltzeko; lehen bertso liburua XVIII-XIX. mende bitartekoa da, Santa Genobebaren bizitzari buruzkoa, garai hartan Euskal Herriko etxe askotan irakurtzen zena, Erreterriako abade batek argitaratua. Bertsolaritzaren loraldia, aldiz, XIX. mende erditik aurrerakoa da.

Hitzaldi hartan arlo teoriko horretaz gain, bertsolarien elkarte bat sortzeko beharraz hitz egin zen. Iriondok egoki ikusten zuen bertsolarien artean elkarri laguntzeko harremanak sendotzea eta horretarako helbideak fixategi batean jasotzea. Eztabaida bizia sortu zuen gai honek, nahiz eta orokorrean ontzat hartu zen. Horrela, bertsolarien bat ezbeharren bat zela eta saio batera joan ezinik geldituz gero berehala egingo litzateke ordezkapena beste batekin.

Bertsolari elkarte hori sortzeko beharra hurrengo urteetan ere landu zen. 1966an Xabier Amurizak eman zuen hitzaldia gai horretaz izan zen. Elkartasun hori urte luzeetako kontua zela ikusten zuen; bertsolarien konfiantzazko jendea egotea beharrezkoa zela zioen, bertsolariek aukeratutakoak. Antza denez, orduan arte bertsolarien ardurak izan zutenek ez ziren konfiantza hori sortzeko gai izan; ardurabakotasun horrek bertso saio eskasak sortzen zituen, entzulerik gabekoak, bertsolariak ere gogo barik parte hartzen zuten azkenerako. Egoera tamalgarririk horrek, luzera, bertsolarien arteko harremana okertu egingo zuela uste zuen, eta, horrela, belaunaldi berriak bertsolaritzara gerturatzea ezinezkoa zela ikusten zuen.

Amuriza orduan Gizaburuagan zegoen apaiz. Bizkaiko abadeen bertsozaleatasuna azpimarratu zuen. Ez ei zegoen bertsoan ahaleginen bat egiten ez zuen ia abaderik, nahiz eta asko erdizka merdizka ibili. Abade askok min hartzen zuten bertsolaritza norabide zehatzik gabe ikustean. Abadeek bertsolaritza bultzatzeko zuten egitekoaz ere hitz egin zen 1966ko batzar honetan. Babes emaile izaten

jarraitzeko beharra argi ikusten zuten gehienek. Hala ere, bertsolaritza egoera tamalgarri hartatik ateratzeko konponbide bakarra zerbait berria sortzea zen, elkartzen hasi, elkarrekin konfiantza sortu eta beste organizazio bat eratzea zen bide bakarra.

1967an hitzaldi bi egin ziren. Juan Mari Lekuonak bertso doinuez hitz egin zuen eta Amurizak bertso saioen antolakuntza moduaz. Lekuonaren iritzi, bertsolari klasikoek (XX. mende hasierakoek) bertso eta gai aberastasuna izan arren, doinuak nahiko berdintsu erabiltzen zituzten. Gaiak aldatzean doinu bera erabiltzea ez zitzaion egoki iruditzen; entzulearentzat bertso ona gustu txarrekoa izan daiteke doinu jakin batekin, bakoitzak bere koloretasuna dauka eta. Hala ere, kanta paperetan aberastasun itzela zegoela zioen. Doinu errepikapena bat-bateko bertsoetan gertatzen zen gehienbat eta paperetako doinu aberastasun hori plazako bertsolaritzara eraman beharra ikusten zuen.

Doinu berriak sortzeko beharra azpimarratzen zuen. Baita antzinako beste doinuak berreskuratu beharra ere. Baina aldaketak poliki-poliki egin behar zirela zioen, bertsolariek ez zeukaten garai hartako musika berrira tupustean egokitzerik eta. Bide batzuk daude: melodia onak erabiltzea, Lopategik egiten zuen bezala, eta musikariei melodia berriak euskal erara egokitzea. Helburu garrantzitsua bertsoaren bizitasuna bilatzea zen, gaiari egokien zegokion doinua erabiliz. Bertsoa bizia eta alaia izateko bertso laburra eta puntu motza erabili behar zen, bizitasuna lortzeko bide bezala.

Xabier Amurizak egindako hitzaldian bertso saioak antolatzeko ideia berriak proposatu zituen. Izan ere, 1950-60 hamarkadetan bertsolaritzak herritarren aldetik ospea zuen arren, saioetan ez ziren behar bezala hartzen. Errespetu falta agertzen zitzaien askotan bertsolariei. Duintasun handiagoa behar zela ikusten zuten Amurizak eta Abel Muniategik, beste batzuen artean. Bertsolariak artista garrantzitsuak zirela konturatzeko premia ikusten zuten.

#### **4.3.2. Bertsolari partaideak**

Antza denez, Pilarika egunean bertso jaialdia antolatzeak zenbait bertsolari urte batzuetan ezintasuna sortu izan zien. Jai eguna zen, noski, gorago esan dugunez Hispanitatearen eguna, eta lantegi eta fabrika guztiek jai hartu behar izaten zuten. Hala ere, bertsolari asko baserri girokoak ziren, baserritik bizi zirenak, eta haiek ezin besterik gabe jai hartu. Astegunean tokatzen zenean batez ere, baserritar bertsolari batek baino gehiagok joateko ezintasuna agertzen zuen.

Hala ere, Bertso Egun hauetara garai hartako bertsolaririk ezagunenak etorri ohi ziren. Besteak beste, izen asko aipa daitezke: Jon Azpillaga, Jon Mugartegi, Iñaki Eizmendi 'Basarri', Balentin Enbeita, Jon Lopategi, Juan Ibarzabal, Prudentzio Egiguren 'Artañola', Imanol Lazkano, Txomin Garmendia, Joxe M. Iztueta 'Lazkao Txiki', Deunoro Sardui, Xabier Amuriza, Jose Mari Arregi, Jose Agirre, Imanol Uranga, Patxi Iraola, Jose L. Gorrotxategi, Gabriel Aresti, Uztapide, Abel Muniategi, Koxme eta Jose Lizaso (azken hau behin bere seme Sebastianekin etorri eiz zen, hau oraindik 10 urteko mutikoa zela), Basilio Pujana, Patxi Etxeberria, Joxe

Joakin Mitxelena, Gregorio Larrañaga 'Mañukorta', Hernandorena, 'Xalbador', 'Ezponda'... Urtez urte, gainera, kide berriak agertzen ziren.

Jatorriz bizkaitarrak eta gipuzkoarrak ziren gehienak. Iparraldetik aipatu ditugu 'Xalbador', 'Ezponda' eta banaka batzuk etortzen ziren. Basarri, ostera, bizkaitarrekin zegoen harrিতuta. Ez zuen uste Bizkaian horrelako bertsolari uzta opa-roa izan zitekeenik. Gipuzkoarren artean bertsolari handiak egotea ez zitzaion harrigarria iruditzen, tradizio handiagodun lurraldea omen zen eta. Beharbada, Basarri berak ere ez zuen Bizkaiko bertsolaritza Gipuzkoakoa beste ezagutuko. Garai hartako *La Voz de España* egunkarian hau idatzi zuen:

Este año se congregaron 35 vates populares. Nunca me imaginé que se pudiera alcanzar tal número. Había mucho joven entre los mismos. [...] No extraña tanto que surjan bertsolaris en Guipúzcoa. Siempre fue tierra abonada. Lo que le consuela a uno es ver y comprobar el empuje de los hermanos vizcainos<sup>44</sup>.

Aurrerago esan dugunez, Ansola anaiak ere sarritan agertzen ziren Bertsolari egun honetan. Bazkalosteko giroa alaitzen zuten txistua joz. Txistua ere, bertsolaritzarekin batera, euskal kulturaren adierazgarri zenez, egokia zen jai honetan bere lekutxo izatea. Beste pieza batzuen artean, *Agur Jaunak* eta *Gernikako Arbola* ere jotzen zuten.

1965eko saioan bertsolari batzuek hurrengo urteko saiora emazteak edo emaztegaiak ere gonbidatzea proposatu zuten. Kontuan izan behar da garai hartan Markina-Xemeingo karmeldarren komentua klausurakoa zenez, bertan ezin zela emakumerik sar. Beraz, emazteekin jaialdi hori egin nahi izanez gero, kanpoan izan behar zen, jatetxeren batean adibidez. Horrek bertsolaritza zabaltzea, jende gehiago inguratzea ekar zezakeen, baina, aldi berean, agintari eta polizia frankisten aurrean babesgabe geratuko ziren. Hori horrela, hurrengo urteetan ere komentu barruan jarraitzea erabaki zuten.

#### 4.3.3. Bertso batzuk

Bertsolariek hasieran ez zuten lan egiteko gogori ekartzen. Bertsolari egun hauek jai egun lasai ikusi nahi zituzten, elkarrekin lasai egoteko egunak bezala, alegia. Hala ere, bertsozale batzuk bertsoak entzuteko gogoz etortzen ziren eta lanean jartzen zituzten. Prudentzio Egurrola "Artañola" izan ohi zen gai jartzaile gehienetan.

Xabier Amuriza lehenengoz etorri zenerako bertsotan ahalegin txiki batzuk egindakoa zen, baina ez zuen inoiz bertsolari ezagun handi haiekin (Basarri, Lazkao Txiki, Enbeita, Azpillaga...) kantatu. Abadea zenez (orduan sotanarekin ibiltzen zen) ez zuen uste ezer egiteko eskatuko ziotenik; "orduko bertsolariak, nagusienak bereziki, abadeei errespetu handia zieten". Baina bazkalondoan lasai-

---

44. *La Voz de España* egunkariko aipamen hori hemen dago jasota: URKIZA, Julen. *Karmeldarren Markinan (1691-1991). Historia eta agiriak*, 1. arg. Larrea-Zornotza: Karmel sorta, 1992; 456 or.

lasai besteen bertsoak entzuten zegoela “Artañola” aditu zuen esanez “orain Lazkao Txikirekin batera, hona etorri den apaiz berri bat...” hori entzutean susto itzela hartu zuen, “Lazkao Txiki orduan ere ezaguna zen eta ni bertsolaritzan ez nintzen inor orduan”. Baina saioa hasi eta amaitu egin zuen behintzat. Ikusle guztiak, gainera, arreta handiz jarraitzen zuten: “morbo handia zeukan abade gazte bat sotana eta guzti bertsoak kantatzen entzuteak”.

Zaila da hainbeste bertsoaren artean zenbaitzuk aukeratzea hemen jarri ahal izateko. Horretarako ditugun iturriak Aita Migel Mari berak Bertso egun horietako batzuetan (1963tik 1967ra bitartekoetan) egindako grabazioak dira. Grabazio horietan bertsoak, txistua, giroa, hitzaldiak, meza... entzun daitezke, nahiz eta beraietako asko kalitate eskasean egon. Hala ere, garrantzitsua deritzogu horietako batzuk jartzeari. Aukeraketak ez du irizpide zehatzik jarraitzen, ondo entzuten zirenetatik batzuk jarriko ditugu, gure ikergaiarekin nolabaiteko harremana izan dezaketenak.

1964ko Bertsolari egunean Txomin Garmendia eta Iñaki Eizmendi “Basarri”ri honako gai hau jarri zien Prudentzio Eiguren “Artañola” gai jartzaileak: Bertsolari eguneko bazkaria karmeldarren kontura izan ohi zen. Garmendiari gehiegizkoa iruditzen zitzaion urtero karmeldar fraileen kontura halako bazkaria (oparoa, dirudienez) egiteari, eta hurrengo urteetan bertsolarien kontura izatea proposatu nahi zuen. Basarrik, aldiz, datorren urtean ordaintzekoa izanez gero bera ez zela etorriko esan behar zion:

#### Garmendiak

*(1) Oraindik ere, hainbeste gauza  
Badaukagu esateko  
(e)Ta Artañola jarria zaigu  
Bi bertsolari tarteko.  
Basarri jauna, nere iritzia  
Garbi nago emateko;  
Bazkari hau onegi ez al da  
Debaldeko izateko?*

*(3) Nire bizitzan egin izan det  
Ez dakit zenbat enpañõ  
Basarrik ere gaur bada(d)uka  
Komeni hainbat engañõ.  
Asmo horretan ez naiz etorri  
Ni honuntz Markinaraino.  
Fraideak hartzeko hobeak dira  
Besteei emateko baino.*

#### Basarrik

*(2) Ai, Garmendia, guk jartzen degu  
Makinatxo bat endredo  
Mahai santu hon(e)tan gaur izan dira  
Jateko hainbat jenero.  
Nik erantzuna emango dizut  
Orain sendo eta bero  
Markinan ostatu asko daude  
Dena pagatzera-ezkerõ.*

*(4) Handi xamarra esan du baina  
Fraile maiteok barkatu.  
Bertsolarien konturik ezin  
Liteke benetan hartu  
Gaurko bazkari hau neronek e(re)  
Ez det hain txarra gustatu.  
Gero negarrez ibili gabe  
Behar dana orain eskatu.*

## Garmendiak

(5) *Bi bertsolari gaiak hartuta  
Juez, berriz, Artañola  
Bazkari hau ordaindu gabe  
Ni ezin joan inola.  
Basarri jauna ez nu(e)n pentsatzen  
Zu mikatzerikan hola!  
Hor ezagun da aspalditxoan  
Debalde ohituta hagola.*

(7) *Beraz karmeldar fraile hauek  
Bertsolaria(re)n fabore  
Lehenengo aldiz gaur etorri naiz  
(e)Ta hartu naute dotore.  
Hemen debalde izatez gero  
Berriz horrenbeste lore  
Nerekin gaurtik konta zazue  
Hurrengo urterako ere.*

## Basarrik

(6) *Hauxe gogoan hartu behar (de)zu  
Karmeldi maite geroko  
Nik esan gabe denbora askoan  
Ezta hitzik igaroko.  
Bertsolariei emanagatik  
Hemen urpean bi moko  
Seguru nago karmeldar hauek  
Ez dute kiebra joko.*

(8) *Guk ez dakigu biziko geran  
Danok datorren urtean  
Ahal baldin bada hilko gaitzke  
Holakoxe alkartean...  
Hitz erditxo bat esaten a(r)i zait  
Aita Juaristi aldamenean  
Doblea kobratuko digula  
Hil aurreko egunean<sup>45</sup>.*

Bertsolarien artean garai hartan pil-pilean zeuden beste gai batzuk ere aipatzen ziren. Kontuan izan behar da 1960ko hamarkada aldaketa garrantzitsuen sasoa izan zela. Aldaketa horiek Eliza Katolikoan ere nabarmenak izan ziren: elizkizunak tokiko hizkuntzan eta herriari (eliztarrei) begira egiten hasi ziren eta abade gehienak sotana albo batera utzi eta kaleko jantziak erabiltzen hasi ziren, besteak beste. Duda barik, horrelako aldaketek zeresan handia sortu zuten gizartean, bereziki ordura arteko eredu jarraitu nahi zutenen eta “berritzaileagoen” artean.

1966ko Bertsolari egunean gai hori izan zuten Iñaki Odriozola eta Joxe Mari Arregik ere bertsotarako eztabaida; Odriozola herri txiki bateko erretore edo abadea zen, ohitura berriei jarraituz sotana jazteari utzi ziona. Arregi, berriz, herri bereko amama zaharra. Azken hau, lehenago fededun sutsua izan arren, azkenaldian ez ei zen mezetara sarri joaten. Elizan izandako aldaketak ez omen zituen oso gustoko, eta moda berri horiekin galbidera zihoala iruditzen zitzaion:

---

45. Ez da behar bezala entzuten azken puntu hau, entzuleak txaloka hasi baitziren. Jarrita dagoen amaiera nik ulertu dudadana da, gutxi gorabeherako zentzua hartuta.

Odriozola

(1) *Ene amona egiten dizut*  
\_\_\_\_\_ (?)<sup>46</sup>

*Jakina dago denbora berrik  
Neri moda orain dakar.  
Hori ikusita ezazula zuk  
Egin berriz hainbat negar  
Nahiz sotanarik nik ez eraman  
Sinimena ez da galdu behar.*

(5) *Moda berriaz ikusi eta  
Nahigabetzen da orduan  
Aldatuz asko etortzen baita  
Gaurko eguneko munduan  
Zu ez ikaratu ireki zaitez  
Abadearen ondoan  
Egunen baten beti-betiko  
Sartuko zera zeruan.*

Arregi

(2) *Gaztetatikan beti izan naiz  
Ni kristau fedean fina.  
Kristo(re)n legeak zintzo betetzen  
Beti egin det ahalegina.  
Zuen tartean ikusgarriak  
Itsusitu alajaina  
Nolanahi ere aldatu behar  
Dezu Kristoren doktrina.*

(6) *Beste gauza bat amona zaharra(r)i  
Horra bere iritzia.  
Ez du atsegirik apaiz gazteak  
Gauza horrekin ikustia  
Errespetuan herririk herri  
Lehen nonahi ibiltzen zia(n)  
Baina neskak ikusten ditu  
Gaur beraien atzian.(?)*

(3) *Ondo dakizu, amona maite,  
Ni abadea naizela  
Eta ez pentsa doktrinan ere  
Oso nauzunik ustela.  
Zuk ere orain ikas ezazu  
Moda berriak bezala  
Niri jarraitzen ez badidazu  
Galdu zintezke bestela.*

(7) *Hori zertako esan dezu zuk  
Inork egin gabe galde?  
Ohitura berri(a)k ikusi eta  
Oso penatua zaude.  
Amona ona zuk badaukazu  
Munduan mila nahigabe  
Apaiza berdín izan naiteke  
Nahiz sotanik jantzi gabe.*

(4) *Apaiz maitea nik bihotzean  
Gordetzen det zure hitza  
Baino askosaz nahiago nuke  
Lehengo erara balitza.  
Bildurrez nago sartu ote dan  
Gure atera ekaitza  
Nahiago nuke Jauna(re)n grazian  
Lehenbailen hilko banitza.*

(8) *Gaur egunean milaka aldiz  
Egiten zait bururatu  
Eta ez uste apaiz gazteei  
Nik diotela zor hartu  
Baina urte asko daukzkit nik (e)ta  
Zuk itzazu gogo(a)n hartu  
Apaizak salba(t)uko dira baina  
Neskak sotoneratu (?).*

---

46. Grabazioan ez da ulertzen zer dioen.



#### 4.4. BERTSO EGUNEO GORABEHERA BATZUK

##### 4.4.1. 1967ko saioko gertaerak

1967ko Bertso Egunaren bezperetan Abel Enbeita atxilotu zuten. Abelen aita, Balendin<sup>47</sup> (Muxika, 1906-1986), Bertso egunera etorri zen. Meza orduan, Aita Migel Marik emandako hitzaldia bertsolarien beharraz izan zen. Bertsolariak Euskal Herrian antzinako Israeleko profeten antzerako zeregina daukatela zioen. Bertsolariak halako indar berezi bat omen daukate, Jainkozko argiztapen bat bezala, egia esateko gertatzen dena gertatzen dela. Hona hemen hitzaldi horretako zatitxo batzuk, besteak beste Aita Migel Mari Juaristiren bertsozaletasunaren eta bertsolarienganako zeukan errespetuaren erakusgarri:

Nahi nuke bertsolariek niretzat duten handitasuna labur-labur azaltzea[...] Niretzako, izan ere, bertsolaria Testamentu Zaharreko igarle edo profetaren antzerakoa da. [...] Lehenago herri eta hizkuntza askotan ziren bertsolariak; gaur egun Euskal Herrian daudela bakarrik esan genezake, Euskal Herrian bezala “urretxindor gizonak” ez dut uste inon direnik [...]. Testamentu Zaharrean Jaungoikoak bere igarle edo profetak sortu zituen bezala, zuek sortu zaituzte, bertsolariok, aparteko sakontasun batekin.[...] Hori Jainkoak eman dizueenez gero, Euskal Herriaren probetxurako erabili behar duzue [...]. Jainkoak talenturen bat ematen duenean, azkenean talentuon kontua eskatuko du. Zuek guk hartu ez dugun talentu bat izan duzue, ez beldurtu egia esan behar denean egia esateagatik. Testamentu Zaharreko profetek ere beti egia esaten zuten, Jainkoak argitasun berezi hori buruan eta bihotzean jartzen zielako. [...] Bertsolariak ere berez sentitzen du horrelako indar bat, esan behar bat... atzo bertsolari bat kartzelan sartu zutela egia esateagatik? Bedeinkatua bera [...] zorionekoak Jainkoaren hitza entzun eta betetzen dutenak. [...] Aurrera zintzo, gure herria zaintzeko, antzinako profetak bezala.[...] Ez beldurtu, Jainkoa zuekin daukazue eta. Sen hori erabili zintzo, eta zuzen herriaren mesedetan eta Jaungoikoa zuekin izango duzue.

1967ko Bertso Egun horretara Gabriel Aresti agertu zen jaialdi horretara. Bertsolari gehienak harritu egin ziren Aresti bezalako pertsonaia heterodoxo bat komentuan ospatu behar zen jaialdi horretara agertzean. Batzuen arabera, Karmengo komentuko jaia zapuztera etorri ei zen, besteak beste, bertsolaritza komentutik eta eliz girotik aldentzeko beharra aipatu zuen. Bertsolari askok aurka egin zioten bertsoan eta giroa garrazten hasi zen.

Arestik zioenez, lehenagoko bertsolariek ez zuten onartuko bertso jaialdiak komentuetan egiterik. Txirrita bizi izango balitz, komentuetan egin beharrean sagardotegietan egingo lirakekeela, komentuetan babestea bide txarra dela bertsolaritzarentzat... Basarri eta beste batzuek gogor egin zuten jarrera horren kontra, komentuko babesa bertsolaritzak garai hartan ezinbestekoa zuela esanez. Basarri bera ez omen zen urte horretatik aurrera berriz agertu Markina-Xemeingo Karmengo Bertso egunera, dirudienez Arestirekin izandako eztabaida horiek sortu zion barne mingostasuna zela eta.

---

47. Balendin Enbeitaren berri izateko, besteak beste, ikus BARAIAZARRA, L. “Balendin Enbeita, bertsolari-belaunaldien lotura”. In: *KARMEL*, 254 zkia.; 3-21 or.

Gabriel Arestiren asmoetan bertsolaritza politizatzeke arriskua ikusten zuten batzuek. Ordura arte bertsolarien bilgune lasai eta lagunartekoa izan zena politikako gorabeherak zirela-eta bertan behera gelditzeko arriskua ikusten zuten. Giroa, baina, aldatzen ari zen; gero eta bertsolari gehiago atxilotzen zituzten diktaduraren kontrako mezuak bertsoz zabaltzen zituztelako. Horren aurrean, Arestik konpromiso sendoagoa eskatu nahi zien bertsolariei. Xabier Amurizaren berbetan: “batzuek ondo hartu eben baina egunpasa lasai bat lagunartean egitera joan ziren gehienek ‘baztarren nahastailatzat’ jo eben Aresti”.

Bazkalosteko saioan, berriz, bertsolari bakoitzak bertso batzuk abestu zituen Abel Enbeitaren askatasuna eskatuz eta bere aita Balentini animoak ematen jardun zuten. Bilera hartan Gabriel Arestik (Bilbo, 1933-1975) Bizkaiko Gobernadoreari eskutitz bat egitea proposatu zuen, Abelen egoeraz galdetzen eta askatasuna eskatzen. Proposamen horrek eztabaidak sortu zituen bildutakoen artean; elkarri bertsoz erantzuten aritu ziren.

Giroa zertxobait gaiztotu zen urte horretan. Izan ere, bertsolari batzuek Karmengo komentuko Bertsolari Eguna adiskidetasunezko eta zoriontasunezko eguna izan behar zela uste zuten, gatazka eta tirabirak alde batera utzi eta elkarrekin egun alai bat ospatzeko abagunea, hain zuzen. Baina beste batzuek, Aresti bera tarteko, batzar horiek baliatu nahi zituzten egoera politiko nahasiari aurre egin ahal izateko. Azken hauek bertsolariak herriarekin izan behar zuen konpromisoa indartu nahi zuten, jai egun alai bat sortzea baino gehiago. Dirudienez, ordura arteko saio gehienetara etorri zen Iñaki Eizmendi “Basarri” giro horrek goibeldu egin zuen eta ez zen hurrengo urteetan agertu. Horretarako beti jarri ohi zuten aitzakiaren bat.

#### **4.5. BERTSOLARITZAREN BILAKAERA**

Azkenez, Bertsolari egun hau gainbehera hasi zen pixkanaka, bereziki Aita Migel Mariak priore izateari utzi zionetik aurrera. Egiaz bera zen bilera horien arima eta bultzatzaile garrantzitsuena, nahiz eta urtez urte bertsolari batzuk ere antolaketan parte hartzen zuten, Enbeitatarrek, Xabier Amurizak edo Deunoro Sarduik, besteak beste. Baina giro politikoa aldatzen joan ahala gero eta bertsolari gehiagok ez zioten jai-egun hau komentu barru batean egiteari zentzunik hartzen.

Apurka-apurka bertsolaritza kaleratzeko aukerak gehitu egin ziren (jaialdiak, txapelketak...). Bertso eskolak ere garai hartan hasi ziren sortzen, nahiz eta antolaketa eta harreman askorik ez zuten beraien artean. Batez ere, tokian tokiko bertsolari eta bertsozaleek ume eta gazteengan zaletasuna pizteko egindako ahaleginaren emaitza dira; Markina-Xemeinen, besteak beste, Juan Ibarzabal “Buztarri” eta Justo Zabala aritu ziren bertso eskolaren sortzaile, Zerutxu ikastolaren inguruan zegoen mugimendu zabalaren baitan. Geroago Luis Baraiazarra ere aritu zen urte luzez bertsolaritza bultzatzen, bertso eskolan irakasle eta baita hainbat bertso txapelketetan epaimahaiko kide ere. Bera Kruzen irakasle zela, ikasleei bertsoak irakasten jardun zuen, batez ere jaialdietan kanta zituzten; agurrak, ofizioetan, puntuka... dena buruz ikasten zuten gero jende aurrean kanta-

tzeko, benetako txapelketa balitz bezala. Egun horretan Jon Lopategi, Abel Muniategi... egon ziren entzuten; ordurako bertsolaritza apurka-apurka eskoletan sartzen ari ziren, Lopategik bultzatuta, besteak beste. Saio hori gustatu zitzaion eta Markina-Xemeinen bertsolaritza bultzatzeko beharra nabaritu zuen.

Aita Migel Mari Juaristi eta Markina-Xemeingo karmeldarren ekimenez sortutako bertsolari egun hauek gero etorri den antolakuntzaren aurrekari izan ziren. Gaur egungo antolaketak sustrai batzuk gutxienez bertan dituela esan daiteke, nahiz eta bilera hauek 70. hamarkada erdian amaitu ziren eta orain martxan dagoen Bertsolaritza antolaketa guztia 80. hamarkadatik aurrera sortu izan (elkartea, bertso eskolak...).

Izan ere, 1986ko txapelketara arte, antolakuntza guztia Euskaltzaindiaren esku zegoen. Hortik aurrerakoak sortu berri zen bertsolaritza elkarteak hartu zuen txapelketok antolatzeko ardura. Markina-Xemeingo karmeldarren kometuan egiten zen bertsolari egun hori gaur egungo antolakuntzaren enbrioia izan zela esan daiteke.

## **5. Sugar taldea**



## 5.1. SUGAR TALDEAREN SORRERA

Sugar taldearen historia aztertzeko ezinbestekoa da sarrera historiko txiki bat egitea ezeren aurretik. Kontuan izan behar da aurreko atal bietan ez bezala, Sugarri frankismoaren ostean sortu zela, 1976an, hau da, Franco diktadorea hil eta urtebete eskasera, gutxi gorabehera. Diktaduraren morrontzapetik pixkanaka ateratzen ari zen euskal gizartea, baita abertzaletasuna ere. Baina diktaduratik atera ahala, atzean gelditu zen ordura arte abertzaleen (eta frankismoaren aurkakoen) artean nagusi izan zen batasuna. Alderdi politikoak, sindikatuak eta bestelako talde sozialak ugaritu eta legezatu ahala, jendea bereizten joan zen. Zentzu horretan, 70. hamarkada amaieran eta 80. hamarkada hasierako mugimendu hau aurreko biengandik bereizten da giroari dagokionez.

Sugar taldea Aita Tomas Zugaza-Artaza karmeldarrak zuzenduta sortu zen. Hasierako helburua gaztediari erlijio arloan aurrerabidea ematea zen. Karmeldarrek antzerako taldeak zituzten Euskal Herriko beste leku batzuetan, hala nola, Begoñan, Donostian eta abar. “Tomas egokia zen horretarako, gazteekin eta haurrekin asko ibiltzen zen eta. Gero politika kontuetan oso sartuta ibili zen eta azkenean joan egin zen hemendik” gogoratzen du Luis Barraiazarrak.

Aurretik, 1973ko uztailean Tomas Zugaza-Artazak eta Luis Baraiazarrak umeentzako aldizkari bat argitaratu zuten (Tiki-Taka). Ideia garrantzitsuena 8-14 urte bitarteko umeentzat aldizkari deigarri eta atsegina egitea zen. Aldizkari gehiena Luis Baraiazarrak idatzi zuen eta labur-labur Euskal Herriko geografia, historia, ipuinak, erlijiotasuna... lantzen zituen erraz irakurtzeko artikuluetan. Komentuko multikopistarekin egin zen aldizkari hau, 29 folio eta irudi politak zituela. Baraiazarra berak gogoratzen duenez,

Tomas, gazte batzuekin, Derioko ikastaroetara joan zen urte hartan eta aldizkari hau banatzen hasi zen ikastaroan zeudenen artean. Baina ikastaroa amaituta, hango gazte batzuk poliziaren sarekada baten jausi ziren eta Tiki-Taka aldizkaria kendu zieten. Hilabete barru, abuztuan, gure komentua miatu zutenean, ale guztiak eta multikopista ere eraman zituzten<sup>48</sup>.

Miaketa horren ondorioz, beraz, Tiki-Taka umeentzako aldizkaria egiteko proiektua bertan behar geratu zen.

Euskal alfabetatze mugimendua izan zen Sugarren hasierako oinarri. Kili-Kili proiektuan parte hartzen zuen jendea zegoen, Jose Antonio Retolazak bultzatutako proiektua zen, bizkaieraz alfabetatzeko. Ikastolak oraindik indartu gabe zeu-

---

48. Zerutzuren atalean azaldu dira miaketa edo erregistro horren nondik norakoak.

den garaian ume euskaldunei zelanbait euskaraz irakurtzen eta idazten irakasteko proiektu bat zen, Bizkaian sortua, Euskerazaleak elkartearen bultzadaz. Geroago Nafarroa eta Gipuzkoara ere hedatu zen.

Aita Tomasek ere hor parte hartzen zuen, urtez urte jende berria bilatzen zuen ekintza horiek aurrera eramateko; partaide hauen zeregina ume eta gaztetxoek osatzen zituzten Kili-Kili koadernoak ('*Lan ta lan*' izenekoak) zuzentzea izan ohi zen. Geroago Sugar taldea sortu zuten kide batzuk hor aritu ziren eta Aita Tomasek bultzatu zituen Kili-Kiliz gain beste joera bateko talde bat osatzera. Esan beharra dago, gainera, Sugar taldean parte hartu zuten batzuk (gehienbat mutilak) aurretik dantza taldean ibilitakoak zirela. Hala ere, Zerutxu dantza taldearen eta Sugar taldearen arteko harremana zaila izan zen hasieratik.

1975-76 urteetan eztabaida handiak izan ziren Markina-Xemeingo kultur mugimendu osoaren barnean (Zerutxu, dantza taldea, Kili-Kilikoak...). Neurri handi batean, garai horretan gertatu ziren aldaketa politikoen isla izan zen. Franco-ren diktaduraren amaieran sektore euskaltzaleek ordura arte izan zuten batasuna ahultzen eta apurtzen hasi zen. Pixkanaka politikako gorabeherak indarra hartzen hasi ziren eta batzuk besteen kontrako susmoak zabaltzen hasi ziren. Horrela bereizketa argia gertatu zen, batetik Euzko Alderdi Jeltzalearen inguruan mugituko zen jendea eta bestetik geroago Ezker Abertzalea izango zenaren inguruan ibiliko zena<sup>49</sup>.


1975eko irailean amaitzear zen errejimen frankistak Txiki eta Otaegi fusilatuta zituen. Horrek eztabaida handitu baino ez zuen egin, bereziki hurrengo urteko Arretxinagako jaiak ospatu behar ziren edo ez erabakitzeko orduan. Aita Tomasek argi egin zuen jaiak bertan behera uztearen alde. Taldekide batek gogoratzen duenez

[...] batzuek alde batera jo genuen, ezin esan kontzienteki, baina bai giroak bulztatuta. Gauzak diren bezala. 15 urterekin noraino zara kapaz gauzak behar bezala arrazoitzeko.

---

49. Euzko Alderdi Jeltzalea frankismo ostean 1977an legeztatu zen eta urte horretako hauteskunde orokorretan parte hartu zuen. Markina-Xemeinen bera izan zen alderdirik bozkatuena, 1441 botoekin (%65,65). Ondorengo urteetan ere lehenengo postu horretan iraun izan du, nahiz eta gorabehera asko izan. 1977ko hauteskunde horietan ez zen Herri Batasuna aurkeztu, oraindik koalizio hori sortu gabe zegoelako. 1977ko Altsasuko Mahaia deituriko prozesuan parte hartu zuten alderdiak batuko zituen koalizioa izateko sortu zen. Hauek ziren bertan parte hartu zuten alderdiak: Euzko Abertzale Ekintza (EAE-ANV), Euskal Sozialista Biltzarrea (ESB), Herri Alderdi Sozialista Iraultzailea (HASI) eta Langile Abertzale Iraultzaileen Alderdia (LAIA). 1977ko hauteskundeetara lehendabiziko biak aurkeztu ziren, baina emaitza apalak lortu zituzten Markina-Xemeinen (ESBk 90 boto eta EAE-ANV-k 12 boto). Hala ere, 1979ko hauteskunde orokorretan HBk bigarren postua lortu zuen Markina-Xemeinen, 465 botoekin (%21,18). Udal hauteskundeetan, hala ere, ez zen HB aurkeztu Markina-Xemeingo udalerako. Horren ordez, Herri Lan izeneko hautagaitzak lortu zuen bigarren postua, 682 botoekin (%26,91). Bi talde garrantzitsu horietaz aparte (EAJ eta HB), Markina-Xemeinen Liga Komunista Iraultzailea (LKI) izan zen alderdi esanguratsu bakarra: 1979ko udal hauteskundeetan 223 boto (%8,8) eta zinegotzi bat lortu zituen. Alderdi estatualisten presentzia, ordea, urria zen garai hartan; udal hauteskundeetan ez zuten ordezkariarik lortu eta hauteskunde orokorretan (1979koetan esaterako) orduko alderdi garrantzitsuenak batuta (Unión del Centro Democrático-UCD eta Partido Socialista Obrero Español-PSOE) botoen %10 inguru lortu zuten.

Izan ere, adin horretakoak ziren, gutxi gorabehera, Sugar taldea sortu zutenak.



Sugar taldearen akta liburua. Bertan jaso ohi zuten beraien eguneroko jardueraren berri, 1976-09-29.

1976ko irailaren 29an hasi zen Sugarren jarduna. Akta liburuan jasotzen denez, “Sugar taldea Markinako eta Euskal Herriko egoera erlijioso, politiko eta sozialei erantzun jator bat ematen ahaleginduko zen elkartea” izan zen.

Akta liburuan ekintzak era sinplean jaso ziren arren, bizitasun handiko mugimendua izan zen, nahiz eta iraupen laburtzua izan (4-5 urte gehienez). Garai hartan, diktaduratik irten berri, gauzak egiteko gogoia zegoen. “Gainera, asko zegoen egiteko. Ikastola eta dantza taldea bazeuden, lan handia egiten zutena, baina gehiago egiteko gogoia zegoen. Abertzaletasuna bera ere eraberritzeko premian ikusten genuen” dio taldekide batek.

Sugarren ekintzak hiru ataletan bereiz daitezke: jaialdiak, gizarte eskola eta barrura begirakoak edo taldekideentzat izaten ziren ekintzak. Taldea karmeldarren komentuan elkartzen zen, kapera txikiaren goiko aldean eta batzarrak sarri izaten zituzten (astean behin gutxienez, askotan sarriago, aktetan agertzen denez).

## 5.2. SUGAR TALDEAREN JAIALDIAK

Sugarrek antolatutako lehen jaialdia frontoian egin zen 1976ko urriaren 24an. Jaialdi hau arrakastatsua izan zen 2.000 lagun bildu baitziren (kontuan izan frontoiak 1.000 lagunentzako tokia daukala soilik). Antolaketa guztia Sugaurrekoek beraiek egiten zuten (frontoia muntatu, deialdiak egin, jaialdiaren osteko garbiketa...). Jaialdi horretan Hibaik Rekondo, Joseba Etxebarria, Gontzal eta Xeberri eta Izukaitz taldea aritu ziren, garai hartan puntarengo zeuden musikariak.

Kartel bana jartzen zuten jaialdi bakoitzean, lema abertzaleekin. “Kartelak geuk egiten genituen, berdin plastiko zatiekin zein etxeko izara zaharrekin ere”. Lehenengo jaialdi horretako lema hau izan zen: “Abertzale izan ezker, guztiok anai”, Telesforo Monzonen abesti ezagunetik hartutako letra hain zuzen.

Urte bereko abenduaren 8an beste jaialdi bat antolatu zuten, Zeru Handiko gurasoek (behar bereziak zituzten umeen gurasoek) eskatuta. Izan ere, garai hartan ume horien egoera larria zen, ez zeukaten ezelako bitartekorik. Jaialdi hau arrakasta itzela izan zen, 3000 lagun bildu baitziren bertan. Hala ere, dirudenez zenbait ikurrina agertu ziren (artean legeztatu gabe zegoela) eta guardia zibilak sartu ziren ikurrina haiek eramateko. Momentu batzuetan jaialdia bertan behera gelditzeko zorian egon zen arren, azkenean dena ondo atera zen. Ekitaldia, gainera, biribila zen garai hartarako: abeslariak (Manex Pagola eta Errobi bikotea), bertsolariak (Lopategi, Azpillaga, Amuriza, Lizaso, Lazkano) eta trikitilariak (Sakabi eta Egañazpi). Taldekide batek gogoratzen du: “Txomin ‘Altzalei’ zen orduan kantxeroa. Akordatzen naiz zelan zegoen emozionaturik”. Horrelako jaialdi gutxi errepikatu izan da Markina-Xemeinen, batetik frontoian horrenbeste jende sartzen utziko ez luketelako eta bestetik orduan zituzten baliabide eskasekin gaur egun ez litzatekeelako aukerarik egongo horrelako zerbait antolatzeko.



Giro horretan, Sugar izan zen geroago Ezker Abertzalea izango zenaren lehen hazia Markina-Xemeinen. 1976rako independentzia eta amnistiaren aldeko lehen ekitaldietan parte hartu zuten taldean. Gainera urte hartan egindako lehen itxialdietan ere egon ziren, “ezker abertzalea indartzeko asmoz”. Markina-Xemeinen egiten ziren ekitaldiez gain, Euskal Herriko beste toki batzuetara ere joaten ziren: adibidez, 1977ko abuztuan Euskadiko Askatasun Ibilaldiaren amaiera ekitaldira joan ziren Iruñara.

1977ko maiatzaren 21ean “Ipar Euskadiko abeslariekin gaupasa-gaudantz” jaialdia antolatu zen. Bertan Mikel eta Xabat, Eiherabide anaiak, Pantxoa eta Peio eta Ekain Taldea aritu ziren, Iparraldeko abeslari taldeak Markina-Xemeinen ezagunago egiteko asmoz. Jaialdi hartarako ere pankarta berezia egin zuten: “Ipar eta Hego Euskadi, Euskaldunon aberri”.

Jaialdi hauetaz gain, Sugar taldeak era aktiboan parte hartzen zuen herriko beste ekintzetan, Aberri Egunean edo Karmen jaietan esaterako. 1977ko jaietan bertsolarien eta dantza txapelketaren arduradun izan ziren eta gainera Liburu eta Disko azoka antolatu zuten, euskal kultura zabaltzeko. Hau ere pankarta eta guzti; “Kultura, herri askatzaile”. Liburu eta Disko azoka hori hurrengo urteetan ere antolatu zuten.

1977ko urriaren 29an Errobi bikotearen eta bere orkestra osoaren emanaldia antolatu zuten frontoian. Musika emanaldiaz gain, pelikula batzuk ere proiektatu ziren: *Monzon y los extrañados*, *Askatasun Ibilaldia*, *Pertur eta Apala*, *Isla de Yen* eta *Estado de excepción*. Egun hartan frontoian HASIren pintada bat agertu zen. Taldekide baten arabera “ez genuen guk jarri, ez talde moduan behintzat”. Alkateak pintada hura kentzeko agindu zien Sugarrekoei, bestela ezingo zutela jaialdia egin eta. Azkenean kendu egin behar izan zuten.

1978ko urtarrilaren 31n Karmeldarren nagusia (Aita Jenaro, Makarda base-rrikoa) agertu zen lokalera, Sugarren jokabide eta helburuei buruz zenbait zehaztasun jasotzeko. Ordurako, zenbait lagun joango zitzaizkion Sugarri buruz berba egitera, ea zertan ari ziren... kezkatzen. Askok ikusiko zuten Sugar taldeko gazteen Karmengo sartu-irtena... eta susmoak izango zituzten.

Batzar horretan Sugarren jardueraz berba egin zuten. Taldekide baten berbetan,

[...] ez naiz gogoratzen zehatz zeri buruz aritu ginen baina berak esandako esaldi hau grabatuta gelditu zait: ‘Ah, zuek gaztik zarie... ez dakizue zelako gatxa dan norberak sinesten ez dabena inori sinistu eragitea’.

Aberri Egunaren inguruko ekintzak egiten ere hasi ziren. 1978ko Aberri Egunerako egin zituzten ekintzak zehazten dira akta liburuan. Lehen egitekoa liburu

eta aldizkarietan begiratu eta esaldi egokiak bilatzea izan zen, kartelak egiteko. Besteak beste, lema hauek jarri ziren: “Euskadik Euskal Herri izaten jarraitu nahi badu, independentzia behar du”, “Euskadi nazio euskaldun bezala salbatu nahi badugu, independentzia bide bakarra”, “Abertzale guztion borroka irrintzia, independentzia”, “Lehengo eta oraingo gudarien kartzelak eta heriotzak independentzia oihukatzen dute Euskadirentzat”, etab. Urte hartan Iruñara joan ziren Aberrri egunera, kontzentrazio eta manifestazio ekitaldietan parte hartu eta Mugairen bazkaldu zuten.

### 5.3. GIZARTE ESKOLA

1977ko otsailean hasi zen Sugarren ibilbidean garrantzitsua izan zen beste ekintza bat: Gizarte Eskola. Gizarte Eskolaren helburua Markina-Xemeinen eta inguruetan gizarte eta politika gaietan zegoen jakin-mina asetzea zen. Izan ere, erregimen frankistako eskoletan ibilita jasotako hezkuntza ideologia horren araberakoa zen. Horri aurre egiteko joera ezkertiar eta abertzaleko hitzaldien multzoa izan zen Gizarte Eskola.

Sugarren egoitza Karmenen zegoen arren, Gizarte Eskola Mertzede-ko ikastetxean eratu zen. Izan ere, Sugar taldekoek uste zuten garai hartan horrelako ekintza bat agerian egiteak arazoak ekarriko lizkiekeela karmeldarrei. Mertzede-ko atea zabalik hartu zituzten. Urte gutxitan egoera politikoa zeharo aldatu zela argi ikusten da hemen. Zerutxurekin bat egin ondoren, Bera Kruzen barruan beste mota bateko giroa nagusitu zen. Izan ere, Frankismoa amaitu ondoren horrelako mugimenduak asko ugartu ziren eta gizartean gauzak egiteko gero eta gogo handiagoa zegoen.

Gizarte Eskolako hizlarien artean, garai hartako jende esanguratsua zegoen: Jose Luis Lizundia, Paulo Agirrebaltategi, Xabier Kintana eta Gurutz Jauregi etorri ziren besteak beste. Landutako gaiak oso teorikoak ziren, kontuan izanik orduko jendeak ezer gutxi entzun zuela horietaz, eta entzundako ia guztia frankismoak manipulatu zegoela: Eusko lurra, Euskal unibertsitatea, Hizkuntza eta Nazio arazoa, Israelgo esperientzia, KAS alternatiba, Internazionalak, Sozialismoa, Marx, Ezker Abertzalea hauteskundeetan aurrean... Hitzaldi hauetara gutxi gorabehera 30 lagun elkartzeko ziren akten arabera, gonbidapenez. Gehienak ezker abertzalearen ingurukoak izan ohi ziren. Izan ere, Gizarte Eskolara gonbidapenez joaten zen jendea, antolatzaileek beraiek gonbidatuta. Horretaz aparte, herritar guztientzat hitzaldiak ere antolatu zituzten hasieran; horietan Abel Muniategi (“Euskal Foruak”), Zeberio (“Nekazarien egoera”) eta Ortzi (“Euskal Herria gaur”) izan ziren hizlariak.

77ko abuztuan Orduñako talde bat etorri zen Markina-Xemeinera euskara ikastera. Sugar taldekoak izan ziren irakasle, gehienbat Karmen Gisasola. Klase

horiek Karmenen eman zituzten, Sugarren lokalean baina lo Xemeingo abade-txean egiten zuten. 78an ere berriro etorri ziren.

77ko udazkenean hasi zen Gizarte Eskolako bigarren ikasturtea. Aurreko urtean bezala, gai teorikoak izan ziren nagusi: “Euskal Prehistoria”, “Txinako hezkuntza sozialista”, “Komunismoa eta sozialismoa”, “Proletargoaren diktadura”, “Euskadiren independentziarako urratsak”, “Foruak”, etab. Baina garai hartan nagusi ziren eztabaida politikoen inguruko azalpena egiten zuten gaiak ere baziren: “Preatonomia”, “Estatutua”, “Euskadi euskaldundu”...

Gizarte Eskola apurka-apurka gai praktikoagoetara mugatzen hasi zen. Hasierako izenburu potoloen ordez Euskal Herriaren eta ezker abertzalearen antolaketaren ingurukoei buruzko hausnarketak izan ziren nagusi. Hala ere, hila-beteak aurrera joan ahala, gainbehera joan zen: hizlari asko etorri ezinean gelditzen ziren, deialdiak ez ziren behar besteko denborarekin egiten... Akta liburuan agertzen da Sugar taldeak ardura erakutsi zuela Gizarte Eskolaren inguruan zegoen ardura faltagatik. 1978-79rako hitzaldiak askotan atzeratu egin behar izaten ziren, bertan behera gelditzen ziren edo ordezkioak jarri behar izaten ziren.

#### 5.4. SUGAR TALDEAREN BESTELAKO JARDUERA BATZUK

Sugarrek neurri handi batean koadrila batek bezala funtzionatzen zuen. Bertako ideak elkarrekin ibiltzen ziren asteburu eta jaiegunetan. Urtebetetzeak eta jaiak ospatzera elkarrekin joaten ziren, adibidez. Hala ere, taldeari izaera berezia eman nahi izan zioten. Kaiku eta *eskudoa* zituzten ikur. *Eskudo* hau Tomasek diseinatu zuen: sumendi bat izar batzuekin eta lauburu batekin. Beheko Mojek<sup>50</sup> bordatu zituzten kaikuetan. Sugarrek berez ez zuen harremanik Beheko Mojekin, baina Tomasek egin zuen bitarteko lana, beste kasu askotan lez.

Lagun-talde izaera horrek nolabait oztopatu egiten zuen helburu zehatzak jartzea. Izan ere, batzuek beraren jarduera arlo kulturalera mugatu nahi zuten bakarrik, baina beste batzuek bide politikoetatik ere abiatu nahi zuten.

Arazo hori konpontzeko, taldeak barne araudi bat onartu zuen. Araudi horretan Sugarren izaera kulturala azpimarratzen zen gehienbat. Bertan Sugarreko partaide eraginkor izateko baldintzak jarri ziren: asteroko batzarretara joatea,

---

50. “Beheko Mojak” izenez ezagutzen ziren Markina-Xemeinen moja karmeldarrak. XIX. Mendetik 2003ra arte egon ziren bertan, Artibai kalea eta Arretxinaga etorbidea elkartzen diren bidegurutze ondoko eliza eta komentuan. 2003an komentua utzi eta Zaldibarrera joan ziren, ortua saldu ondoren. Ortu horretan eraiki zen plaza “Beheko Mojen plaza” da gaur egun.

gizarte eskolako hitzaldietan parte hartzea, euskaraz alfabetatzea eta formazioa, besteak beste. Hori horretara zela zaintzeko, eta nolabait taldearen funtzionamendua arautzeko, zuzendaritza talde bat eratzea ere adostu zen.

Udalean euskara batzordea sortzen joan ahala, lehen zeregina alfabetizazioa bultzatzea izan zen. Markina-Xemeingo talde asko bildu ziren bertan: Zerutxu, Sugar, Xemein abesbatza, Guraso elkarte eta herriko eskoletako irakasleak.

Euskara alorrean egindako lanak hainbat alorretakoak izan ziren. Besteak beste, ordura arte erdara hutsean zeuden kartel asko euskaratzen ahalegindu ziren. Kontuan izan behar da, horretan zebilen jende asko, euskalduna izan arren, alfabetatu gabea zela eta ez zegoela ohituta euskarazko itzulpenak egiten. Kartel batzuk euskaratzeko Euskaltzaindira jo zuten, laguntza eske. Hala ere, euskararen ingurukoak ez ezik, bestelako seinale eta kartelak ere egiten zituzten; Guraso elkartearentzat, adibidez, pankarta bat egin zuten, gidariei Markina-Xemeingo herrigunean astiro joateko esanez.

Gabonetan margo eta idazlan lehiaketa antolatzen zuten. Umeek egindako marrazkiak erakusketa batean jartzen zituzten sariak nori eman erabakitzeko. Behin, adibidez, saria lxaka Lopez-Mendizabalen (Tolosa, 1879-1977) *Xabiartxo* liburua izan zen. Liburu hau euskal irakaskuntzaren klasikoa zen; 1925ean argitaratu zen lehendabizi, garai hartako ikastoletako lehen testuliburu izateko. Frankismo denboretako ikastoletan ere, euskaraz zegoen liburu bakarrenetakoa zen. Aipatu behar da, lan honekin lotuta dagoenez, *Xabiartxo* liburua gipuzkeraz argitaratu zela lehendabizi, Lopez-Mendizabal bera tolosarra izaki. Hala ere, 1965ean Aita Santi Onaindia karmeldarrak bizkaieratu zuen<sup>51</sup>.

Sugarren garaiko beste eztabaida garrantzitsu bat zentral nuklearren arazoa izan zen. Sugarrek hasieratik bat egin zuen Lemoizko zentral nuklearraren aurkako mugimenduarekin. Hainbat ekintza pentsatu ziren energia nuklearrari aurre egiteko. Markina-Xemeinen, gainera, kontzientziazio maila txikia zegoela ikusten zuten. Horri aurre egiteko kartelak egin eta hitzaldiak antolatu zituzten, Debako batzorde antinuklearreko kide batzuen eskutik. Gainera, martxoaren 11n, manifestazio bat egin zuten. Egun berean baserritarrek greba eguna deitua zeukaten esne sektorearen arazoengatik protesta egiteko eta Sugarreko kideek manifestazio biak batzea erabaki zuten. Biharamunean, martxoak 12, Lemoizera abiatu ziren taldekide gehienak manifestazio nazionalera.

---

51. Aita Santi Onaindiak bizkaieratutako testua, besteak beste, Interneten eskura daiteke (pdf dokumentuan) ondoko helbide honetan: <http://www.euskerazaleak.biz/PDF/idazleak/Aita%20Santi%20Onaindia/Liburuak/1965/Xabiartxo.pdf>.

Aita Tomasek bultzatuta karmeldarren komentuan elkartzen zirenez, taldeak barne jarduera erlijiosoetan ere parte hartzen zuen. Gogoratu behar da hasiera-ko definizioan ere nola aipatzen zen “egoera erlijioso, politiko eta sozialei erantzun jator bat emateko taldea” zela. Besteak beste, Aste Santuan edo Gabonetan ospakizun bereziak egiten zituzten taldean. Baina Sugarren lehen urteetatik, ekintza erlijioso hauek indarra galtzen joan ziren, askotan bertan behera gelditzen zirelako edo beraiek prestatzeko boluntariorik ez zegoelako.

## 5.5. SUGAR TALDEAREN AMAIERA

1978ko irail inguruan, Aita Tomas joan egin zen Markina-Xemeingo komentutik. Sugar taldekoek, dirua batu eta opari bat egin zioten: urrezko txapa bat atzean esaldi hau jarriaz: “Sugarrek bere sortzaileari”. Garai hartan Markinatik alde egin zuen, baina oraindik ez zen Perura abiatu. Oromiñon gelditu zen, bere arrebaren baserrian, denbora batez.

Behin Tomas Markinako komentutik joan zenean, taldeak aurrera jarraitu zuen Karmengo lokalean, baina karmeldarrekin ez zeukan zuzeneko harremanik. 1980 urte ingururako, karmeldarren artean ere, Sugar beste modu batean ikusten hasi ziren. Komunitateko kide askoren ustez, Sugarren jokabidea hasieran jarritako helburuetatik aldentzen joan zen. Gainera, Sugar taldekoak sakristiatik pasatzen ziren lokalera joateko eta horrek eragozpen batzuk sortzen zituen. Horregatik, karmeldarrek Sugarreko kideei lokala uzteko eskatu zieten. Lokal hori behin betiko itxi zuten, harik eta beste gazte batzuek aurretik jarritako helburuak betetzeko beste talderen bat sortu arte, beti ere lokal horren azpiko saloia karmeldarren esku geratzekotan.

Geroago, Sugar taldea pixkanaka indarra galtzen hasi zen. Gizartean aldaketak gertatu ziren, bestelako taldeak ugartu zirelako (alderdiak, mugimenduak, aisialdiko taldeak...) eta Sugarrekoak banatzen hasi zen (egitekoei zegokienean): AEK sortu zen, esku pilotako taldea, Markinak Euskaraz,... Horrez aparte, Sugarrekoak bakoitza bere lanetan hasi zen, behin ikasketak amaituta, etab. Politikako ekintzetan ere batzuek gero eta inplikazio handiagoa izan zuten, familia sortu zuten batzuek... Hala ere Sugarreko kideak lagun izaten jarraitu dute, azken finean, Sugarren aritu ziren urteetan bezala gero ere koadrila berekoak izaten jarraitu dutelako askok. Bi gauzak bereiztea ez zen erraza. Taldekide baten berbetan “ez dakit zer ginen aurretik: lanerako elkartutako koadrila bat edo joera bateko talde bat azkenean koadrila bihurtu zena”.

Baina, 1980ko hamarkada hasieratik aurrera Sugar taldeak jarraipen zuzenik izan ez arren, orduetik aurrera Markina-Xemeinen egin diren ekitaldi eta ekintzetan parte hartzen jarraitu dute bertako kideek. Horietatik esanguratsuena eta ospetsuena, urtero, abenduaren 8an (Andra Maria Sortzez Garbiaren jaia

edo Kontzezio Eguna), antolatu ohi den bertso saioa izaten da. Bertan, unean uneko bertsolari ezagunek parte hartu ohi dute, eta oihartzun handia izaten du Markina-Xemeinen ez ezik, baita inguruko herrietan ere. Gaur egun Amaiur elkartearen ardura da jaialdi hori antolatzea, baina bere lehen sustraiak Suga-rrek antolatzen zituen jaialdietan daude. Hogeita hamar urte baino gehiagotan hutsik egin gabe antolatutako ekitaldi horren aitzindari izan zen, hain zuzen, 1970eko hamarkadaren bigarren erdialdean Markina-Xemeingo karmeldarren komentuan elkartutako gazte talde hau.

## **6. Bukaerakoa**



Lan honekin pasa den mendeko 60-80. hamarkadetan Markina-Xemeinen karmeldarren komentuaren inguruan eratu zen mugimendu kultural, sozial eta politiko zabala aztertu nahi izan dut. Mugimendu horren ardatza, izan ere, herri erdi-erdian kokatutako karmeldar fraideen komentua izan zen. Besteak beste, garai hartako egoerak horretara bultzatuta, erlijioso karmeldarrak herriko bizi-moduaren alde nabarmenetan eragin zuzena izan zuten.

Sarreran aipatu den bezala, 1960ko eta 1970eko hamarkadak ez datoz gaur egungoekin bat. Gizartea nabarmen aldatu da azken urteetan, eta ordukoari begiratu ondoren gaur egungoa aztertzean, beste mundu baten gaudela iruditzen zaigu. Aurrerapenak alor askotan izan ditugu: teknologia, garraioak, hezkuntzaren zabalkundea, gizarte eredu berria... eta horiek guztiek gure pentsatzeko eta jarduteko moduan iraultza ekarri digute.

Hizkuntzari dagokionean, adibidez, joan den mendearen erdi aldean markina-xemeindar gehienak euskaldunak ziren arren (gehienak familia euskaldunetan, euskal hiztunetan, jaiok zirelako), gutxi zekiten euskaraz irakurtzen eta idazten. Horrez gainera, kalean ere desagertzeko zorian zegoen. Euskaraz zegoen material apurra eskuratzea gaitza zen gehienentzat, bai argitalpen murrizak zirelako, baita, aitortu beharra dago, euskara lantzeak ez zuelako behar besteko prestigiorik gizartean. Horren aurrean, argi ageri da karmeldarrek (Markina-Xemeingo kasuan, besteak beste) hartu zuten konpromiso argia bertako kulturen eta hizkuntzaren alde. Izan ere, kontuan izan behar da euskaraz irakurtzen edo idazten zekiten gehien-gehienak erlijiosoak zirela garai hartan. Komentuak, hain zuzen, leku egokiak izan ziren hizkuntzaren babestoki izateko; egin-eginean ere, abade eta erlijiosoek sarri erakusten zuten hizkuntzarekiko ardura, batez ere beraien zeregina herritar euskaldunekin garatzen zutenean. Literatura idatziari dagokionez, ezin da ahaztu frankismo garaiko urte haietan (1960ko hamarkadara arte) euskaraz argitaratzen zen ia guztia Elizak argitaratzen zuela.

Ulertzekoa da, beraz, karmeldar askok ere euskararekiko eta euskal kulturarekiko ardura bizia izatea. Idazlan honetan sarri aipatu denez, ezinbestekoa da Aita Migel Maria aipatzea, besteren artean. Orrialde hauek irakurri dituztenek honezkero badakite herritar askok nolako begirunea eta eskerrona dioten oraindik ere. Garairik gogorrenetan herriko umeek euskaraz ikas zezaten egindako ahaleginak, izerdi askoren ostean, fruitua eman zuen. Gauza bera esan daiteke Bertsolarien Eguneko ekitaldiari buruz ere; urte beltzetan galzorian zeuden kultura ezaugarri horiei indarra ematen jardun zuten karmeldarrek.

Gizartean erlijioak izandako garrantzia galera ere ezin da aipatu gabe utzi. Sinesmen eta jarduera erlijiosoen datuetan sartu gabe, esan daiteke gizartean erlijioak orain dela zenbait hamarkadara arte zuen biltze indarra moteldu egin



dela. 1960 eta 70eko hamarkadetara arte Elizaren inguruan burutzen zuten markina-xemeindar gehienek beraien bizitza soziala; lan honetan aipatu diren Zerutxu eta Sugarrez gain, aipatzeko modukoa da, adibidez, Eskola Laboralaren inguruan zegoen mugimendu zabalak: zinea, euskarazko gau eskolak, oinarriko kristautu taldeak (JOC, HOAC, Mariaren Alabak...) etab. 1970 eta 80ko hamarkadetatik aurrera, aldiz, ekintza horiek beste talde edo eragile batzuen esku gelditu ziren. Jendartean gero eta gehiago ziren erlijioa fenomeno pertsonala zela eta horrek erlijioaren indar soziala murriztu zuen. Hori ikusi da, besteak beste, Sugar gazte taldeak izandako ibileran ere; hasieran ikuspegi kristautik egiten zuten beraien jarduna, baina, pixkanaka, ekintza erlijioso horien garrantzia murrizten joan zen eta bestelako jarduera politiko eta sozialak indarra hartzen joan ziren. Arlo horretan, 70eko hamarkadatik aurrera gertatutako aldaketa sozial, politiko eta erlijiosoak nabarmenak izan ziren, ez bairik gabe.

Markina-Xemeingo komentu honek, herrira begira ez ezik, Euskal Herri osora begira lanean jarraitu du, euskal kultura eta hizkuntzaren esparruan. Ezin da aipatu gabe utzi hiru hilero kaleratzen den *Karmel* aldizkaria. Bertan, karmeldarrez gain, euskal kulturagintza eta literaturan idazle ezagunek idazten dute, gai ugari buruz (literatura, gizartea, kultura, erlijioa...). Era berean, *Karmel*-en inguruan egin diren beste hainbeste lanetan euskarazko, euskal kulturako eta erlijiozko lanek garrantzia. Euskara hutsez egindako lehen hiztegiak ere komentu horren babespean sortu ziren, besteak beste. Lan isil eta iraunkorraren bidez euskal kulturagintzari bultzada garrantzitsua eman izan zaio horma sendo horien barnetik.

Gaur egun, komunitate txiki bat bizi da bertan. Erlijioso bokazioak urtez urte gutxitzen joan izan dira eta lehenagoko komunitate handiagoen orde murriztagoak dira orain. Horren ondorioz, beraien oihartzun publikoa ere leun zitekeen, batez ere euskarazko beste komunikabide, argialetxe eta elkarte ugari (askoz ere indartsuagoak) sortu ahala. Orain ere lan handia egiten dute Markina-Xemeingo karmeldarrek euskara eta kultura alorretan (jarduera erlijioso eta elizkoiez gain, noski). Aldaketa nabarmenena, baina, komentuetatik kanpo gertatu da azken hamarkadatan: euskalgintza deitzen den sektorea nabarmen hazi da, liburu eta aldizkari argitalpenek nabarmen egin dute gora eta horren aurrean karmeldarrek (edo beste talde erlijiosoek) jarraitzen duten ekarpena, garrantzitsua izan arren, txiki gelditzen dela irudituko zaio bati baino gehiagori. Hala ere, ez litzateke bidezkoa izango herriko urterik beltzenetan, herritarrak bere hizkuntzarekiko ezjakin ziren garaian, herriari hain zerbitzu jatorra eskuzabaltasunez eskaini zion komunitate horri esker hitzik ez eskaintzea. Horixe izan da lan honen helburu garrantzitsuena: Markina-Xemeingo herriaren izenean Udalak ekarpen hori eskertu eta txalotu nahi izatea.

Hemendik aurrera, garai berriek ahalegin sendoagoa eskatuko digute guztioi aurrekoengandik jaso dugun ondare zabalak gure hurrengo datozenei helarazteko. Karmeldarrek ere jarrai bezate beraien eguneroko lan horretan eten gabe, garai berrien erronkei aurre eginez, gizartearekin batera baina beraien izaera bereziari eutsiz.

Ezinbestekoa da herri batek bere iragana ezagutu, baloratu eta eskertzea. Hona arte iritsi bazara, irakurle, espero dut Markina-Xemeingo historiaren pasartetxo batzuk ezagutzuz gozatzeko aukera izango zenuela.

## **7. Bibliografia**



## 7. BIBLIOGRAFIA

### 7.1. Liburuak

- AKESOLO, Lino. *Idazlan guztiak*, 1. arg. Larrea-Zornotza: Karmel Sorta, 1989; 876 or.
- AMUTXASTEGI, Felipe; IRIGOIEN, Iñaki. *Zerutxu dantza taldea (Markina-Xemein, 1966-1991). Euskal folklorea lantzen*. Markina-Xemein: Zerutxu dantza taldea, 1995; 169 or.
- ARRIEN, Gregorio. *Bizkaiko ikastolak, 1957-1972. Beren hasiera eta antolaketa – Las ikastolas de Bizkaia, 1957-1972. Sus orígenes y organización*. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1993; 289 or.
- BARIAZARRA, Luis. *Nire sasoiko Markina-Xemein*. Markina-Xemein: Markina-Xemeingo Udala, 2009; 485 or.
- BARINAGARREMENTERIA, Maria Dolores. *El medio rural de Markina-Xemein*. Bilbo: Markina-Xemeingo Udala; Bizkaiko Aurrezki Kutxa, 1989; 154 or.
- BILBAO, Miguel A. *Las fiestas Euskaras de Markina, año 1883- Markiña'ko Euskal Jaiak, 1883 urtea*. Markina-Xemein, 1982; 206 or.
- BILBAO, Miguel Angel. *Artibai Mendiñoizale Taldea. Grupo Alpino Artibay, 1946-1996*. Markina-Xemein, 1996.
- FERNANDEZ, Idoia. *Oroimenaren hitza. Ikastolen historia. 1960-1975*. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea; Bizkaiko Foru Aldundia, 1994; 302 or.
- IRIZAR, A.; KAREAGA, A. *Arrasate: Kooperatiba baten ibilbidea. Trayectoria de una cooperativa*. Oñati: Fagor Arrasate koop., 2003.
- MITXELENA, Mari K. *Elbira Zipitria (1906-1982)*. Gasteiz: Bidegileak bilduma; Eusko Jaur-larritza, 2005; 28 or.
- MUÑIZ, Ibai. *Lea Artibai. Eskolatik Eskualdera. De la Escuela a la Comarca*. Markina-Xemein: Lea Artibai ikastetxea, 2007; 204 or.
- URKIZA, Julen. *Karmeldarrak Markinan (1691-1991). Historia eta agiriak*. Larrea-Zornotza: Karmel Sorta, 1992; 936. or.
- URKIZA, Julen; BARIAZARRA, Luis. *Frai Bartolome Santa Teresa. Idazlan guztiak*. Bilbo, Euskaltzaindia-Karmel Sorta, 2000; 1.556 or. (interneten eskuragai, <http://www.bizkaia.net/Home2/Archivos/DPT04/Temas/Pdf/portada.pdf> orrialdean).
- ZUAZO, Koldo. *Euskara batua: ezina ekinez egina*. Donostia: Elkar, 2005; 174 or.

### 7.2. Aldizkarietako argitalpenak

- AKESOLO, Lino. "Aita Jose Domingo Ugartetxea". In: *Garaian*, nº2, 1988. Markina-Xemein; 5-7.
- BARIAZARRA, Luis. "Fray Bartolome de Santa Teresa, euskal idazle klasikoa". In: *Garaian*, nº 24, 1999. Markina-Xemein; 18-22.
- BARIAZARRA, Luis. "Markina-Xemeingo Karmengo eliza". In: *Garaian*, nº 32, 2003. Markina-Xemein; 44-45.

- BARAIAZARRA, Luis; URKIZA, Julen. "Markinako udala, Karmengo komentua babestai-  
le aparta". In: *Garaian*, nº 8, 1991. Markina-Xemein; 40-42.
- "GARAIA". "Las Madres Carmelitas de Markina-Xemein". In: *Garaian*, nº 33, 2003. Mar-  
kina-Xemein; 37-40.
- BARAIAZARRA, Luis. "Orma urtetsuetatik kontu zaharrak". In: *Garaian*, nº 1, 1987. Marki-  
na-Xemein; 16-19.
- BARAIAZARRA, Luis. "Markinako Karmengo komentua. Euskal kulturagune". In: *Garaian*,  
nº 21, 1997. Markina-Xemein; 31-33.
- BARAIAZARRA, Luis. "Zerutxu ikastolaren 25. urtea". In: *Garaian*, nº 4, 1989. Markina-  
Xemein; 12-14.
- BARAIAZARRA, Luis. "Erlijiotasuna Markina-Xemeinen". In: *Garaian*, nº 36, 2005. Markina-  
Xemein; 7-11.
- BARAIAZARRA, Luis. "Aita Zezilio eta Pragako Jesus Haurra". In: *Garaian*, nº 5, 1989. Mar-  
kina-Xemein; 38-40.
- BILBAO, Miguel Angel. "Del sentimiento religioso de los markineses (I)". In: *Garaian*, nº 15,  
1994. Markina-Xemein; 15-20.
- BILBAO, Miguel Angel. "Del sentimiento religioso de los markineses (II)". In: *Garaian*, nº 16,  
1995. Markina-Xemein; 39-46.
- JUARISTI, Patxi. "Markina-Xemeingo jaiak (I)". In: *Garaian*, nº 37, 2005. Markina-Xemein;  
5-7.
- TORREALDAI, Joan M. "Euskararen zapalkuntza (1936-1939)". In: *Jakin*, nº 24.
- BARAIAZARRA, Luis. "Balendin Enbeita, bertsolari belaunaldien lotura". In: *Karmel*, n 254;  
3-21 or.

Honetaz guztiaz aparte, bestelako materiala utzi didatenak eskertu behar ditut. Karmeldarren komentuan zeuden Zerutxu elkarteko aktak eta bertsolari eguneko grabazioak baliozkoak izan dira lan hau egiteko orduan. Era berean, Sugar taldearen akta liburua zein Zerutxu aldizkari aleak eskuratzea ere lagungarria izan da. Lehenengoan zehatz azal-  
duta agertzen dira egunez eguneko jarduerak, hartutako erabakiak eta egindako ekin-  
tzak. Bigarrena, aldiz, noizbehinkako argitalpena izan zen. Ikastolako ume, guraso eta  
laguntzaileentzat argitaratzen zen eta, besteak beste, kultura alorreko berriak, euskal gra-  
matikari buruzko artikuluak, umeek egindako marrazkiak, ikastolako berriak... agertzen  
ziren bertan, launa orrialdeko aldizkari xumeetan.

**Eranskinak**



## 1. KRONOLOGIA

	Markina-Xemeingo gertaerak	Euskal Herriko eta munduko gertaerak
<b>1950eko hamarkada</b>	<p>1952-09: Markina eta Xemeinek bat egin zuten.</p> <p>1957-10: Lanbide Ikastegi Parrokiala ("eskola laborala") inauguratu zen.</p>	<p>1957-03: Erromako Itunaren bidez, Europako Ekonomia Erkidegoa sortu zen.</p> <p>1958: Pio XII.a hil ondoren Joan XXIII.a aukeratu zuten Aita Santu.</p> <p>1959: Kubako iraultza</p> <p>1959-07: Espainian modernizazio ekonomikoa lortzeko "Plan de Estabilización" direlakoak martxan jarri ziren.</p> <p>1959-07: ETA (Euskadi ta Askatasuna) taldea sortu zen.</p>
<b>1960ko hamarkada</b>	<p>1960: Jenaro Familia Santuarena (jaiotzaz, Hilario Larruskain) karmeldarren priore izendatu zuten bigarrenez.</p> <p>1960-10-24: Justo Arrieta Martinez Markina-Xemeingo alkate izendatu zuten.</p> <p>1961-11: Aita Jose Domingoren <i>Stabat Mater</i> obra estreinatu zen Xemeingo elizan, Gernikako Santa Zezilia abesbatzaren eskutik.</p> <p>1962: Arretxinagako Mikel Deunaren Abesbatza eta ezpata dantzarien taldea sortu ziren.</p> <p>1962-06: Markinako zelaia berriztatu zen, zebra bideak, Tate aurreko irlotea eta Eliza Txikiren atzeko bidea irekita.</p> <p>1963: Aita Migel Maria Jesus Haurarena (jaiotzaz, Manuel Juaristi) Markina-Xemeingo karmeldarren priore izendatu zuten.</p> <p>1963: Eskola Laborala handitzeko lanak hasi ziren (hirugarren solairua).</p>	<p>1960: Afrikako hainbat lurralderen deskolonizazio prozesuak hasi ziren.</p> <p>1961: Berlingo harresia eraiki zen.</p> <p>1962-10: Joan XXIII.a aita santuak deituta, Vatikanoko II. Kontzilioari hasiera eman zitzaion.</p> <p>1963-05: Delitu politikoak epaitzeko, "Tribunal de Orden Público" izeneko epaitegia sortu zen.</p> <p>1963-09: Joan XXIII.aren ondoren Paulo VI.a aukeratu zuten Aita Santu.</p> <p>1963-10-9: Kontzilioak elizkizunetan tokiko hizkuntzak erabiltzea baimendu zuen.</p> <p>1966-03: Frankoren gobernuak "Prensa eta Inprentaren legea" ezarri zuen.</p> <p>1966-12: Estatuaren Lege Organikoa onartu zen.</p> <p>1967-03: ETAREN V. Asanblada.</p> <p>1967-06: Sei Eguneko Gerran, Israeliek inguruko estatu arabiarrek garaitu zituen.</p>

	<b>Markina-Xemeingo gertaerak</b>	<b>Euskal Herriko eta munduko gertaerak</b>
	<p>1963: Arrieta alkateak deitutako idazlan lehiaketak porrot egin zuen. Alkateak eta karmeldarren prioreak Mertzedeiko ikastetxera jo zuten hezkuntza euskaraz emateko eskatzera.</p> <p>1963-10: Lehen Bertsolari batzarra karmeldarren komentuan.</p> <p>1964-10: Ume Jesusen kofradiaren 50. urteurreneko ospakizunak. Aita Zeziliori omenaldia.</p> <p>1964-10/11: Zerutxu ikastola martxan hasi zen Karmengo komentuan, Nekane Aginaga andereñoarekin.</p> <p>1965-09/10: Garbiñe Arrate andereño sartu zen.</p> <p>1965: Zerutxu ikastolako umeak Eibarren ospatu zen “Euskal Jaian” parte hartu zuten.</p> <p>1965-10: Markina-Xemeingo Guraso elkarte sortzeko lehen batzarrak.</p> <p>1965-10: Zerutxu ikastola kontzejupean ezarri zen.</p> <p>1966-11: Zerutxu talde kulturala erregistratu zen.</p> <p>1967-01: Luis Rodriguez Duralde Markina-Xemeingo alkate izendatu zuten.</p> <p>1967-01-22: Zerutxu elkartearen eraketa batzarra. Lehen batzordea, Frantzisko Arrateren zuzendaritzapean.</p> <p>1967-02-28: Zerutxu elkarteak “Lehen Euskal Jaialdia” antolatu zuen.</p> <p>1967-05: Aita Migel Anjel San Joserena (jaiotzaz, Migel Batiz Bilbao) Karmeldar Oinutsen Ordenako (OCD) Jeneral izendatu zuten.</p> <p>1967-06: Udalaren eskariz, Zerutxu elkarteak herriko Karmen jaiak antolatzeko batzordean esku hartu zuen, Felipe Amutxastegiren bidez. Umeen eguna antolatzen parte hartu zuten.</p>	<p>1968: Pragako Udaberria. Sobietarrek erreforma eskatzeko altxatu zirenak zapaldu zituzten. Parisko ikasle- en errebolta.</p> <p>1968-06: ETaren eta guardia zibilen arteko tiroketa batean Xabier Etxebarrieta eta guardia zibil bat hil ziren.</p> <p>1969-07: Frankok Juan Karlos Borboikoa bere ondorengo izendatu zuen.</p>

	Markina-Xemeingo gertaerak	Euskal Herriko eta munduko gertaerak
	<p>1967-09/10: Arantza Santamaria-Amurrio andereño sartu zen.</p> <p>1968-01-29: Zerutxu dantza taldea sortu zen, ikastolako umeak batuz.</p> <p>1968-02-16: Bizkaiko Gobernadore Zibilak Ikastola kontzejupetik kanporatzeko agindua eman zuen. Horren aurrean txikienen taldea (andereño Garbiñerekin) Karmenera itzuli zen eta nagusiagoak (andereño Nekane eta Arantzarekin) etxe batzuetan gelditu ziren klaseak ematen (Aginagatarren eta Foruriatarren etxeetan).</p> <p>1968-12: Ez Dok Hamairu taldeak kantaldia eskaini zuen Markina-Xemeingo frontoian, Zerutxu elkarteak antolatuta.</p> <p>1969-01-12: Zerutxu elkartearen batzar orokorrak batzorde berria aukeratu zuen, Ramon Viteriren zuzendaritzapean.</p> <p>1969: Jenaro Familia Santuaren (jaiotzaz, Hilario Larruskain) Karmengo komentuko priore izendatu zuten.</p> <p>1969-06: Ziortza Markina-Xemeinera anexionatuta gelditu zen.</p> <p>1969-06: Udal biblioteka inauguratu zen.</p> <p>1969-09: Nekane Aginagaren ordezkari Maritxu Ituarte eta Begoña Isasi hasi ziren andereño.</p> <p>1969-11: Zerutxu ikastola osoa Karmeldarren komentuan kokatu zen.</p>	



	<b>Markina-Xemeingo gertaerak</b>	<b>Euskal Herriko eta munduko gertaerak</b>
<b>1970eko hamarkada</b>	<p>1970-09: Mari Karmen Egaña hasi zen andereño.</p> <p>1971-06: Zerutxu ikastolako umeek azterketak Markinako eskola "nazionaletan" egin zituzten. Aurreko urteetan kanpoko ikastetxeetara jo behar izaten zuten.</p> <p>1971: Joakin Iriondo Mendieta izendatu zuten Markina-Xemeingo alkate.</p> <p>1971-09: Zerutxu ikastolako 6 urtetik gorako umeak Bera Kruzera pasatu ziren, baita beraien andereño Begoña Isasi eta Mari Karmen Egaña ere. Luis Barai-zarra karmeldarra ere orduan joan zen Bera Kruzera maisu.</p> <p>1971-10: Garbiñe Arrate ikastolan bakarrik zegoenez, Tere Maiztegiari proposatu zioten andereño sartzeko.</p> <p>1972: Aita Lino Akesolo Markina-Xemeingo karmeldarren priore.</p> <p>1972-12-23: Gabon kanten lehen txapelketa frontoian.</p> <p>1973-08-02: Guardia Zibilaren miaketa karmeldarren komentuan.</p> <p>1975-07: Lehen Euskal Jaia Markinan.</p> <p>1975-12: Gabonetan, lehen aldiz, Olentzeroren kalejira antolatu zuen Zerutxu elkarteak.</p> <p>1976-05: "Markinako Euskal Kultur Astea" antolatu zen.</p> <p>1976: Pedro Azkune Arrate Markina-Xemeingo alkate.</p> <p>1976-09: Aita Tomas Zugaza-Artazaren gidaritzapean, Sugar gazte taldea sortu zen.</p> <p>1976-10-24: Sugarren lehen jaialdia frontoian. 2000 lagun elkartu ziren.</p> <p>1977: Lauren Aretxabaleta Goikoetxea Markina-Xemeingo alkate.</p> <p>1977-02: Sugar taldeak gizarte eskola abiarazi zuen Mertzedeko ikastetxean.</p>	<p>1970-10: Burgosko prozesua.</p> <p>1970: Villar Palasí ministroak Hezkuntzako Lege Orokorra indarrean jarri zuen, Oinarritzko Hezkuntza Orokorra (OHO) sortuz.</p> <p>1973: Yom Kippur gerra Israel eta arabiarren artean. Petrolioaren krisia.</p> <p>1973-12: ETAk Carrero Blanco gobernuburua hil zuen.</p> <p>1974-02: Bilboko gotzain Antonio Añoverosek argitaratutako pastoralak Espainiaren eta Vatikanoren arteko tentsio handiko momentuak ekarri zituen.</p> <p>1975-04: Bizkaia eta Gipuzkoan salbuespen egoera aldarrikatu zen.</p> <p>1975-09: Gerra auzitegi batek ETA eta FRAPeko bost kide erahil zituen, nazioarteko protesta handiak izan arren.</p> <p>1975-11: Franko diktadorearen heriotza. Juan Karlos I.a errege izendatu zuten.</p> <p>1976-03-03: Gasteizen polizia 3 langile erahil zituen.</p> <p>1976-08: Amnistia orokorra aldarrikatu zen.</p> <p>1977-06: Alderdi politiko gehienek legeztapenaren ondoren, frankismo osteko lehen hauteskundeak egin ziren Espainian.</p> <p>1978: Lemoizen zentral nuklearra egitearen aurkako jarrera indartsua.</p> <p>1978: Egiptok eta Israelek Camp David-en bakea sinatu zuten.</p> <p>1978-12: Konstituzioa onartu zen.</p> <p>1979: Iraultza islamiarra Iranen.</p> <p>1979-10: Araba, Bizkaia eta Gipuzkoarako Gernikako Estatutua onartu zen.</p>

	<b>Markina-Xemeingo gertaerak</b>	<b>Euskal Herriko eta munduko gertaerak</b>
	<p>1977-06: Jose Luis Lauzirikak zuzenduta, Xemein abesbatza jendaurrean aurkeztu zen.</p> <p>1977-07: Zerutxu ikastolak ordura arte herriko eskolak izan zirenak hartzeko aukera lortu zuen. Konpondu ondoren, 1978an hasi ziren erabiltzen.</p> <p>1977-09: Mila Arrieta andereño aukeratu zuten eta Mari Karmen Ibarzabal bere ordeko.</p> <p>1977-09: Zerutxu aldizkaria argitaratzen hasi zen. Aulestin "Urregarai" ikastola sortu zen.</p> <p>1978-06: Udalean Euskarazko Batzordea sortzeko bazarra egin zen. Bertan parte hartu zuten taldeak: Zerutxu, Sugar, Xemein Abesbatza, Guraso elkarte eta herriko eskoletako irakasleak. Bertan euskal alfabetatzeko taldeak osatu ziren.</p> <p>1978-09: Tomas Zugaza-Artaza karmeldarrak Markinako komentua utzi zuen. Sugar taldekoek agur afaria egin zioten bere jaiotetxean, Oromiñon.</p> <p>1978-10: ETAk guardia zibil bat hil zuen Markina-Xemeinen.</p> <p>1979-09: Mila Arrieta herriko eskoletara pasa zen.</p> <p>1979: Lehen udal hauteskunde demokratikoak. Lauren Aretxabaleta (EAJ-PNV) aukeratu zuten alkate.</p>	

	<b>Markina-Xemeingo gertaerak</b>	<b>Euskal Herriko eta munduko gertaerak</b>
<b>1980ko hamarkada</b>	<p>1980-09: ETAk lau guardia zibil hil zituen Markina-Xemeinen.</p> <p>1980-12: Mari Kruz Ansola Zerutxun andereño sartu zen (urte bete jardun zuen).</p> <p>1980-12: Guraso elkarteak liburu eta disko azoka antolatu zuen.</p> <p>1983-06: Zerutxu elkarteak Lekeitioko Ibilaldian esku hartu zuen.</p> <p>1983-06: Simon Bolibar museoa inauguratu zuten.</p> <p>1983-06: Artibai futbol taldea sortu zen.</p> <p>1983-06: ETAk Eduardo Vadillo Vadillo behargina hil zuen Markina-Xemeinen.</p> <p>1983-08: Uholde handiak.</p> <p>1983-08: Jaime Rementeria atxilotu zuten.</p> <p>1983-09: Markinan “Lore Jokoak” ospatu ziren, 1883koen mendeurrenean.</p> <p>1984-05: Euskararen aldeko kanpaina burutu zen Markina-Xemeinen.</p> <p>1985-09: Zerutxu ikastolako ume eta andereñoak Bera Kruz ikastetxera pasatu ziren, Bera Kruz ikastola sortuz.</p>	<p>1980: Lehen hauteskunde autonomikoak. Karlos Garaikoetxea lehendakari izendatu zuten.</p> <p>1980: Iran eta Iraken arteko gerra.</p> <p>1981-02: ETAk Lemoizko zentral nuklearraren aurkako atentatu batean Ryan ingeniaria hil zuen.</p> <p>1981-02-23: Espainiako armadako kide batzuk estatu kolpea ematen saiatu ziren.</p> <p>1982-09: ETA (pm)-k borroka armatua utzi zuen.</p> <p>1982-10-28: PSOEk hauteskunde orokorrak irabazi zituen.</p> <p>1982-11: Joan Paulo II.a aita santua Loiola eta Xabierren izan zen.</p> <p>1983-02: Espainian abortuaren erdizkako despenalizazioa onartu zen.</p> <p>1984-11: GALEk Santi Brouard hil zuen Bilbon.</p> <p>1985-01: Karlos Garaikoetxea lehendakari zati dimititu ostean, Jose Antonio Ardanza jarri zuten lehendakari.</p> <p>1985: Gorbatxovek gidatuta, Sobietar Batasunean erreforma politiko eta ekonomikoak abiarazi ziren (“Perestroika”).</p>

## **2. ZERUTXU BATZORDEKO KIDEEN ZERRENDA**

### **1967-01-22ko batzordea (lehenengoa)**

Lehendakaria: Francisco Arrate.

Lehendakari ordea: Julian Maguregi.

Idazkaria: Jose Antonio Ansola.

Idazkari ordea: Joaquin Maguregi.

Diruzaina: Juan Duralde.

Diruzain ordea: M<sup>a</sup> Soledad Ibarzabal.

Mahaikoak: Laurentzi Aretxabaleta, Felipe Amutxastegi, Ramon Viteri, M<sup>a</sup> Karmen Juaristi, Anjel Juaristi, Celestino García, Javier Arrate, Ignacio Maguregi, Jacinto Viteri.

### **1969-01-12ko batzordea**

Lehendakaria: Ramon Biteri.

Lehendakari ordea: Santiago Txurruka.

Idazkaria: Jose Antonio Ansola.

Idazkari ordea: Joakin Maguregi.

Diruzaina: Juan Duralde.

Diruzain ordea: M<sup>a</sup> Karmen Juaristi.

Mahaikoak: Lauren Aretxabaleta, Felipe Amutxastegi, Anjel Juaristi, Migel Anjel Bilbao, Jacinto Viteri, Evencia Aginaga, Kasilde Aginaga, Kristina Beaskoetxea, Ebentzi Loiola.

### **1970-02-22ko batzordea**

Lehendakaria: Ramon Biteri.

Lehendakari ordea: Santiago Txurruka.

Idazkaria: Jose Antonio Ansola.

Idazkari ordea: Juncal Ansola.

Diruzaina: Jose Ramon Olasolo.

Diruzain ordea: Kristina Beaskoetxea.

Mahaikoak: Felipe Amutxastegi, Migel Angel Bilbao, Ebentzi Loiola, Ebentzi Lejardi, Kasilde Aginaga, Fernando Pagegi, Joakin Elordi, Sabino Aretxabaleta, Pedro Balentziaga.

“Asesor religioso”: Migel Maria Juaristi, OCD.

### **1971-01-25ko batzordea**

Lehendakaria: Lauren Aretxabaleta.

Lehendakari ordea: Isidro Arroitauregi.

Idazkaria: M<sup>a</sup> Jesus Arrizabalaga.

Idazkari ordea: Juncal Ansola.

Diruzaina: Jose Ramon Olasolo.

Diruzain ordea: Jabier Aginaga.

Mahaikoak: Felipe Amutxastegi, Joakin Elordi, Sabino Aretxabaleta, Justa Biteri, Fernando Pagegi, Purificacion Foruria, Jose Luis Agirre, Maritxu Ituarte, Garbiñe Arrate.

### **1973-03-18ko batzordea**

Lehendakaria: Juan Jose Orbea.  
Lehendakari orde: Josu Bilbao.  
Idazkaria: Jose Antonio Oregi.  
Idazkari orde: Begoña Isasi.  
Diruzaina: Migel Ibarluzea.  
Diruzain orde: Martin Salaberria.  
Mahaikoak: Antonio Kareaga, Juan Ibarzabal, Trini Beaskoetxea, Jabier San Martin, Juan M<sup>a</sup> Ibaibarriaga, Eusebio Juaristi, Arantza Maguregi, Miren Arroita-jauregi, Jose M<sup>a</sup> Ugaldea.

### **1974-03-12ko batzordea**

Lehendakaria: Juan Jose Orbea.  
Lehendakari orde: Antonio Kareaga.  
Idazkaria: Jose Antonio Oregi.  
Idazkari orde: Begoña Isasi.  
Diruzaina: Santi Txurruka.  
Diruzain orde: Martin Salaberria.  
Mahaikoak: Jabier San Martin, Trini Beaskoetxea, Ikerne Arzuaga, M<sup>a</sup> Karmen Egaña, Migel Ibarzabal, Juan M<sup>a</sup> Ibaibarriaga, Jose Etxebeste, Juan Jose Espilla.

### **1975-02-03ko batzordea**

Lehendakaria: Agustin Etxebarria.  
Lehendakari orde: Felipe Amutxastegi.  
Idazkaria: M<sup>a</sup> Karmen Egaña.  
Idazkari orde: Pakita Ugarte.  
Diruzaina: Santi Txurruka.  
Diruzain orde: Anjel Juaristi.  
Mahaikoak: Juan Ibarzabal, Jose Etxebeste, Juan Jose Orbea, Juan Jose Espilla, Ikerne Arzuaga, Jabier Arrate, Ebentzi Loiola, Juan Jose Fundazuri.

### **1976-02-16ko batzordea**

Lehendakaria: Agustin Etxebarria.  
Lehendakari orde: Felipe Amutxastegi.  
Idazkaria: Pilar Mandiola.  
Idazkari orde: Begoña Zelaia.  
Diruzaina: Kepa Bedialauneta.  
Diruzain orde: Anjel Juaristi.  
Mahaikoak: Ebentzi Loiola, Juan Jose Fundazuri, Jabier Arrate, Arantza Urresti, Pedro M<sup>a</sup> Agirreamalloa, Luis Ruiz de Austri, M<sup>a</sup> Karmen Arrieta, Jose Antonio Oregi.

### **1977-02-28ko batzordea**

Lehendakaria: Jesus M<sup>a</sup> Egia.  
Lehendakari orde: Anjel Kareaga.  
Idazkaria: Pilar Mandiola.  
Idazkari orde: Begoña Zelaia.  
Diruzaina: Kepa Bedialauneta.  
Diruzain orde: M<sup>a</sup> Jesus Errasti.  
Mahaikoak: Arantza Urresti, Pedro M<sup>a</sup> Agirreamalloa, M<sup>a</sup> Karmen Arrieta, Paulino Gerrikagoitia, M<sup>a</sup> Karmen Legorburu, Juan Jose Ugarte, Migel Ibarluzea, Jabier Urrutia.

#### **1978-03-06ko batzordea**

Lehendakaria: Jesus M<sup>a</sup> Egia.

Lehendakari ordea: Anjel Kareaga.

Idazkaria: Nere Sololuze.

Diruzaina: Felix Pertika.

Mahaikoak: M<sup>a</sup> Jesus Errasti, Paulino Gerrikagoitia, M<sup>a</sup> Karmen Legorburu, Juan Jose Ugarte, Migel Ibarluzea, Jabier Urrutia, Jose Alberdi, Migel A. Barinagarrementeria, Rosita Urresti, Jesus M<sup>a</sup> Aransolo.

#### **1979-02-19ko batzordea**

Lehendakaria: Jose Luis Azpiri.

Lehendakari ordea: Jesus M<sup>a</sup> Egia.

Idazkaria: Nere Sololuze.

Diruzaina: Felix Pertika.

Mahaikoak: Rosita Urresti, Jose Alberdi, Jesus M<sup>a</sup> Aransolo, Migel A. Barinagarrementeria, Sabin Aretxabaleta, Justo Zabala, Jesus M<sup>a</sup> Sarasua, Jose M<sup>a</sup> Jaio, M<sup>a</sup> Jesus Maiztegi, M<sup>a</sup> Karmen Ibarzabal.

1980ko aktetan ez da kargu banaketa agertzen. Aipatzen da Jose Antonio Eizagirre, Anjel Ugarte, Jose Antonio Martinez, Arantza Maguregi, Jose Luis Larrinaga, Maritxu Oregi eta Karlos Bustindui sartu zirela batzordean baina ez dio zeintzuk irten ziren. Lehendakartzan Jose Luis Azpirik jarraitu zuen eta Maritxu Oregi izan zen idazkari.

## **ARGAZKI KREDITUAK**

Amutxastegi, Felipe: 66, 79

Arrate, Garbiñe: 46, 65, 69

BARAIAZARRA, Luis. "Bizente Batizekin unetxu bat". In: *Karmel*, nº 260, 2007. Markina-Xemein: 75

Bilbao, Miguel Angel: 71

Karmeldarren artxiboa: 42, 45, 55, 59, 89

Sugar Taldea: 103